

25. urteko ospakizuna Olazarren



Elkarteko kide batzuk. | A.T.

Eskoriatzako erretiratuen elkartearendako ereserkia egin dute Irizarrek eta Arzallusek | 11

Arrasateko sanjuanen hasierako ekitaldiak zapatuan eta domekan | 15



Euskal hedabideen geroa aztergai da gaur Arrasaten | 5



Murrizketak aurreikusten dira Elgetako eskoletan | 27

Emakumezko azkarrenak Osintxun bizikletan

Soraluce sariak 150 zilista baino gehiago batuko ditu bihar | 29



lazko irteera. | JOSETXO ARANTZABAL

Egitarau betea hiruko torneoan Bergaran

Bihar goizean hasita saskibalo partiduak izango dira kalean | 28



EUSKAL ABESLARI EZAGUNAK ESKORIATZAN

Erramun Martikorena, Mikel Markez eta Mikel Urdangarin abeslari entzutetsuak gonbidatu dituzte Eskoriatzara, Errekan Gora ekimenera; uztaillaren 6an hasi eta astebururo uztaillaren 28ra arteko ekitaldiak iragarri dituzte. | 24

Errekan Gora ekimenaren aurkezpenean kartel iragarlea erakusten; asteen eman dute horren berri. | AMAIA TXINTXURRETA

Herriak denondako izateko, kaleko oztopoen aurkako taldea sortu dute

Trauti elkarteak batu dira mugitzeko zailtasunak dituzten herri-tarrak. Oñatin agerian eta ez horren agerian dauden oztopoak zerrendatu dituzte eta Udalari jakinarazi dizkiote. Orain, hilero dabilta Udalarekin batzartzen, eta mugikortasun arazo batzuk konpondu dituzte. | 2

SINADURAK



Estralurtarra | 6
ANDONI URZELAI

6 | Nafarroaren konkista...
INAZIO ARREGI

Zappinga | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 |
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

"Burujabetzaren aldeko lau indarren potentzialtasuna islatzen du EH Bilduk"

Maribi Ugarteburu

Ezker abertzaleko bozeramailea | 8

Gaur eta domeka artean irekiko dute uda sasoia igerilekuetan

Uribarri Ganboa, Landa eta Garaio ere gertu izango dira | 4

IKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Gure herriak denondako izan daitezzen gura du Trauti elkarteak

- ▶ Oñatin elkarteak sortu dute dozena bat lagunek
- ▶ Mugitzeko oztopo arkitektonikoak salatzen dituzte

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Oñati ez da ibiltzeko herri zailetariko, baina samurragoa ere izan daiteke; denondako herria, hain zuzen. Hori da Oñatin sortu den Trauti elkarteak eskatzen duena: denondako izan dadila. Eta denondako horretan sartzen dira ibiltzeko eta mugitzeko zailtasunak dituzten herritarrak. Horiek ez dira bakarrik gurpildun jesarlekuan dabiltzanak edo itsuak; horiek, bai, baina baita muletak erabiltzen dituztenak, gutxi ikusten dutenak, adinekoak... Halako gero eta jende gehiago dago, eta, Trautikoek esaten dutenez, edozeinek izan ditzake eroso ibiltzeko arazoak lehenago edo geroago.

Horregatik, Trautikoak lanean hasi dira. Mikel Etxezarreta kideak honela dio: "Konturatu ginen bakoitzak Udalari bere kexa bidali baino hobe zela denok elkarrekin ekitea. Horrela sortu zen elkarteak. Gaur egun, dozena bat lagun gaude Trautin, eta denetariko jendea gara".

Pausoz pauso, egun baten edo ordu gutxi batzuetan mugikortasun arazoak dituztenen eskutik joanda, edozein konturatu da gure herrietan oraindik zenbat muga eta oztopo dauden; arazorik

DATUA

1,5

METRO

Kalean zer edo zer ipiniz gero (mahaiak, salgaiak...) beti paretatik 1,5 metrora, gutxienez, ipini behar dira.

gabe gora eta behera ibiltzen direnondako muga ikusezinak. Baina bizimodua asko baldintzatzen dutenak: hala, badago etxetik irten ezin den jendea, zergatik, eta atarian maila duelako.

Anbulatoriora joateko arazoak
Dagoeneko lortu dituzte gauza batzuk: "Lau bat hilabete daroagu hilerio batzartzen Udala eta geu. Aurretik ipini ginen eurekin harremanetan, ze arazo ikusten genituen esateko, eta, horiek konpontzea modu jarraian egin behar zenez, hilerio batzartzea erabaki genuen".

Herrian ikusten dituzten 22 leku txar edo oztoporen zerrenda egin eta Udalarekin konpartitu dute, eta batzuk kentzea lortu

dute: adibidez, San Miguel parrokiako plazako sarreran, barandari itsuen makilarendako erreferentzia ipini dute. Barandaren azpialdean burdinazko zinta bat da; makilarekin hori topatuta, itsua edo gutxi ikusten duena badaki nondik nora doan. Lehen, makila arrapatatik irten egiten zen.

Beste emaitza garrantzitsu bat da osasun zentroko irisgarritasun proiektua aztertu dutela eta euren iritzia eman ahal izan dutela. Oñatiko osasun zentroarekin "arazo asko" dituztela esaten digute Trautiko Mikel Etxezarretak eta Rafael Kortabarriak: arrapala bat eginda dago, baina pareko harlosan lagunik gabe; anbulatorioko aparkalekuan, zabaltzan (azotean), badaude gutxituendako bi aparkaleku on, baina hor bukatzen da irisgarritasuna, izan ere, gurpildun jesarlekuan dabilena ezin da handik beherako aldapan bakarrik joan, eta azotean ez dago anbulatoriora sartzeko aterik; dagoen bakarra larrialdietako irteera da, eta Trautikoak kexu dira Osakidetza ez duela aintzat hartu hura erabiltzeko eskaera.

Hori gutxi balitz eta norberak azoteako aparkalekutik anbulato-



OÑATIKO OZTOPO BATZUK

- ▶ **Euskadi Etorbidean** bi seinale ez dira behar adina altu.
- ▶ **Foruen plazan**, kondearen etxetik beherako kanaleta arrikutsu dago.
- ▶ **Unibertsitate Etorbidean**, lurraren kolore bereko mutiloi edo bolardoak arrikutsuak dira gutxi ikusten dutenondako. Gainera, iturrira ezin da ailegatu gurpildun jesarlekutik.
- ▶ **Zebrabide asko** ez dira ikusten, bihurtu aurrean daudelako.
- ▶ **San Juan Kaleko zubian** eta errekako pasealekuan ur-putzu handiak sortzen dira.
- ▶ **Harlosa batzuk** ez dira egokiak: Arantzazuko Ama, Zubikoa ingurukoa, Kurtzebide, Bidebarrieta.
- ▶ **Etxe batzuen atarian** maila dago.
- ▶ **Arantzazun**, autobusaren plataformatik jesarlekuarekin irteteko ez dago nahikoa leku. Hospederia aldera joateko lurra oso irregularra da.
- ▶ **Unibertsitateko klaustorra** ezin da jesarlekuarekin sartu.
- ▶ **Hilerriko pasabide asko** hartxintzarrezkoak dira. Bestetik, alde berrira bakarrik eskaileretatik joan daiteke.
- ▶ **Hilerriko pasabide asko** hartxintzarrezkoak dira. Gune berrira bakarrik eskaileretatik joan daiteke.

**ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA**

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2012
ekainak 16

uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Engulegi eta Garapen
Ekonomikoaren Salla

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
herbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Mikel Etxezarreta, gurpildun jesarlekuan, eta Rafael Kortabarria, itsua, Trauti elkarteko bi kide.



FORUEN PLAZA Argazkian ikusten den kanaltxoak oztopo handia da gutxi ikusten dutenendako, izan ere, plazaren kolore berekoa da, eta jende askok ez du bereizten. Horregatik, estropezu egiteko arrisku handia dute.



MAHAIK, JESARLEKUAK... Kalean ipintzen diren altzariak edo produktuak paretatik metro eta erdira ipini behar dira; horrela, itsuek paretaren erreferentzia oso samur jarrai dezakete.

ARRAPALAK

Harlosak arrapala izateak ez du esan gura derrigor ondo eginda dagoenik: nahikoa zabal izan behar da eroso izateko, eta pixkanaka egin behar du behera. "Bat-batean jaisten bada, oreka galdu eta jausi egin daiteke", dio Trautik.



BAKE EPAITEGIA Udaltzaingoaren egoitzan maila dago; bestalde, bake epaitegi aurrean ez dago nahikoa leku jesarlekuan daudenak ondo sar daitezten. Hori dena jaiak eta gero konponduko du Oñatiko Udalak.



OSASUN ETXEA Laster egingo dituzte obrak, osasun etxeak sortzen dituen arazoak konpontzeko. Horieta bat hauxe da: anbulatorio aldeko harlosak badu arrapala, baina haren parekoak, ez.

torioko sarrerara ailegatzea lortzen badu, aldapan behera erre-pideraino joan barik, zer eta ezin da anbulatoriora bakarrik sartu: ate bikoitza du, eta kanpoko automatikoa da, baina barrukoa, ez: "Ezin naiz jesarlekuarekin ez sartu, ez irten", esaten du Mikel Etxezarretak.

Lurra, justu-justu ikusi

Erdialdean bakarrik, oztopo-lasterketa antzekoa da gutxituak bere kabuz ibiltzeko egin behar duena. Rafael Kortabarria itsuak parrokia inguruko bolardo edo pibote baxuekin du borroka: "Makilarekin pibotea ez badut jotzen, huts egiten badut, hanka artean trabatuko zait", esaten du. Horregatik, pibote altuak ipintzea eskatu dute.

Foruen plaza leku arriskutsua da, eta ez bereziki, Rafael Kortabarria bezala, ezer ikusten ez dutenendako; arrisku handiagoa dute oso gutxi ikusten dutenek, makila barik ibiltzen direnek. Eta

horieta asko daudela ohartarazten du Kortabarriak: "Zuek uste baino jende gehiagok justu-justu ikusten du lurra. Horregatik joaten dira paretara pegatuta". Horiendako, plaza amesgaiztoa da, "dena kolore berekoa delako". Arazo larriena plaza mugatzen duen kanal txikia da. Kolore aldetik, ezin da plazatik bereizi. Rafael ez du arazorik, makilarekin kanala topatu eta hura jarraitzen duelako. "Baina gutxi ikusten duen pertsonak huts egin dezake hankarekin. Eta desnibel txikia izanagatik, nahikoa da estropezu egiteko. Hemen, emakume batek berna eta mokorra apurtu zituen", esaten du Kortabarriak. Berak hauxe proposatzen du hori "samur" konpontzeko: "Margotu dezatela txuriz kanal osoa".

Jesarlekua, mahai azpira

Altuera txikiko piboteak, gaintitu ezineko mailak edo trabak, zabalera txikiko arrapalak: gutxi ikusten dutenendako erreferentzia

JOSU LIZARRALDE | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

"Anbulatorioko irisgarritasun obrak jaiak eta gero hasiko dira"

Ze harreman duzue Trautirekin?

Hilero, ohiko bilerak egiten ditugu, eta ezohiko bilerak ere bai, zeozer berezia dagoenean. Anbulatorioaren irisgarritasun proiektua eman digu dagoeneko arkitekto enpresak, eta, onartu aurretik, euren aztertu dute eta arkitektoa eurenkin batu da, euren zein ekarpen onartu den eta zein ez esateko eta arazoak emateko.

Irisgarritasun aldetik, zer egin duzue eta ze asmo duzue?

Bukatzen gabiltza Mendiko kaleko zatia, Errekalderi jarraipena eman



Josu Lizarralde. | L.K.

eta Bakardadeko Amarekin lotura egingo duena. Anbulatorioko obrak jaiak eta gero hasiko dira obrak eta, horiek aprobe-txatuta, udaltzaingoaren egoitzaren irisgarritasun arazoak eta Bidebarrieta inguruko beste batzuk konponduko ditugu.

Elkartek arazozen zerrenda bat egin du.

Bai; samurrenak dagoeneko konpondu ditugu, parrokiarako sarre-rako barandaua itsuendako egokitzea, adibidez. Beste batzuk denborarekin joango gara konpontzen.

bako kaleak, harlosak eta errepi-deak maila berean ipinita daudelako; argia islatzen duten eta itsutu egiten duten materialak... horiek eta gehiago dira oztopo arkitektonikoak. Baina bestelako oztopoak jendeak sortutakoak dira; jendea konturatzan ez delako, alegia.

Esaterako, kalean ipintzen diren altzariak (mahaiak, jesarlekuak, tabernetako hautsontziak, komertzioetako generoa...) beti paretatik distantzia jakin batera ipini behar dira, eta ez paretaren kontra. Terrazan jesartzen denak ere oso keinu txiki batekin lagundu dezake: "Kontsumizioa bukatu eta joan doanean, jesarlekua mahai azpian utz dezala norberak", eskatzen dute Trauti elkartekoek. Eta komertzio zein ostalaritza establezimendu guztiek bete ditzatela arauak: hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 dekretuak dioena.



Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta berria irekiko du:

PronoKal metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.



Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

- OBSIDATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
- BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
- BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
- BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

Gaur eta domeka artean irekiko dute uda denboraldia ibarreko igerilekuetan

Uribarri Ganboa, Landa eta Garaioako bainurako guneak ere bihar irekiko dituzte; Usako aisialdi-gunea, berriz, ekainaren 23an zabalduko dute

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, hasiko da uda denboraldia Debagoieneko udal igerilekuetan. Bergarako Agorrosin Ekintza Gunea irekiko dute gaur, eta bihar eta etzi bitartean irekiko dituzte Eskoriatzakoa, Arrasatekoa eta Oñatikoa.

Bergarakoari dagokionez, kanpoko berdegunea eta igerilekua irekiko dituzte, eta horrekin batera udako ordutegia ere estreinatuko dute: 10:00etatik 20:30era egongo da zabalik kanpoko gunea. Era berean, barruko igerilekua ere zabalik egongo da, ohiko ordutegian. Aipatzekoa da denboraldi berriari begira instalazioetan egindako egokitzapenen artean, futbol zelaiaren eta berdegunearen goiko terrazaren artean hesia jarri dutela erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko asmoz. Horrekin batera, berdegunearen sarreran umeek patineteak lagatzeko gunea egokiko dute. Bestalde, aukiak eta hamakak gordetzeko tokia ere egokitu dute, kanpoko igerilekuko komunetan. Hala, egunero atzera eta aurrera ibili gabe, bertan laga ahal izango dira eta gomendatu dute kandaduarekin lotzea arazorik ez izateko. Era berean, Kirol Zerbitzuak argi utzi nahi du lekua laga duela, baina ez duela bere gain hartuko zainketa.

Eskoriatza eta Arrasaten, bihar Arrasaten bihar, zapatua, irekiko dituzte kanpoko igerilekuak, zenbait berrikuntzarekin, gainera: igerilekua inguratzen duen eremua txikitu egin dute. Izan ere, leku asko alferrik galtzen zela ikusi dute, eta, igerilekuaren bueltan dagoen baranda mugituta, eremu



Umeak Bergarako kanpoko igerilekuan uda denboraldiko lehenengo egunean. | MONIKA BELASTEGI

hori ahalik eta gehien txikitu dute, eta eguzkia hartzeko lekua irabazi. Horrekin batera, kanpoko igerilekurako sarrera ere aldatu egin dute eta larrialdi irteera baliatu dute. Kontuan hartu behar da, bestalde, bihar kanpoko igerilekuak zabaltearekin batera, barrukoak itxi egingo dituztela.

Eskoriatzan bihar, hilak 16, irekiko dute denboraldia. Hala, berdeguneaz eta kanpoko igerileku txikiak -6 urtera arteko umeendako- gozatu ahal izango dute erabiltzaileek. Barruko igerilekuak ere zabalik jarraituko du.

Irailaren 16ra bitartean luzatuko da udako denboraldia eta ordutegiari dagokionez, kanpoko igerilekua zabalik egongo da astelehenetik zapatara, 10:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 14:30era. Barrukoak, berriz, ohiko ordutegia izango du.

Oñatin, etzi, domeka

Oñatin domekatik aurrera egongo da aukera berdegunean irten eta eguzkia hartzeko. Uztailaren 31ra arte, zapatua, domeka eta jai egunetan 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; astegunetan, berriz, 07:30etik 21:30era. Abuztuan itxita egongo da astelehenetan, eta gainerako egunetan 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Irailaren 1etik aurrera, ohiko ordutegira itzuliko dira.

Oñatik eskaintzen duen bainurako beste gune bat Usako da. Ekainaren 23an irekiko dute bainu denboraldia irailaren 16ra arte. Denbora tarte horretan sorosle bat egongo da egunero, 15:00etatik 20:00etara.

Uribarri Ganboan ere bihar

Uribarri Ganboako urtegiaren ere bihar, zapatua, irekiko dute bai-

nu denboraldia, irailaren 2ra arte. Azken urteetan bezala, bainurako lau guneetan, Garaioan -bi gune daude-, Landa eta Uribarri Ganboan sorosleak egongo dira 12:00etatik 20:00etara; eta asteburutan, 16:00etatik 20:00etara, sorosle bat gehiago jarriko dute errefortzurako, horiek dira -eta Arabako Foru Aldundiaren esanetan, erabiltzaile gehien batzen diren orduak.

Arabako Aldundiak emandako datuen arabera, iaz 235.000 lagun zenbaitu zituzten bainu-guneetan. Horrekin batera, ibilbide berde perimetrara da zonaldearen beste atraktiboetako bat, oinez zein bizikletan egiteko. Garaioako informazio bulegoan (09:30etik 20:30era egongo da zabalik) bizikletak alokatzeko aukera egongo da ekainaren 18tik irailaren 2ra arte, 2 eurotan; 1 umeek.

Haritz Guridi

Irakaslea Bastidako ikastolan

"Araba Euskaraz-era datozenek egun zoragarria pasatuko dute"

M.B. | ARRASATE

Barneratu barreiatu leloarekin Araba Euskaraz jaia ospatuko da domekan Bastidako ikastolan alde. Haritz Guridi oñatiarra han dago irakasle.

Honezkerok domekako jairako guztia prest, pentsatzen dut.

Ia guztia. Azken lantxoak egin dituzte azken aste honetan eta domekan Bastidara zatoztenok guztia prest aurkituko duzue.

Zer nolako ibilbidea izango da aurtengoa?

Beste gauza batzuen artean ibilbidea da aurtengo berritasuna. Aurreko edizioetan herrian zehar eta Toloñoren magalean ibili gara eta aurtun herriaren hegoalde egitea erabaki dugu, herriaren beste



Haritz Guridi. | GOIENA

ikuspegi bat izateko. Bestalde, garrantzia eman nahi izan diogu erosotasunari: hiru kilometro eta erdi pasatxo izango ditu, beraz, nahiko motza da; nahiko laua; eta aparkalekueetatik nahiko gertu ipintzea erabaki dugu.

Eta guneak?

Lau egongo dira eta horrekin batera ibilbidean barrena giro ona egoteko beste zenbait emandaldi ere bai. Lehenengo gunea ikastolan egongo da eta gunea zein ikastola bera jaiaren ardatza izatea nahi dugu. 10:00etatik aurrera emandaldi dezente egongo dira: hasteko herri kirolak, eguerditik aurrera Entropia eta Bizardunak bezalako taldeak, eta iluntze partean, Oihan Vegarekin disko festa. Hirugarren gunea umei eskainitakoa da eta besteak beste, Irrien Lagunen Klubekoak egongo dira eta *flashmob* bat ere grabatuko da. Bigarren gunea apur bat lasaiagoa izango da, erromeria giroarekin. Eta laugarren gunea, martxo-soenendako izango da, Gatibu eta Nahixan taldeen kontzertuekin, esaterako.

Debagoiendarrak gonbidatuta egongo dira, jakina.

Bai, eskualde honetan euskara eta ikastolen proiektua indartzeko baliabideak derrigorrezkoak dira-eta, baina horrez gain, egun zoragarri bat pasatzeko aukera izango dute paisaiarekin, jaiarekin...

"Nafarroa bizirik" dagoela aldarrikatuko dute Iruñean

Nafarroako Konkistaren 500. urteurrena dela eta martxa nazionala antolatu dute biharko

G.A./M.B. | ARRASATE

Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena dela eta biharko, zapatua, martxa nazionala antolatu dute Iruñean. Horren harira, agerraldia egin zuen eguaztenean Debagoieneko Nafarroa Bizirik taldeak eta Iruñera joateko deialdia egin zuten. Azaldu zuten, egun horretan jaia eta aldarrikapena uztartu gura dituzte, eta horretarako egun osoko egitaraua egongo da. Hala, goizean goizetik hasita hainbat ekintza egongo dira, besteak beste, kale

animazioa Alde Zaharrean, artisauro eta editorialen azoka, herri kirolak, umeen txokoa eta baita herri bazkaria ere, Zezen Plazan.

Hitzordu nagusia, baina arratsaldeko martxa nazionala izango da. 17:30etan abiatuko da Antoniutti parketik *500 urte eta gero... Bizirik!* lelopean. Antolatuak Euskal Herri osoko ordezkariak biltzeko deia egin dute, eta herri bakoitzeko ordezkariak herriaren izena daraman estandarte eramateko aukera



Debagoieneko Nafarroa Bizirik taldeko ordezkariak Arrasaten. | TXOMIN MADINA

egongo da. Martxaren bukaeran, ekitaldia egingo dute. Musikak ere izango du bere tarte eta 19:30etatik aurrera kontzertuak egongo dira zezen plazan Su Ta Gar, Barricada, Vendeta eta Goienetxe Anaieen eskutik.

Iruñerako autobusak

Debagoienetik Iruñera joateko autobusa antolatu du Debagoie-

neko Nafarroa Bizirik taldeak. 10:30ean irtengo da Eskoriatzatik, eta geldialdiak egingo ditu Aretxabaletan (10:45), Arrasaten (11:00) eta Bergaran (11:15). 20:00 inguruan bueltatuko da autobusa. Antolatuak esan dutenez, autobusa betetzeko leku gutxi batzuk geratzen dira, eta izena eman gura dutenek Arrasateko Irati tabernara jo behar dute.

Euskal hedabideen etorkizunaz eztabaidatuko dute gaur Arrasaten

Tokikom jardunaldiak egingo dituzte gaur Garaia Berrikuntza Gunean

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Euskal hiztun komunitatearen komunikazio beharrak aztertuko dituzte gaur, ekainak 15, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean Tokikom jardunaldian. Tokikom eta Topaguneak antolatu dute eta gogoeta teoriko-praktikoa egin nahi dute, Euskal Herriko zein kanpoko adituen eskutik galdera orokor honi erantzuteko: *Zer esparru komunikatibo behar du XXI. mendeko euskal hiztun komunitateak?*

Ehun lagunek eman dute ize-na jardunaldirako eta galdera horri erantzuteko oinarriko gakoak aurkitzen saiatuko dira bertan. Gero, jardunaldietan azaltzen diren kezka puntu nagusiak uztailean zehar landuko dira, tailer monografikoetan.

Aldaketa handiak

Azken hamarkadan aldaketa erraldoiak gertatzen ari dira hedabideen alorrean. Inteneten hedapenak goitik behera aldatu ditu informazioa kontsumitzeko ohiturak, eta horrek eskaintza egokitzeko beharra ekarri du. Bestetik, krisi ekonomikoak ere publizitate inbertsioaren behar-rakada nabarmena ekarri du,

orain arteko diru iturririk nagusia kolokan jarritz.

Testuinguru horretan, euskal hedabideak elkarlaneko dinamika batean murgildu dira berriki, etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta estrategiak elkarrekin garatzeko. Hala, zailtasunak zailtasun, une zirrarragarrri eta itxaropentsuak bizi dituzte egun sektorean.

Aldaketari sendo aurre egiten

Tokiko hedabideak ere sendo ari dira aldaketari aurre egiten: Tokikom sortu zuten 2009an, marka bateratu gisa; 2012an, marka hori edukiz hornitu eta azpisektorearen ordezkari bilakatzen ari den Tokikom enpresa sortzea erabaki dute, tokiko hedabideen esparru komunak eta integrazio bideak kudeatzeko. Horrekin guztiarekin, Tokikomen jardueraren estrategia nagusiak finkatzeko unea heldu dela uste dute, eta hori da, hain zuzen, jardunaldiotan elkarlanean landuko dena.

Jardunaldi teoriko-praktikoa

Goizeko zatia teoriar zentratuko da batik bat: hasteko eta behin, Huheziko Sorguneak ikertegiko Nekane Goikoetxeak hedabideen

funtzio soziolinguistikoen inguruan jardungo du. Hizkuntzaren plano orokorretik, hedabideen mundura hurbilduko dira jarraian, Huheziko Aitor Zuberogitia eta Eneko Bidegain doktoreen eskutik. 800.000 euskal hiztunak hedabideen bidez ikusgarri bihurtzeko erronkaz arituko dira, eta tokiko hedabideen sare trinkoa testuinguru eta informazioa kontsumitzeko ohitura berrietara egokitzeko premia.

Atsedena ondoren, teknologiaren ikuspegitik helduko diote gaiari CodeSyntax-eko Gari Araolazak eta Luistxo Fernandezek. IKTen garapenak erronka handiak suposatzen ditu hedabideentzat, eta CodeSyntaxekoak erronka horiek, eta aukerak ere, identifikatzen saiatuko dira.

Ondoren, atal praktikoa hasiko da, han-hemengo esperientziak erakutsiz. Hasteko, Belgikatik etorriko den Bart Bijnens-ek *Het Belang van Limburg* egunkari lokalaren berri emango du. Bere eskualdean liderra den tokiko egunkariak 100.000 ale saltzen ditu egunero, ia hiru laurden harpidetza bidez. Duela hilabete batzuk, egitasmo hiperlokalari ekin diote, irakurleak ere egunkariaren parte bihurtuz.

Ospitale berriko larrialdi zerbitzua bihar irekiko dute

M.B. | ARRASATE

Bihar, zapatua, hasiko dira lanean ospitale berriko larrialdi zerbitzuak, eta ospitale osoa, berriki, astelehenean, hilaren 18an. Hala, bihar 08:00etatik aurrera hasiko dira larrialdi zerbitzuak eraikin berrian artatzen. Sarrera eraikinaren atzeko aldean dago, olatu forma duen aterpean.

Horrekin batera, zapatuan bertan, goizean barrena, ingreatuta dauden gaixoak ospitale berrira eramango dituzte. Hori horrela, bisitatu nahi dituzten senitarteko eta lagunek sarrera nagusitik sartu beharko dute, Nafarroa etorbideetik, hain justu ere. Ospitale berriko kirurgia eta erditze guneak ere asteburuan



Larrialdietako sarrera. | GOIENA

irekiko dituzte eta astelehenean aurrera bete-betean hasiko da lanean ospitale berria.

Bestetik, ospitaleak aurreratu dutenez, instalazioak ezagutzeko azken hiru asteetan egin dituzten bisita gidatueta 1.500 lagunek hartu dutela parte.

Donostian domekan egingo den Mosaiko Erraldoirako autobusak antolatu ditu Debagoieneko Zero Zaborrek

Domekan, ekainaren 17an, Mosaiko Erraldoia egingo dute Donostiako Saguesen, eta Debagoiena Zero Zabor taldeak bertan parte hartzeko deialdia egin du asteen, Arrasaten egindako agerraldian. Mosaiko horren helburua erraustegiari ezetz esatea izango da eta mosaikoaren bitartez haize errota irudikatuko dute, etorkizuneko aire garbiaren alde. Donostiara joateko autobusak antolatu dituzte, eta Arrasatetik abiatuko dira. Txartelak Iluntz, Jaizale eta Irati tabernetan eskura daitezke.

Nahi baduzu, Gasteizen bizi zaitezke Sartu eta aukeratu!



ZABALGANA Cambridge bizitegia

Eraikuntza berriko etxebizitza libreak, bi eta hiru logelarekin eta terraza handiekin. Garajea eta trastelekua barne. **168.000** eurotik aurrera (27.952.848 pza.).

Informazio gehiago >



ZABALGANA Veleia behatokia

Bat, bi eta hiru logela, garajea, trastelekua eta terraza dituzten etxebizitza libreak. Sukaldea altzariekin eta horma-armairuak **135.000** eurotik aurrera (22.462.110 pza.).

Informazio gehiago >



Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE)

Ez da beharrezkoa Gasteizen erroldatua egotea. Bi eta hiru logelako etxeak, garajea eta trastelekua **84.736** eurotik aurrera (14.098.889 pza.).

Informazio gehiago >



ZABALGANA Toloño bizitegia

Labastida kalean etxebizitza libreak. Bi logelakoak **169.000** eurotik aurrera (28.119.234 pta). Eta hiru logelakoak **192.000** eurotik aurrera (31.946.112 pta). 2. eta 3. atarietako lehenengo 15 erosleek bigarren garaje-plaza izango dute prezioaren barruan, kargurik gabe.

Informazio gehiago >



ZABALIK

ANDONI URZELAI
http://goiena.net/iritzia/



Estralurtarra

Halaxe sentitzen naiz azken boladan: martzianoa banintz bezala, ez dut tutik ulertzen eta errealtatea arrotza zait. Agintari ezjakin eta maltzurak burutik behera pixa egiten ari zaizkigu ditxosozko krisi-iruzur hau hasi zene-tik eta euria ari duela diote lotsa izpirik gabe.

Gu, berriz, haien botika pozoitsuak txintik esan gabe irentsi, eta bagoaz Manchester, Bucarest, Madrid edo Poloniara. Tropelean, euforia itsuak bultzatutako ardiñ gisan. Hemen Athletic eta Espāñan "la roja", baina finean, disparate berbera. Ez dut ulertzen nola mobilizatu daitezkeen milaka eta milaka borondate-ilusio-gogo-indar-diru futbolaren inguru eta nola ez garen hortzak erakusteko kapaz asfiziantez gaituztenei. Ez dut ulertu nahi. Inoizko dirutza publikorik handienak bideratu dira azken lau urteotan sare finantzario pribatua salbatzera. Haiek salbatzeko gu guztiok izorratu behar izan dugu. Baina, guk, Amen. Ez hori bakarrik, orain botereetsuen hizkuntza ulertezin berbera darabilgu ahotan: arrisku prima eta halakoak... Nola ez, egoera latz hau gure errua dela sinetsarazi digute eta! Gure ahalmenen gainetik bizi omen ginen... ja!

Merke ateratzen da hemen bankari zeken eta txarra izatea: irabaziak norbere poltsikora eta galerak guztionera. Haiek hondoratzen badira gizarte osoa hondoratuko da, diote agintariak iruzurra justifikatzeko.

Bistan da, kapitalista konbentzituenei ere sozialismoa besarkatzen dute komeni zaienean. Tira ba, behin besarkatzen hasita eman diezaigun musu handi bat ezpainetan: nazionalizatu ditza-gun banketxeak eta eraiki dezagun banku publiko indartsu bat. Ez, ordea.

Haiek egindako zuloa estaltzen emango dugu bizia lehenengo, eta gero lehenengo jabe berberei itzuliko dizkiegu banketxe jada saneatuak. Eta disimulurik gabe burutuko dute iruzurra, gainera, Llorenteren izterrei begira egongo baikara guztiok...

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Nafarroaren konkista: 500 urte

Espainiako Estatua herri borondatea menderatzeko geroz eta formula sofistikatuagoak ari da aurkitzen.

Gaur baldarregia litzateke bulda bat lortu eta armada Euskal Herrian sarraraztea. Alderdiak legez kanpo uztea ez da jada argumentu erakargarria. Indar politiko bati botatzeko aukera ukatzea baino demokratikoagoa omen hemen bizi izan direnei Euskal Herrian botoa emateko aukera eskaintzea.

Martxa honetan oporrak gurean pasatzeak bertan botoa emateko eskubidea emango die espainiarrei. Nahikoa izango al da? Bidaia autobusean, jateko oilasko erre eta dietak, hauteskunde egunetan pizgarri interesgarriak gerta daitezke. Lehenago egin bada...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Erreskatearen erreskatea

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Jakin arren hainbat egintza ohiko jardunbide direla, gero gauzatzen direnean harridura eta amorrua ez dira, haatik, txikiagoak. Ea: zein izan daiteke iritzi publikoaren aurrean Espainiak erreskatea eskatu duela iragartzeko unerik aproposena? Izan daiteke larunbat gaua, ados. Eta zein izan daiteke iragarpen horrek kalte gutxien eragin dezakeen larunbat gaua? Bada, biharamunean Espainiako selekzioak Eurokopian debuta egingo dueneko. Eta zer egin daiteke inpaktua gehiago gutxiagotzeko? Gehitu bazkal aurretik Roland Garros-eko final bat, Rafa Nadalen eta beste baten artean —serbiarra gainetik, Balkanak eta balkanizatzea inkontzientean—. Zer, gutxitxo dela? Lasai, behin futbol partida amaituta, 1 Formulako Kanadako lasterketa daukagu afaltzeko, Fernando Alonsorekin.

Noski, hori guztia kasualitatea da. Erreskatea iragartzeko momenturik aproposena zelako aukeratu

zuen Espainiako Gobernuak pasa den larunbat gaua, berri ona ondo baino hobeto irits zedin espainiar guztien belarri-gogoetara. [...]

Albistegietan ikusi zen garbien. ETBkoek behar zuen lehenatasuna eman zioten erreskateari, nahiz eguneko beste berri garrantzitsu batzuk —Frantziako hauteskundeak edota Euskal Herria Bilduren aurkezpena— atzendu horrela. TVEn lehenik sartu zuten erreskatea, noski, eta gero futbola, eta erreskateari, gainera, eskaini zizkioten 20 minutu inguru, akaso zuzendari izango denaren itzala oraindik ez delako nabaritzen. Baina pribatuetakoa jada eskandalua izan zen; batez ere, hiru kirol ekitaldietako baten eskusiba zuten kateetan —Tele5k futbola, Cuatrok tenisa eta Antena3ek 1 Formula—. Erreskatea aipatu eta presaka pasa ziren kiroletara. Kirolak erreskatatu zuten igandean Espainiako Gobernuak, Europari erreskatea eskatu eta biharamunean. Eta kontua ez da serioa: jakinik ere tranpa gozoegia dela kirolena, hedabideek dute erruaren zatirik handiena, informazioa behar den moduan ez emateagatik. Izan ere, ez al ziren boterearen gehiegikeriei aurre egiteko tresna?

Lagun imaginarioarena


Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Eseri hor, diotso umeak bere baitako lagunari, mahaiko aulki huts bat seinatzen diolarik. Bukatu ganbak txintxo-txintxo, bestela ama haserretuko zaizu. Ez zaizkizula gustatzen? Huelvakoak dira! Niri ere ez zitzaizkidan gustatzen, baina begira nire platerari: garbi-garbi utzi dut!

Lagun imaginario batek haragizko batek baino indar gehiago izan dezake ume baten bizitzan, haren eragina aise iristen da gurasoak sekula iritsiko ez liratekeen eremuetara. Horregatik, psikologoek aholkatzen dute oso serio hartzeko umeak alegiazko lagunarekin izaten dituen solasak, ez egiteko harremana eteteko ahaleginik [...]. Testuinguru horretan ulertu beharko genuke Divar magistratuak hainbat txanpon publiko gastatu izana: ganbak jaten erakusten ari zen laguntxo imaginarioari. Psikologoei jaramon egin eta utz dezatela bakean, gaixoa ez dadin depresio sekulako baten zuloan hondoratu.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ekainaren 17an, hirugarren hanka: Haize Errota erraldoia

Mari Karmen Larrañaga, Tomas Agote eta Ibai Larrañaga
(Debagoiena Zero Zabor taldea)
Debagoiena

Hondakinen kudeaketaren gaiak pil-pilean segitzen du Gipuzkoan. Hedabide handiek sekulakoak eta bi botatzen segitzen dute errauste planta eraikitzea galeraz dezakeen edozein planteamenduren aurka. Gezur bat behin eta berriz errepikatuta egia bihurtzen delako saioan. Zorionez, errealtatearen egoskorra da, eta Gipuzkoan jauntxo diren lobbyei handiegia gertatzen ari zaie kontrolatzeko. Espainiako PPren gobernuak berak eredugarritzat dauka Usurbilgo atez atekoa. Europako Parlamentuak onartu berri duen txostenak zabortegi kutsakorren itxiera eta material birziklagarrien errausketa debekatzeko eskatzen du. Europako Batzordearen materialen efizientziarako bide orria ildo beretik doa. Diputazioak aurrekontuaren erdiarekin honetara guzti honetara egokituko den eta errausketa baztertuko duen plangintza aurkeztu du. Berri itxaropentsuak handik eta hemendik.

Arauk eta plangintzak osasuna eta ingurumenaren alde. Arauk eta plangintzak. Bi hanka itxaropenari eutsi ahal izateko. Baina itxaropenari egonkortasuna eta oreka emateko ezinbestekoa dugu hirugarren hanka baten gainean eustea. Herritarron babesak da hirugarren hanka hori. Herritarron babesik gabe, itxaropenak ez du behar besteko sendotasunik eta egonkortasunik izango.

Herritarrok ezin dugu gelditu geratu. Gure esku dago zaborraren, errautsaren, kutsaduraren eta etsipenaren grisetik alde egin eta birziklatzearen, iraunkortasunaren eta itxaropenaren koloreak izango dituen etorkizunari euskarria jartzea. Hirugarren hanka hori finkatzeko antolatzen dugu ekainaren 17ko aldarrikapen-festa Donostiako Saguesen. Denok gara hondakinekin dugun arazoaren parte, eta denok daukagu konponbidean gure lekua. Alderdikeriak eta ika-mikak alde batera utzi, eta herritarrok gure lekua hartu behar dugu aire garbiak biratuko duen errota koloretsua irudikatuko duen mosaiko erraldoian. Eskuratu mosaikoa osatzeko kartulina lehenbailehen. Informazio gehiago www.gipuzkoazz.com web orrian.

Hartu zure lekua!
Etorkizuna guztiona da eta!

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Ongi etorri, ene maitea!

Marisol Andrade
Eskoriatza

Zeinek esan zuen amatasunaren bidea erraza zenik? Animo, Mai! Bide honetan, harriak oztopo egiterakoan, esnea bera darionean desegiten dira harri guztiak. *Ama* hitza. Igartzten duzue zenbat maitasun dagoen hiru hizki hauetan? Pisatuz gero, ziur nago (infinitua+1) kilogramo adieraziko luketela hizkiek eurek, banan-banan. Gauza bera gertatzen da *ama* oinarekin sortutako hainbat hitzekin; besteak beste, amatasunaz. Nire bizitzatik pasarte ederrenetarikoa bat kontatu beharko banu, amatasunarenera joko nuke. Inongo zalantza barik!

Bederatzi hilabete gutxi gorabehera itxaron ostean, zeure laztana, zeure kuttuna, zeure umetxoa... zeure maitea aurrean edukitzerakoan, zelan esango diozu esan behar diozuen guztia? Gorgoritoak egin baino lehen, aurpegi moñoñoak jarri baino lehen, "umetxo goapoena zein den?" itaundu baino lehen.

Zeinen antza duen igarri baino lehen... Zein izango ote da komunikabide onena esateko maite duzula ilargira ailegatu arte eta buelta? Esateko hor egongo zarela une onenetan eta txarrenetan. Esateko ezetza ez dela txarra. Esateko bizitzako bideak ezagutzear dauzkala. Esateko konponbide asko daukala, elkarrekin egonez gero. Komunikabide paregabea amatasunarena dela behin erabakiz gero, besarkatzen duzu zeure gorputzaren kontra; zeure laztana, zeure kuttuna, zeure umetxoa... zeure maitea. Orduan, bularretik ateratako esne gozo-goza adierazten diozu den-dena. Hori guztia eta, gainera, hau ere bai: "Ongi etorri, ene maitea". Unai, Lorena, amatxoren partetik.

Debagoieneko Ospitalea

Junkal Bakaikoa
(Tomas Bakaikoa Sotilen familia)
Antzuola

Denbora asko generaman hau egiteko asmoz, baina joan den astean Mari Carmen Bakaikoaren gutuna irakurri ondoren, animatu egin gara.

Joan zen astean irakurri genuen Mari Carmenen eskertza Arrasateko Ospitaleari, eta gurean ere beharrezkoa izan dugu bertako zerbitzua erabiltzea; Mari Carmenekin eta Pacorekin ere topo egin genuen horietako batean. Goraintziak, familia guztiari.

Ospitalean oso ongi tratatu gintuzten, baita gauzak okertu zirenean etxeko zerbitzuarekin ere... Zerbitzu hori oso eroso eta benetan beharrezkoa ikusten dudala esan beharra daukat. Gure kasuan, aita hil arte eduki genuen etxean, lasai joan zen, denok inguruan geundela, egunero bere mediku eta erizainek etxean zainduta. Orain 5 hilabete hil zen aita, baina benetan gustura joan zen, bere ohean eta familiaren ondoan. Ospitaleko auxiliar, mediku, erizain eta langile guztioi, mila-mila esker, benetan!

Udalatxek ez du Kanpazarreko harrobia maite, ezta guk ere

Arkaitz Biain
(Arrasateko Ezker Abertzalea)
Arrasate

Ez da berria Udalatxeko Kanpazar harrobiaren afera, baina beharbada proiektua bezala, hau lur azpian ezkutuan geratzea nahiago duenik badago, (kareharriaren) hautsak ez harrotzeko edo...

Baina gaia ezin dugu begi bistatik kendu, eta hiruzpalau hilabete atzerago Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapenean, 400 herritar inguruk Udalatxeko harrobiaren barne ustiapenaren aurka egindako ekarpenak berriro gurera ekartzea ez dago soberan. Batez ere, gaur egun inoiz baino beharrezkoago, ekarpen haietan argudiatzen zena gogoraraztea ezinbestekoa jotzen baitugu.

Alde batetik, Cantera de Campazar SA enpresak aurkeztutako ustiapen azterketak muga guztiak azpijoko bitartez gainditu ditu, nola ez, interes pribatuetarako herriaren ondasun naturalak kaltetuz. Bestetik, harri horren eskariaren ehuneko handiena beste behin ere, gure lurra, eta honekin gure etorkizuna,

hipotekatzen duten makro proiektuen mesedetara bideratzen da. Besteak beste, Aramaiok eta bere herritarrek jasan duten eta jasaten ari diren sarraskia elikatzeke.

Eta elikatzeaz ari garela, ezin albo batera utzi ustiapen honek krisira bultzatu gaituzten enpresa handien interesak elikatzen dituela, herriarentzako etxebizitzak egiteko makillajepean aurkezten diguten arren.

Kontua ez da teknika aurreratuenak erabiliz paisaia, gainazala, kaltetzen ez duela. Krisi ekonomiko- ekologikoa, eta oro har, bizi dugun zibilizazio krisia gupidarik gabe elikatzen duela da gakoa. Interes pribatura mugatuz, eta herriaren mesedetan dabiltzala lau haizetara aldarrikatuz, sinatu ez dugun hipoteka baten jabe egin nahi gaituzte. Martxa honetan gure ondorengoek eta hauen ondorengoek ere ordaindu ezingo duten suizidio herrikoien ziuertagiri krudel bat gehiago sinaraztea da euren helburua. Arrasateko Ezker Abertzaletik ziur gaude soilik interes pribatuak helburu dituen sarraski ekonomiko-ekologiko honen aurrean, ahal izanez gero, Udalatxek ere ahotsa altxatuko lukeela, finean ez duelako Kanpazar harrobia maite.

Ondorengo ideiarekin bukatu nahiko genuke eskutitz hau: ez gaitzala Cantera de Campazar enpresaren eta bere lagun aurrerapenaren eta herriaren aldeko diskurtsoak engainatu, Udalatxeko zuloa arrasatearron eta euskal herritarron zentzurik zabalena eta negatiboena suposatzen duen zuloa baita.

Ander Lizarralderi erantzuna (II)

Aintzane Oiarbide
Bergara

Asteburu honetan, egunkari batean, Alduntzin Ingurumen diputatuari elkarrizketa bat egin diote. Bertan irakur dezakezunez, errauskailua ez omen da txarra eta berak ez omen du sekula esan toxikoa denik, dio. Ezker Abertzaleko erreferente nagusienetako batek esan du hori! Zertan ari gara orduan, Ander? Errauskailuaren aurkako kanpaina guztiak eta argumentazio guztiak erori

zaizkizu bat-batean! Ikusten dut nire idatziari azken erantzuna eman diozunean, euren interesak defendatzen ditugula diozun enpresetatik bat kendu duzula... Altuna y Uria, hain zuzen... sobran omen dago Inaxio Uria ETak erail zuela bere enpresa AHT eraikitzen ari zelako esatea. Ez dut polemiketan sartu nahi, Ander, baina Inaxio Uriaren familia, lagun eta ezagun guztiei errespetu pixka bat zor diozula uste dut. Herri honetan eraildako guztiei bezalaxe. Hemen sobran erailtzaileak daude.

Zure idatzian diozu hamarkadetan inposizio sistematikoki ezarri duela EAJk. Hala uste baduzu eta EAJk zenbait gaietan kontsultarik ez egitea gaizki baderitzozu, zer iruditzen orain Bilduk galdeketa baztertzea? Besteok gaizki egin dugula eta, Bilduk ere gaizki egiteko argudioa hori al da? Non geratu da Ezker Abertzalearen Herri Partaidetzaren bandera?

Bestalde, Ander, apokalipsia, inposizio sistematikoa eta horrelako hitzak erabiltzea oso atsegina duzula dirudi. Nik gauza bat proposatzen dizut: tolerantzia, errespetua, eztabaida, akordioa, zure hiztegiaren sartzeta. Seguru asko, Gipuzkoan bizi dugun tentsio politikoa asko lasaituko litzateke. Jendeak, gobernuan, udaletxeetan, Diputazioan daudenek arduraz jokatu eta euren arazoak konpontzea besterik ez du nahi. Zabor bilketa sistema bat desegokia iruditzen bazaio, bere iritzia kontuan hartzea, eta gehiengoaren iritzia baldin bada, are gehiago. Eta gipuzkoarrok batez ere orain eskatzen duguna, krisiari aurre egitea, langabezian daudentzat lana sortzea, gure herriaren erabakitze eskubidean aurrerapausoak ematea eta benetako bakea lortzeko indarrak gordetzea da.

Bergaran kafea elkarrekin hartzeko gonbidapenari muzin egin diozu, nahiago omen duzu Antzuolan, atez atekoa ezagutzeko. Ondo ezagutzen dut antzuolarren iritzia, batzuk alde besteak kontra, eta baita antzuolar askoren ohiturak ere, Bergarako edukiontzia lepo egoten baitira San Antonio, Martokua eta inguruko auzoetan. Aseginolaza tailerreko (Antzuola eta Bergara tartean dagoena) edukiontzia ere aspaldian kendu zuten egunero lepo eginda zegoela eta. Ez goaz inora jendea horrela behartuz. Birziklapenean aurrera egin nahi badugu eta gipuzkoarrok zabor gutxiago sortu eta behar bezala sailkatzea nahi badugu bide bakarra dago: heziketa eta kontzientziarazioa.

Azkenik, kafea nahi duzun tokian hartzeko prest nagoela esan nahi dizut. Bergaran oso kafe ona leku askotan dago, baina Antzuolakoa ere ez da txarra izango.

Maribi Ugarteburu | Ezker abertzaleko bozeramailea

"Burujabetzaren aldeko lau indar batzeak daukan potentzialtasuna islatzen du EH Bilduk"

- ▶ "Epe luzeko bokazioarekin" sortzen den marka dela dio ezker abertzaleko bozeramaileak
- ▶ Gasteizko Legebiltzarraz dio nazio perspektibaz lan egiteko "tresna eraginkorra" dela

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Ezker abertzaleko aurpegi eza-gunenetakoa, azkenaldian. Kazetaria, emakumea, bizkaitarra (Amoroto, 1969). Sorturen, EPPK-ren, Euskal Herria Bilduren, hauteskundearen eta beste hainbat konturen inguruan dihardu.

Euskal Herria Bildu izango da ezker abertzalearen, EAren, Alternatibaren eta Aralarren marka hauteskundera begira...

Bilduren garapen bat da. Haren zentzuari heldu eta ezkerreko eta burujabetzaren aldeko lau indar batzeak daukan potentzialtasuna islatzen du. Epe luzeko bokazioarekin sortzen den marka.

Zergatik Euskal Herria Bildu eta ez Amaiur?

Egokiagoa ikusi dugu. Izan ere, zelanbait esatearren, Amaiur izango litzateke gure marka *atzerrian*.

Burujabetza ekonomikoa eta politikoa aldarrikatu nahi duzue Eusko Legebiltzarrean...

Biak ere lotuta daude, gainera. Euskal Herrian erronka nagusi bi dauzkagu: batetik, konponbide demokratikoa lortzea, baina gatazka sortu duen arazo nagusia gure nazio izaera aitortzea dela kontuan izanda. Arazoa konpontzeko gakoa da gure etorkizuna erabakitzeko ahalmena izatea. Bestalde, gure egoera ekonomikoa eta soziala iraultzeko modua ere hori da. Burujabetza ezinbesteko tresna da eraldaketa sozial eta ekonomikorako.

Diote lehen indarra izateko eta lehendakaritzara heltzeko bokazioarekin jaio dela koalizio berria.

Dudarik barik, baina hori ez da helburua. Gasteizko Legebiltzarra beste tresna bat da, udalak edo foru aldundiak diren moduan, kale mailako eta herri mugimenduko lanak bezala, burujabetza eta eraldaketa sozial eta ekonomikoa lortzeko, konponbide demokratikoa lortzeko. Nahiz eta hiru herrialdetara mugatu, nazio osoko perspektibaz lan egiteko tresna eraginkorra dela uste dugu. Beraz, gobernatzea heldu nahi dugu, gure herriaren askapen prozesuari begira.

Lehendakarigaiaren inguruan, emakumezkoa eta bizkaitarra izango dela zabaldu da, eta baita izen bat ere: Yolanda Jubeto, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea...

Hedabideok horretarako zaletasun handia duzue, jakingura hori. Baina guk ez dugu hori elikatu. Yolanda berak ere badaki hura ez dela izango lehendakarigai... Hori bai, esan dezaket gainerako



Maribi Ugarteburu, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

alderdietako lehendakarigaiaren antzik ez duela izango gureak. Batez ere politika planteatzeko edo ulertzeko moduetan. Politikari bere benetako zentzua eman nahi diogu, eta, guretako, da herritarren bizimodua antolatze-ko tresna.

Hauteskundeak aurten izango direla ematen du. Zuek ere kalkulu hori darabilzue?

Guk eskatzen dugu lehenbailehen egitea hauteskundeak, batez ere Legebiltzarrek errealitate soziologikoa islatu behar duelako eta gaur egungoa bazterkeria ideologikoan oinarrituta dagoelako. Legealdia zenbat eta lehenago amaitu, hobe.

Hauteskundeetarako Sorturen gaineko helegitearen gainean erabakia hartuta izango da?

Ekainaren 19tik 21era bitarteko saioan Auzitegi Konstituzionalak

ez badu ebazten, hantxe, mahaiaren gainean geratuko da, ze aldaketa baitator, eta okerrera, gainera, Auzitegi Konstituzionalen. Oso larria da Sorturekin geratzen ari dena. Azkeneko ebazpenak zein baino zein larriagoak izan dira: Bateragune, *Parot dotrina*-ren luzapena... Sorturena dator hurrengo, baina gerta liteke Sortu ez legeztatzea. Espainiako Estatuaren defizit handiena ez da ekonomikoa, demokratikoa baizik. Portaera totalitarioekin jokatzeko dihardu, bereziki, Euskal Herriko indar independentistekiko. Zergatik? Inpotentziarengatik, deseroso daude politikaren mailan, deseroso ezker abertzalearen apustu estrategikoarekin.

Zenbateraino eta ze neurritan baldintzatzen du ezker abertzalearen lan jarduna Sortu legezkoa edo ez legezkoa izateak?

Egunerokoa, antolaketa mailan, modu deseroso eta desegokian lan egitea behartuta gaude. Antolatze, eratzeko, dirua hona eta hara erabiltzeko, komunikaziorako... Jazarrita gaude. Egunero gaude indar polizialen begiradapean, kontrolpean... Salbuespen egoera horiek altxatzeko unea da.

Hauteskunde errolda aldatzeko PPK esku artean daukan asmoaren inguruan ze iritzi duzu?

Horren larria izango ez balitz, barre egiteko modukoa izango litzateke. Surrealista da. Hautesle errolda muga barik zabaldu

nahi dute. Oraingo hauteskundeetara ez dira helduko, seguruen, baina baldintzatu nahi dute etorkizuneko euskaldunon erabakitzeko ahalmena. Eragotzi nahi dute bihar edo etzi euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzeko unea heltzen denean, normal erabaki ahal izatea. XXI. mendean tankeak kalera ateratzea txarto ikusita dagoenez, beste trikimailu hauek asmatu nahi dituzte.

Zelan definituko zenuke Lopezen agintaldia?

7.000 kilometrorra tren batean galduta.

Zergatik ez duzue parte hartu nahi Legebiltzarreko Bakearen eta Elkarbizitzaren Gaineko Ponentzian?

Legebiltzar hori bere osaketan da baztertzalea. Hortaz, halako ponentzia bat hasieratik jaiotzen da herren. Eta zergatik orain,

"Lopezen gobernuak: 7.000 kilometrorra, tren batean galduta..."

"Sekulako zuloak eta porruak topatu ditugu hainbat erakundetan"

legealdia amaitzera doanean? Jakina, beti da ona bake bidean lanean jardutea, baina uste dut ponentzia horrek, orain, ez duela askorako balio.

Ze iritzi daukazu Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren azken adierazpenaren gainean?

Oso positiboa. Presoek modu kolektiboan hartutako erabakia da. Urriaren 20ko ETAREN erabakia batera hartu zen moduan, orain ere bai. Edukiaren aldetik ere, positiboa da, ze biktima guztien mina aitortzen baitu, besteak beste. Urrats handi bat da eta ez da amaierakoa. Euren eskubideak gorde ahala, beste urrats batzuk emateko prest agertu dira.

Gainerako alderdi politikoei balorazio ezkorra egin dute...

Arduragabekeria handiaz jokatu dute, ze duela hilabete batzuk eskatzen zutena egin dute presoek orain. Nahikoa ez dela diote orain. Norberak urratsik eman barik besteei urratsak ematea eskatzen diotenen diskurtsoa da.

Langraitzeko bidea aukeratu duten presoek kritikatu egin dute ezker abertzalea eta diote agiria presoek kolektiboak barik ezker abertzalekoek idatzia dela...

Hedabideek Langraitzeko presoiei ahotsa ematen dieten moduan, Euskal Preso Politikoen Kolektiboari ere ematea nahiko nuke. Haien iritzia ere jasotzeko.

Martin Garitano Gipuzkoako ahal-dun nagusiak esan berri du preso guztiak bihar bertan kalean egon beharko liratekeela. Bat zator?

Esateko modua bat da. Dena dela, espetze legedi arrunta aplikatuko balitz, bihurtzeko egin barik, hau da, preso gaixoak, prebentiboak eta euren zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak kale-ratuz gero, preso guztien herena edo gehiago kalean egongo lirateke. Presoek eta gobernuak zere-san handia dute.

Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundian erakutsi duen kudeaketa lanaren gaineko ze iritzi duzu?

Sekulako zuloak eta porruak topatu ditugu hainbat erakundetan eta horiei buelta ematea tokatu zaigu, gardentasunez eta herritarren parte hartzearekin. Ogasun mailan hasitako norabide aldaketa nabarmenduko nuke zerga politiketan aldaketak eginez. Hondakinen kudeaketa, brziklapenaren aldeko apustua ere aipatzekoa da. Gipuzkoa, Europan, puntaren puntan jar daiteke kontu honetan.





Miguel de los Toyos –Eibarko alkatea– eta Ignacio Gallo –Poliklinika Gipuzkoako presidentea–, kontsulta-zentroa inauguratzen.

Poliklinika Gipuzkoak kontsulta ireki du Eibarren

Etengabeko arreta zerbitzua eskainiko du; mutua eta aseguru-etxe nagusienekin sinatu du ituna

Ekainaren 8an Eibarko alkateak, Miguel de los Toyosek, Udaleko ordezkariekin eta Gipuzkoako enpresa arloko eta eragile sozialekin batera, Poliklinika Gipuzkoak Eibarren daukan kontsulta-zentro berria inauguratu zuen.

Irekiera-ekitaldi ofiziala amaitu eta herritar ospetsuek zein anonimoez zentro berriari buruz eskainitako lekukotasunen bideoa eman ondoren, alkateak instalazioak bisitatu zituen Poliklinika Gipuzkoako zuzendariarekin. "Oso instalazio modernoak dira, eta balio handikoak Eibarko biztanleentzat; izan ere, Poliklinika Gipuzkoako zerbitzuen ospea eta eskaintza ekartzen dira Eibarre- ra eta inguruko eskualdera zerbitzua zabalduz".

Zentro berria ekainaren 1ean hasi zen bete-betean lanean. Hona- ko zerbitzuak eskaintzen ditu: bederatzi kontsulta, sendatze-gela, erradiologia zerbitzua, analisi klinikoak, anatomia patologikoa, mamografiak, ekografia ginekologikoak eta bularraldeko ekografiak. Era berean, 11 espe- zialitate ere badira bertan: Kar-

diologia, Kirurgia Orokorra, Oso Inbasiboa ez den Loditasun Kirurgia, Kirurgia Maxilofaziala, Dermatologia, Ginekologia, Barne Medikuntza, Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Pediatria eta Traumatologia. Zerbitzu horiek guztiak Poliklinika Gipuzkoarekin lan egin ohi duten aseguru- etxe eta mutua nagusiekin daude hitzartuta. Ia-ia milioi bat euro inbertitu dira Eibarko erdialdean –Ibarkurutze 2– dagoen ekipamendu berri hori eraikitze- ko eta hornitzeko.

"Zentro hau eraikitzean, aha- lik eta erosotasun handiena eta azken osasun-teknologiak jarri nahi izan ditugu Debagoieneko eta Debabarreneko herritarren esku; biztanle horien premiei erantzutea da gure asmoa", nabar- mendu du Ignacio Gallok, Poli- klinika Gipuzkoako presidentek. "Horrez gain, gaixoez kontsulta eta proba diagnostikoak zentro berean egin ahal izango dituz- tenez, ez dute hara eta hona ibili behar", gaineratu du.

Ignacio Gallok zentro berri- arekin oso gustura dagoela dio, eta, haren esanetan, Polikli- nika-kontsulta oso garrantzitsua da

"ekipamendu berrien sorreran inbertitu ahal izatea, herrita- rrentzako zerbitzua eta atentzioa hobetzeko".

"Proiektu hau etorkizuneko apustua da. Herritarrei eta bere- ziki gure pazienteen bizi kalita- tea hobetzeko asmoz abiatutako proiektua da. Gure zerbitzua gerturatu nahi izan diegu". Eibar da aukeratu dugun lehen herria. Medikua eta pazienteen interakzioa martxan jartzea ere bada gure helburua".

Hori dela eta, zentro berriko arreta zerbitzua etengabea izan- go da goizeko zortzietatik aurre- ra, hain zuzen ere.

OSASUN GELAK

Poliklinika Gipuzkoak osasuna eta osasun-arloko informazioa jarri nahi du herritarren eskura. Hori dela eta, Eibarko Udalare- kin hitzartutakoaren arabera, Osasun Gelen zikloa eskainiko du. Urteko ekimena da, eta aur- ten hiru hitzaldi eskainiko dira. Hitzaldi guztiak doakoak izango dira, eserleku guztiak bete arte, eta Eibarko Portalea Udal Kul- tura etxean egingo dira, 19:30ean hasita.

Lehenengoa ekainaren 11n egin zen, eta Ignacio Gallo bihotz- hodiak ziru- jauak eta Eduar- do Alegria kardiologoak bihotz- hodiak prebentzioari buruz hitz egin zuten.

Hurrengoa urriaren 9an izan- go da, eta Jon Madina eta Javier Azparren urologoek urologiako aurrerakuntzak izango dituzte hizpide.

Azkena, berriz, azaroaren 13an egingo da, eta Javier Mur- goitio, Jose Luis Elosegui eta Jose Maria Enriquez-Navascues zirujau orokorrek oso inbasiboa ez den loditasun-kirurgiari buruz hitz egingo dute.

ZER DIOTE HERRITARREK?

"Donostiaraino joatea oso urrun egiten zaigu. Eibar Gipuzkoa da, baina Donostiatik urrun dago; denboraz gain, errepideko arriskua ere gehitu behar zaio. Asko pozten gara herrian horre- lako zerbitzu bat jartzeaz, aban- taila guretzako, zalantza barik", zioen herritar talde batek, irri- barretsu.

"Ni ezta- rritik operatu ninduten Donostiako Poliklinikan. Primerako arreta eskaintzen dute;

beharrezkoa zen, gainera, Eibar moduko herri handi batean horre- lako zerbitzu bat jartzea", zioen eibartar gizonezkoak.

"Oso interesgarria eta abera- tsa da herriarendako, batez ere osasuna sustatzen laguntzen badu", azaldu du Ernesto Esple- ta *Bihurri* aizkolariak.

Patxi Usobiaga munduko eska- latzaile txapelundunak ere gustura hartu du albisteak: "Eibartarren- dako eta ingurukoendako ona da Donostiaraino joan beharrean bertan izatea Poliklinika".

"Proiektu hau gure mahai gainera iritsi zenean, ez genuen zalantzarik izan. Eibarrerako eta inguruetarako ona da zerbitzu hau gerturatzea. Jarduera eko- nomiko horrek lanpostuak eta hazkundera ekarriko dizkigu, eta benetan positiboa da, bizi dugun sasoiaren bereziki", azpimarratu gura izan du Miguel de los Toyo- sek, Eibarko alkateak.

Bada, herritarrek positiboki hartu dute berria. Eta guztiak ere ondo ikusten dute horrelako zerbitzu garrantzitsu bat etxetik gertu izatea. Eibar moduko herri handi batean "beharrezkoa" dela diote, gainera.



POLICLINICA GIPUZKOA

POLIKLINIKA GIPUZKOA
EIBARRERA IRITSI DA

www.policlinicagipuzkoa.com

ARRETA ORDUTEGI JARRAITUA

943 25 61 00

08:00-19:30
Ibarkurutze, 2 Elbar

DUELA 10 URTE

2002-06-14

Gaztetxea konpontzeko lanak prest

Bergarako gaztetxea konpontzeko lanak irailean hasiko direla iragarri zuten. Urte bi bete zituela-eta, hainbat ekitaldi antolatu zituzten egun hauetako Gaztetxeako Asanbladakoek. Besteak beste, EH Sukararren kontzertua eta ibarreko gaztetxeen egoeraren gaineko mahai-ongurua antolatu ziren. Bestalde, gaztetxea konpontzeko lanak ekainean esleitu eta irailean bertan hasiko zituztela iragarri zuten.



Bergarako gaztetxea. | GOIENA

2002-06-14

Manifestaziorako deialdia

Batasuneko alkate eta sinegotziek manifestaziorako deia egin zuten zapatu honetarako. Alderdi Politikoen Legearen aurkako manifestazioa antolatu zen Bilbon, eta debagoiendarrei bertara joateko deia egin zieten. Euskal Herriko alderdi, sindikatu eta gizarte talde askoren bilgune batek egin zuen manifestaziorako deia, eta adierazi zutenenez, "manifestazio oso garrantzitsua eta historikoa da".

DUELA 5 URTE

2007-06-08

Arrikruzteko koba zabalik

Egun honetan inaugurazio ekitaldia egitekoak ziren eta hurrengo egunetik aurrera bisitari guztiendako zabalduko zituzten Arrikruzteko kobazuloak. Hala ere, momentu honetan eginak ziren hainbat bisita gidatu.

Arautz auzoko hainbat bizilagunek euren kexa helarazi zuten kobazuloen zabalera zela-eta.

LEINTZ GATZAGA

Loren Larrañaga Gatzagako Soranetxea hoteleko jabea eta sukaldaria da. Deban jaio zen, baina 18 urte daramatza Gatzagan bizi izaten. Gaur egun, erabat integratuta dago. | JAIONE CARPINTERO

"Hotelaren lehen urteak bikainak izan ziren; baina orain, gauzak okerrago doaz"

Loren Larraña debarra da jaiotzez, baina Leintz Gatzagan bizi da azken 18 urteetan. Gaztainuzketan lanean hasi, eta gaur egun Soranetxea hoteleko jabea eta sukaldaria da. Erabat integratuta dago herrian, eta, ez luke Gatzaga beste herri batengatik aldatuko. Haren zaletasun handienetako bat mendiko txirrindularitza da. **Gatzagan bizi zaren arren, Gipuzkoako beste herrixo baten jaiotakoa zara, ezta?**

Bai, ni debarra naiz. Hango base-ri baten jaio nintzen, baina Deban, egia esan, ez nuen denbora luze-rik eman. Leintz Gatzagan 18 urte inguru daramatzat bizi izaten, eta oso pozik nago.

Zer iruditzen zaizu herri honetako kale giroa?

Giro ederra dagoela uste dut. Oso inguru lasaia da; jende gutxikoa, gainera. Oso leku polita da, eta, inguruko paisaia ikusirik, hemen bizitzeko leku ikusgarria dela iruditzen zait.

Duela lau urte eraikin zahar bat berritu, eta hotela sortu zenuen emaztearekin batera. Zer moduz doa negozioa?

Bai, Soran jauregia hotela dugu. Egia esan, oso hasiera ona izan genuen eta lan ugari genuen; nobedadea izango zen, agian.

Denborarekin, tamalez, jende kopurua jaisten joan da. Orain, esperantza dugu udaren etorrerarekin, poliki-poliki bada ere, momentuko egoera kaxkar hau hobetzen joateko.

Gatzagara bizitzatera etorri zinenean Gaztainuzketan ibili zinen lanean.

Bai, hala da. Hura oso esperientzia polita izan zen. 10-12 urte eman genituen han bizi izaten, eta, egia esan, oso garai polita izan zen. Orain dugunarekin oso desberdina zen hangoa; hantxe, astean zehar oso lasai ibiltzen ginen eta asteburuetan, ordea, lan handia zegoen. Astean zehar, beraz, nahiko lasai ibiltzen ginen; izan ere, gu ginen hantxe bizi ginen familia bakarra.

Niri natura ikaragarri gustatzen zait, eta naturarekin genuen harreman zuzen hori aparta zen; oraindik ere mantentzen dut naturarekiko harreman hori, baina ez horrenbeste.

Beraz, Gaztainuzketan primeran ibili zineten. Aldaketa handia sumatu duzue?

Gaztainuzketatik hona etorri ginenean bizimodua guztiz aldatuko zitzaigula uste genuen, baina, antzeko egoeran gaude. Han bakarrik bizi ginen; hemen, ordea, lasai bizi garen arren, zerbitzuak ditugu, nahiz eta asko ez izan.

HERRITARRAK



Loren Larrañaga, bere lanpostuan. | JAIONE CARPINTERO

"Dagoeneko 18 urte daramat Gatzagan bizi izaten, eta oso pozik nago"

"Gaztainuzketan bizi nintzen garaiko oso oroitzapen onak ditut"

Jatetxeke zein etxeko erosketez ni arduratzen naiz beti, eta alde batetik bestera mugitzen ibili behar izaten dut. Egia esan, hau Gaztainuzketan ere gertatzen zitzaidan; beraz, aldaketa handirik ez dugu sumatu bi leku hauen artean.

Soranetxeke jabea izateaz gain, hango sukaldaria ere bazara.

Bai, beti ibili izan naiz sukaldean lanean. Gaztainuzketan hasi nintzen nire kabuz, eta, asko gustatu zitzaidanez, halaxe segitzen dut. Asko betetzen nauen lanbidea da, egia esan.

Une honetan, zoritxarrez, istripu-baja bat dela-eta denbora luzea daramat lan egin barik. Guztiz osatu eta bereahala berriz lanean hasteko desiratzen nago. **Hiru seme-alaba dituzue. Zer moduz moldatzen dira herrian?**

Bai, Ander, Ana eta Alaitz dira gure seme-alabak. Oso gustura bizi dira hemen, nahiz eta lehenengo bizimodua faltan igartzen duten Gaztainuzketako garaia, alegia.

NIRE HERRIAN

LASAITASUN HANDIKO HERRIA

Leintz Gatzaga, herri txikia izanik, lasaitasun handiko lekua da. Asteburuetan jende gehiago eta mugimendu handiagoa dago, baina, hala ere, oso lasai bizi gara. Hori gustatzen zait gehien. Herri moduan ere oso polita dela uste dut; egia esan, naturaren inguruan bizi izatea asko gustatzen zait niri.

GARRAIOBIDE GUTXIEGI

Garraio publiko gutxiegi daudela uste dut. Guretzat hori ez da oztopo handiegia, ni hemen bizi naiz eta hemendik kanpo ez dut bizimodu handirik egiten. Gazteentzat, ordea, arazo handia da, haiek dira gehien mugitzen direnak, eta haientzat garraio bide gehiago eskatuko nuke, egunean bi besterik ez daude-eta.

Aldaketa honek bere alde onak ere izan ditu beraientzat; izan ere, harremanak egiteko aukera gehiago dituzte Gatzagan, baita zerbitzu publiko gehiago ere. Askorik ez badago ere, autobusak dituzte mugitzeko, eta hori abantaila da, Gaztainuzketan ez genuena. Haiek dira herri-rik kanpo gehien ibiltzen direnak eta aurrera eta atzera ibiltzen direnak.

Horretaz guztiaz gain, bizikletan ibiltzea duzu gustuko. Zenbatean behin joaten zara?

Mendiko bizikleta asko gustatzen zait eta egunero saiatzen naiz denbora tartetxo bat ataratzen ateratzen mendi bueltatxo egiteko, oso giro eskasa egoten ez bada, behintzat. Arratsaldeetan joateko ohitura daukat, eta, normalean, bi orduko ibilaldiak egiten ditut, mendi-kasko batera igo, bertan pixka bat egoten naiz paisaiaz gozatzen, eta berriz behera. Ahal dudana guztietan joaten naiz eta primeran sentitzen naiz egunero hori eginda.

HERRIAK



Olazar erretiratuen elkarteko zuzendaritzako kideak eta erabiltzaile talde bat. | AMAIA TXINTXURRETA

ESKORIATZA

25. urteurrena ospatuko du domekan Olazar elkarteak

Juan Carlos Irizarrek eta Amets Arzallusek ereserkia egin dute

OIHANA ELORTZA | ESKORIATZA

Apirilaren 30ean bete zituen Olazar erretiratuen elkarteak 25 urte, eta egun osoko egitaraua antolatu dute domekarako urteurren hori ospatzeko. Mezaren ostean salda egongo da herritar guztiendako, plazan, eta gero bazkaria izango dute kiroldegian; 230 lagunek eman dute izena. San Migel anaiek bertsoan egingo dute eta dantzaldia ere izango da. Bestetik, Mertxe Galdosi lore sorta emanago diote, Olazarko zuzendaritza taldean egon den zaharrenetakoa delako. Eta Arrasateko Jose Rivierrek, Debagoieneko erretiratuen izenean, plaka bat entregatuko die Olazarko zuzendaritzako kideei.

Olazar elkartearen ereserkia

*Eskoriatza herriko inguru abarrak,
denborak utzitako arrasto bakarrak,
Regata de Bolivar edo ur debarrak.
Edo Aitzorrotzeko mendi negarrak.
Ur berria darabil gure ola zaharrak.*

*Denak elkartzen gara ola zaharrera
kontuak berritzeko txoko ederrera
edo bidaiatzeko inguru larrera.
Asperten ez gaituen denbora urre da
hogeita bost urtean olazaurrera.*

Amets Arzallus Antia

1979a ezkerro

Eskoriatzako erretiratuak 1979. urtean hasi ziren batzarrak egiten. "Bost lagun hasi ziren, eta euren etxeetan egiten zituzten bilerak. 1987. urtean, berriz, erretiratuen etxea, egun daukagun etxea, egin zuten, eta, ordutik hona, hantxe egiten ditugu bilerak. Orduan hasi zen Olazar elkarte gorpuzten", azaldu du egungo presidentek, Josetxo Enekotegik. 25 urteren ostean, Olazarrek osasun ona duela dio Enekotegik. "Eraikinean ditugun taberna, dantza-lekua eta jangela asko erabiltzen ditugu. Bestalde, ekintza asko antolatzen ditugu eta parte-hartzea handia izaten da, batez ere egun baka-rreko txangoetan. Bingo askori

gustatzen zaie eta bazkariak antolatzen ditugunean ere arrakasta handia izaten dute. Hitzaldietara, ordea, oso gutxi etortzen dira".

Ereserkia egin dute

25. urteurrena ospatzeko, ereserkia ere egin dute. Txomin Azpitarte, lehengo presidentea, hasi zen hori antolatzen. Horretarako, bi laguni eskatu zien laguntza: Juan Carlos Irizar musikariari, musika jartzeko, eta Amets Arzallus bertsolariari, letra idazteko. Domekan aurkeztuko dute. Abesbatak, baina, entseguak egin ditu, eta oso zortziko polita dela aurreratu dute. Bada, hemendik aurrerako ekitaldi guztietan abesteko asmoa dutela adierazi dute.

DATUA

630

BAZKIDE

630 bazkide inguru ditu gaur egun Olazar elkarteak, eta horietako zortzik osatzen dute zuzendaritza taldea.



IparProject

www.iparproject.com
info@iparproject.com

Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak



BERGARA

Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraleta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44

AZPEITIA

Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

Lehen urteko jardunarekin "pozik" dago Udal Gobernu

Mugikortasun Plana eta hondakinak ondo kudeatzea, erronka nagusiak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urtebete bete da asteon udalbatza eratu zenetik, eta, lehen urtearen balorazioa egiteko, Bilduko eta Aralarko zinegotziek agerraldia egin zuten astelehenean osoko bilkuren aretoan. Udal Gobernu "pozik" dago, eta, balorazioa egiteaz gain, agintaldirako erronken gainean ere egin zuten berba.

Aurrekontuak onartu zirenean iragarri genuen ongizatea lehentasuna izango zela, eta halaxe berretsi zuen Amaia Larrañagak, Ongizate Saileko arduradunak: "Gobernu honen lehentasuna da herritarrei laguntza eskaintzea eta dituzten beharrei erantzutea. Horregatik, ziurtasunez esan genuen Ongizate Sailean ez genuela murrizketarik egingo".

Beste era batera mugitzeko

Herri barruan mugitzeko ohiturak aldatzea beharrezkoa dela uste du Udal Gobernuak, eta, horregatik, mugikortasunarena hainbat ekintza jasotzen dituen plan orokor bat bezala planteatu dute hasieratik. Alde zaharreen oinezko lehentasuna ematea da ekintza bat; martxan



Udal Gobernu kideak, Ander Rodriguez zinegotzia izan ezik, osoko bilkuren areto bakoian. | JOKIN BEREZIARTUA

dago: "Balorazio baikorra egiten dugu. Detektatzen ari gara izan ditzakeen hutsuneak funtzionamendua hobetu eta egonkortzeko. Alde zaharreen oinezko guneak irabazi ditugu, eta, beraz, konpondu ditugu behar berezia zuten egoerak", adierazi zuen Inazio Azkarragaurizar alkateak. Gainera, proba moduan TAO sistema eza-

rriko dute unibertsitate inguruan, eta Laubideko aparkaleku publikoak zabaltzeko negoziatioekin dabilta. Era berean, Udalaren eskumen diren herri barruko bidegorri irtenbidea emateari lehentasuna emango diote, eta segurtasunagatik zebra-bide jakin batzuen ondoko aparkalekuak kentzen dabiltzala gogoratu zuten: "Aparkaleku horiek

bizikleta eta motorrendako egokitu ditugu", esan zuen alkateak. Gobernuaren jarduna ere baloratu zuen Azkarragaurizarrek: "Nahiz eta gehiengo zabala eduki, Bildun eta Aralarren ibilbide eta ideologia ezberdineko pertsonak batuta gabiltza lanean, denontzat etorkizun hobia ekarriko duten proiektuak lantzen eta jorratzen. Konbentzi-

mentu osoz diogu Udal Gobernu hau irekia dela eta elkarlanerako prest dagoela".

Ingurumen aldetik, "ilusioa"

Pil-pilean dagoen atez ateko sistemaren harira Josu Pereda Ingurumen zinegotziak "ilusio garaiak" bizi ditugula uste du: "Aspaldian pendiente genituen bi arazo larrirendako soluziobidea gauzatu da: ibarreko Aramaio eta Deba errekindako araztegia martxan jartzea eta, bestalde, egunero-egunero ibarrean sortzen ditugun 75 tona zabor sortzeari amaiera ematea, gaikako bilketa zerbitzua errealitate bilakatuz eta organikoaren tratamendurako planta eraikiz". Honakoa ere gaineratu zuen agerraldian: "Helburu dugu Gipuzkoa zero zabor gizartea izatera heltzea. Horixe dugu iparburu eta horren gauzatea lortzeko egin beharreko pausoak ematera goaz. Egin beharrekoak egitea da gure eginkizuna eta betebehari hori zuzen beteko dugu, arduragabekerieta eta alderdikerieta erori gabe".

Datozen pausoen berri ere eman zuen Peredak: ekain amaieran "oso ikusgarria" izango den sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina egingo dute, sistema berriaren proiektua "ondo" definituko da Mankomunitatearen laguntzarekin eta ezarri baino apur bat lehenago kanpaina bat egingo da atez atekoaren xehetasunak ematen eta parte-hartze prozesu bat bideratuz herritarrek ere funtzionamendu aldetik hainbat punturen inguruan ekarpenak egin ditzaten. Lasaitasun mezua bidali zien herritarrei: "Aldaketa guztiek bezalaxe, hasieran sor dezaketen ardura hori desagertuko da erabiltzen hasi eta sistemaren sinpletasun eta erraztasuna nabaritzen dugunean".

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA

EAJ: "Planifikaziorik eza, inprobisazioa eta lidergo falta nabarmena ikusi dugu"

EAJk uste du Udal Gobernuaren gehiengo absolutuaren erabilera ez dela egokia izan. Gainera, Arrasatek "egoera zail honetan aurrera egiteko kooperazioaren premia" duela azpimarratu dute: "Halaber, Gobernuak ez du inolako kooperaziorik bultzatu Udalean dauden beste alderdiekin erabaki bateratuak hartzeko". Hainbat arazotarako plan bat eskatu dute: 1.400 langabeak, zirkulazioa hobeto kudeatzea puntu beltzetan, kaleko zikinkeria, Laubideko aparkalekuak -ospitale inguruko akordioa txalotu dute- eta Iturbide egoitza "txiki" geratu izana, besteak beste.

Udalaren egoera orokorraren gaineko analisi eta diagnostikorik ez dela egin ere salatu dute, eta hori guztia kontuan hartuta honakoa diote: "Planifikaziorik eza, gainontzeko talde politikoen parte hartzea beharrean inprobisazioa, eta lidergo falta nabarmena ikusi dugu".

PSE-EE: "Zero bat ematen diogu lehen urteari, ez dute proiekturik gauzatu"

Aritz Arrieta alderdi sozialistako bozeramaileak gogor salatu du Udal Gobernuaren orain arteko jarduna: "Zero bat izan da, ez dute oraindik proiekturik gauzatu". Alkatearen lidergoa falta azpimarratu eta egoera ekonomikoari aurre egiteko zein enplegua sustatzeko ekintza falta ere azpimarratu du Arrietak. Atez atekoari buruz dio Bilduk oposizioari ezer informatu barik aurreratu duela proiektua eta esan du herritarrendako sistema garestiagoa izango dela: "Ez dute zuzenean zaborren zerga igoko, baina ikusi dugu aurtengo aurrekontuan igo egin dela Mankomunitateari egiten zaion ekarpena; Mankomunitatea da atez ateko zerbitzuaz arduratuko dena".

Sozialistek jarrera proaktiboa dutela ere esan du Arrietak, eta iragarri du mozioen bidez euren programako neurri eta proposamenak aurkeztuko dituztela.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Jatorri askotariko jakiak bihar ekaineko baserriarren azokan

J.B. | ARRASATE

Bihar egingo da ekaineko baserriarren azoka Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Sailak sustatzen dituen ohiko postuez gain, Bagara herrigintza elkartearen eskutik jatorri askotariko jakiez osatutako kultura arteko sukaldaritza erakustaldia eta dastatzea izango da.

Honakoa da helburua: "Azoka biziberritzeko prozesuaren barruan, Arrasaten bizi diren jatorri askotariko etorkinen partaidetza sustatzeko, euren ekarpenak plazaratzeko eta bertako produktuen azoka berezia ezagutzera ematea". Zehazki, Pakistan, Venezuela-Kolombia, Brasil eta Saharako janariak dastatu ahal izango dira zapatuko azokan.

Denetariako 15 postu

Postu berriak zein ohiko postuak izango dira. Herriko eta inguruko baserrietako denboraldiko produktuak, produktu ekologikoak -haragia, barazkiak, ahuntz, behi eta ardi gazta, ogia, ardoa...-, Iparraldeko ahatearen eratorriak -foie, magreta...-, marmeladak, arrautzak, kontserbak, gozogintzako produktuak, bidezko merkataritzako produktuak...

Guztira 15 postu. Horien artean, ohikoak ahaztu barik, etorri berriei aipamen berezia egin gura die Udalak: Jakion, Harreman, Goiuri Gozogintza (Izarra), Arimasagastiberri (Idiazabal), Biourkizu (Zestoa) eta Arnabar (Behe-Nafarroa). Ekoizleendako erreferente da azoka, Udalak dioenez. Amaitzeko, baserriko produktu sortaren zozketa egingo dute.



Atez atekoa stop plataformako kideak protesta egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

Atez atekoa onartu dute, tentsio handiko osokoan

Ezustekorik ez: Bilduk eta Aralarrek alde (12) eta EAJk eta PSE-EEk kontra (8) bozkatu zuten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen bilketa sistemaren inguruan Udalak hartu beharreko erabakiak ikusmina piztu zuen martitzeneko osokoan, herritarrez bete zen aretoa. Ez zen ezustekorik izan: Bilduren eta Aralarren botoekin eta EAJren eta sozialisten kontrakoekin Udalak onartu egin zuen hiri hondakinak atez ate biltzea. Zinegotzien arteko eztabaida biziez gain, protestak ere

izan ziren. Atez atekoa stop plataformako zenbait kide txistua jo eta Udal Gobernuaren aurkako mezuak zituzten paperak bota zituzten bozketa egin ostean. "Alkateak, dimisioa", "Lehen arratoiak kalean eta orain, bulegoetan" eta "Udaletxean zerbaitek ustel-usaina dauka" izan ziren mezuetakoz batzuk. Udaltzainek aretotik atera zituzten eta une hartan PSE-EEko zinegotziak ere joan egin ziren.

Eztabaida herritarrek ere bai

Bozketa egin aurretik talde guztietako zinegotziek egin zuten berba. Josu Pereda Ingurumen zinegotzia aritu zen Udal Gobernuaren izenean. Hondakinak nola tratatu erabaki ostean bilketa nola egin zehaztea larria dela esan zuen, besteak beste.

Juan Karlos Garitano zinegotzi jeltzaleak sistema "derrigortua" izango dela esateaz gain, gaia landu duen hondakinen kudeaketarako kontseiluaren funtzionamendua salatu zuen, esanez parte-hartze txikia eta ikuspegi bakarrean oinarritua izan dela. Aritz Arrieta PSE-EEko bozeramaileak ere gogor salatu zuen erabakia. Inposizioa dela, hiritarrei iritzirik eskatu ez zaiela eta sistemaren gaineko datu errealik ez dagoela kritikatu zuen. Horrez gain, Udal Gobernuak euren galderei erantzuten ez diela ere gaineratu zuen.

Protesta ekintzez gain, herritarrek aldeko zein kontrako ekarpenak egin zituzten. Mertxe Trojaolak, adibidez, Arrasate Garbi plataformaren izenean egin zuen berba eta bozketa irailera arte atzeratzea eskatu zuen, besteak beste. Ekologistak Martxan taldeko kide Piter Encinasek, bestalde, bat egin zuen atez atekarekin. Hondakinak etxetik irteten diren unean publikoak direla gogora ekarri zuen, eta herritar guztion bete-beharra dela ingurumena zaintzea.



Hamar urtez Uarkape pilotalekuan egon ostean, eguaztena ezkeru Uarkapen dago KZgunea

Hamar urte igaro eta gero kokalekuz aldatuko dute KZgunea. Uarkape pilotalekuan barik, Kulturaten dago eguaztena ezkeru Interneterako sarbide publikoa eta makina bat eskola eta ikastaro eskaintzen duen gela. Zehazki esateko, Kulturateko ordenagailu gelan dago. Gela horretan dauden 16 ordenagailuez gain, beste sei gehitu dituzte. Asteon egin dituzte mudantza lanak, eta, beraz, dagoeneko erabilgarri dago herritarrendako.

Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzeko gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

Birziklatze tasak

Arrasate

%30

atez ate
%83

Olartzun, Antzuola
Usurbil, Hernani,

Zabortegeira doana

Usurbil

%10

%70
errefusa

Arrasate

ondo
egitera
goazz



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Lasagabasterren eta Dublinen arteko finalerdia *beroa* izan zen; Lasagabasterrek irabazi zuen, 3-1. | JOSETXO ARANTZABAL

Sonografos taldearen freskotasuna eta Lasagabasterren esperientzia, finalean

Sonografos lehenengoz iritsi da finalera; Lasagabasterrek ligako lau jokatu ditu

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Zapatuan Zaldibarko Txapelketa-ko 50. finala jokatuko dute (17:30). Eta urteurren hori betetzeko ohorea Sonografos eta Lasagabaster taldeek izango dute, haiek izan dira-eta aurten bi talde onenak. Lehenago, baina, hirugarren postuagatik lehiatuko dira finalaren

atarian geratu diren Dublin eta Abokajarro (16:00).

Esperientzia eta joko-maila

Aurtengo txapelketan Sonografos izan da albiste on horietako bat, Zaldibarrera freskotasuna ekarri duen ordezkaria. Izan ere, talde horretako hainbat jokalarik Zaldi-

barko beterano badira ere, beste hainbat jokalarik futbol federatutik datoz –Mondratik–, eta, neurri handian, haien joko-mailak bul-tzada eman dio taldeari.

Erasoan bikain moldatzen den taldea da Sonografos, ate aurrean golak erraz egin dituzte, baina finalera begira, Lasagabasterrek

izan dezakeen esperientzia falta zaie. Izan ere, finaleko beste ordezkari Lasagabasterrek guztira zazpi final jokatu ditu. Horietatik hiru kopako finalak izan dira –bi garaipen– eta beste lau ligakoak izan dira –garaipen bat–. Hain zuzen, azken datu hori zuzendu nahi dute Lasagabasterkoek, lau finaleratik bakarrik irabazi dutelako (eta guztietan Dribling izan da euren berrero).

Partiduen ostean Zaldibarren elkartuko dira 100 lagun inguru txapelketaren 50. urteurrena ospatzeko (txarra egiten badu, Biterin); egunean bertan saltzeko hainbat txartel gorde dituzte.

Kolpea bai, baina Velascok ez du ezer hautsita

X.U. | ARRASATE

Euskaltel-Euskadiko ziklista Iban Velascok bertan behera utzi behar izan zuen eguaztenean Suitzako Itzulia, etapa hasi eta 21. kilometroan erorikoa izan eta gero.

Arrasatekoak kolpe handia hartu zuen sorbaldaren ezker aldean, eta lepaustuia apurtuta izango zuen beldurrez eraman zuten ospitalera. Han azterketak egin ostean, baina, kolpe gogorra bai, baina hausturarik ez zuela adierazi zioten medikuek, taldeak argitza eman duenez

Hilabete gogorra

Arrasatekoarendako hilabete gogorra izan da, Giroaren hasieran ere gorputzaldi onean egonda lurrera erori zelako, eta orduan ere min hartu zuelako sorbaldan –orduan edema sortu zitzaion lepaustuian–. Kolpea hartuta ere Arrasatekoak lasterketan jarraitu ahal izan zuen, azkenaurreko etapen epailek lasterketatik kanpo utzi zuten arte, beste ziklista batzuekin batera. Haustura barik askoz ere lehenago erre-kuperatu ahal izango da.

Ziklista gaztetxoak Elgoibarko sarian

Erretratuan duzue Elgoibarko sariko podiuma. Alebin mailan, nesketan, Alaitz Beloki izan zen onena (Dorketako Ama), eta mutiletan Iñigo Aranburu (Sumofic) eta Liher Untzueta (Dorletako Ama) podiumera igo ziren. Infantil mailan, nesketan, podiumera igo ziren Oñatiko Irati Barrena eta Eneritz Lizarralde.



DORLETAKO AMA

Pasaiak irabazi ostean, Mondrak gertuago du mailari eustea

Oraindik hainbat astez zain egon beharko badugu ere, Mondrak gertuago du mailari eustea. Hori gertatzeko lehenengo betebeharra zen ohorezko erregionalean igotzea fasea jokatu zutenen artean Gipuzkoako ordezkariak, Pasaiak, irabaztea. Eta pasaitarrek bete egin dute eginkizun hori. Hurrengo pausoa da hirugarren mailako Laudio eta Barakaldo 2.B mailara igotzea, edo, bestela, bi talde horietako bat igotzea eta ekonomikoki kinka larrian dagoen Lemoa taldea kategoriala galdu eta erregional preferentera jaitea.

Borroka Arteen Eguna ospatuko dute Aikido taldeko lagunek

San Juan jaien egitarauaren barruan, Aikido taldeko lagunek Borroka Arteen Eguna ospatuko dute zapatuan, 10:00etan, Uarkapen. Dagoeneko urteroko hitzordu bilakatu da Borroka Arteen Eguna, eta bertan, herritarrek aukera izaten dute borroka arte horiek gertuago ezagutzeko, aikidorea, kenpoa eta judoa. Horretarako, herritarrei arropa erosoarekin joateko gomendatzen diete, kirol jarduerak horiek eroso egin ahal izateko. Eta ikastaro hori gazte zein helduei zuzendutakoa izaten da; deialde, noski.




GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

PUB HAIZEA



Etxeko txikitxoenek herriko kaleak beteko dituzte zapatu eta domekan

Danborradan, konpartsan eta dantza taldeetan ibiliko dira, kalez kale

UBANE MADERA | ARRASATE

Gaiteroen doinu indartsuekin hasi, danborren erritmoekin segi eta txistuaren kantu gozo eta alaiekin borobilduko da oraingo asteburu hau, sanjuanen atari izaki.

Bihar, zapatua, izango da egunik jendetsuena: Entsegua Kalean egingo dute eguerdi-arratsaldean eta haurren danborrada iluntzean.

Errementariak eta erraldoiak

Konpartsaren hitzordua 12:00etan da, Jokin Zaitegin. Ehun dantzarik gora, musikariak eta konpartsako kideak batu dira, jaietako saioak prestatze aldera. "Errementari-dantzako entsegua-ekin hasiko gara, ostean erraldioen entsegua egingo dugu bandarekin, eta gero txikitxoek entseatuko dute, gaiteroekin. Arratsaldean txosna ipiniko dugu, 18:00etan, Seberren, saiheski, garagardo eta konpartsaren materialarekin; eta 21:00etan, berriz, bildotsa zozkatuko dugu", kontatu du Joserra Perezek, konpartsako kideak.

Haurren danborrada

Zapatuko beste hitzordua, berriz, haurren danborrada da. Bederatzi konpainia eta 225 neska-mutiko elkartuko dira Nafarroa etorbidean 18:00etan, prestatu eta ordubetera plazarako bidea hartzeko. Nafarroa etorbidea -Hotel Mondragon-Garibai-Maala-Portaloia-Herriko Plaza ibilbidea egingo dute Sarriegi eta gainerako musikarien doinu ezagunak kalez kale barreiatzen. "Urduri dauela ematen du, baina ikastolan-eta guztiek jotzen dutenez, ondo dakite, eta urduritasunak pasatu egingo zaizkie. Dena ondo irtengo da, eguraldiak laguntzen badu", dio Juan Luis Arkauzek, danborrada antolatzen duen SUDC elkarteko presidentek.

Haur Dantzari Eguna

Bukatzeko, domekan dantzaren eguna da. Euskal Herri osoko 600



Haurren danborradako neska-mutikoak San Viator Handin entseatzen. | XABIER URTZELAI

lagundik gora elkartuko da gurean (Iparraldekoak izan ezik): Gipuzkoatik, Aretxabaleta, Oñati, Antzuola, Arrasate (bi talde) eta Soralueko ordezkariak etorriko da; Arabatik, aramaioarrak; Nafa-

rroatik, iruindarrak; eta Bizkaitik, portugaletarrak. "Kanpokoek euren probintzietako dantzaren bat ekarriko dute", kontatu du Xeli Arregik, Lore Gazteak taldeko arduradunak.

11:15ean kalez kale ibiliko dira eta 13:30ean dantza erakustaldia izango da plazan. Eta arratsaldean, 17:15ean alardea egingo dute, plazan, eta ostean, Oñatiko Kaixo taldearen erromeria izango da.



Maite Barreña, Emakume Txokoko arduraduna. | GOIENA

Sorginen gau magikoa, Monterronen

Mitologiak dio sanjuanen inguruan (bezperan) sorginak batu izan direla suaren bueltan. Bada, Arrasaten bihar, zapatua, elkartuko dira, Monterronen, 22:00etan, Sorgin Gauaren hitzordupean. Edabe magikoak indarberrituta eta antortzek gozoki argizatuta, akrobaziak egingo dituzte Buruz Behera enpresako Maider eta Virginiak. "Zintzilikatu egingo dira, uztaiekin jardun, zapiekin... eskarmentu handikoak dira", kontatu dute Emakume Txokotik ekimenaren antolatzaileek. Ipuin kontakizuna ere egingo du Maite Franco kontalariak, fondoko efektuak egingo dituen koru batek lagunduta. Dantzarako grina pizteko, berriz, Andrakatan batukadako emakumeek danborrei eragingo diete. "Eta irrintziak ere tartekatuko ditugu, Emakume Txokoan egindako irrintzi-tailerrekoekin", kontatu du Amets Beltran de Gebarak, Emakume Txokoko dinamizatzaileak.

Krisiari aurre egiteko moduko mus txapelketa

U.M. | ARRASATE

"Krisia krisi, beste urte batzuetakoak baino sari eta opari askoz ere handiagoak izango dira", iragarri du Roman Lopezek sanjuanetako mus txapelketaren berri ematerakoan. Biharko, zapatua, 16:30erako egin dute hitzordua, Aldape tabernan (Batzokia). Baina jokatzeko alde aurretik eman behar da izena (943 79 63 69; 40 euro bikoteko). XVI.a txapelketa izango da aurtengoa.

Eta, egia esan, aurtengo sariak badira aintzat hartzeko modukoak: 1.000 euro eta urdaiazpikoak txapeldunendako; 500 euro eta opariak bigarrenendako; 300 euro eta opariak hirugarrenendako; eta opariak laugarrenendako (sariak Erdiko kaleko Merche jantzi-dendan daude ikusgai, Erdiko kalean).



Lopez sariak erakusten. | GOIENA

Kantu klasiko eta herrikoiak, Txorbela otxotearen eskutik

Etxeko otxoteak ere badu hitzordua sanjuanen bueltan: domekan, 20:00etan, San Frantzisko elizan. Ave Maria eta Christus factus est kantu elizkoiekin batera Ume eder bat, Maitia nun zira eta Oi Ama Euskal Herria kantu herrikoiak tartekatuko dituzte, besteak beste.

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

BASATI

TABERNA

943 71 17 68

EAJ: "Zintzilikarioak non ipiniko dituzte gune historikoan?"

Atez atekoaren kontra 4.700 sinadura batu dituzte

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

EAJk atez ateko zabor bilketa sistemaren kontrako herri plataformarekin batera 4.700 sinadura jaso ditu. EAJko ordezkariak eguaztenean egindako agerraldian adierazi zuten aurrerantzean ere bestelako ekintzak egiten segituko dutela: "Bergarar guztiei dei egiten diegu atez ateko sistemaren aurka antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko eta haien hitza errespetarazteko gure herrian. EAJk ez du etsiko Bergarako Udal Gobernuak bere erabakia atzera botatzeko lanean", adierazi zuen EAJko zinegotzi Aintzane Oiarbidek.

Zarautzera begira

EAJko Bergarako ordezkariak agerraldia hasi zuten esanez "Zarautzentzat ona ez dena" ez dutela nahi Bergaran. "Ikusten ari gara atez atekoaren alde egin zuten 33 udalerrietatik batzuk atzera egiten ari direla. Zarautzek esan du jadanik ez duela atez atekoa jarriko, eta bosgarren edukiontzian oinarritutako moduloa lantzen hasiak dira".

"Ez dugu zabortegirik nahi"

Ingurumen diputatu Juan Carlos Alduntzinek Diputazioaren hondakinen kudeaketa plana aurkezteko orduan adierazi zuen birziklatu ezin diren hondakinei trataera biologikoa eman eta "kutsagarriak ez diren" fardo moduko batzuk osatuko lirate-



EAJko ordezkariak, eguaztenean egindako agerraldian. | A.B.

keela. Horiendako egun hutsik dauden harrobiak biltegi moduan erabiltzea proposatu zuen. Bada, EAJko ordezkariak adierazi dute Bergaran ez dutela zabortegi berririk nahi: "Bergaran badugu martxan ez dagoen harrobi bat eta baliteke birzikla ezin daitezkeen arrasto edo zabor bola konpaktu horientzako zabortegia hementxe ipintzea. Argi esan nahi dugu Bergaran ez dugula zabortegirik nahi". Gai horren inguruan, eta Antzuolara bidean dagoen harrobiari erreferentzia eginez, honakoa gaineratu zuen Bergarako alkate ohi Vitoriano Gallastegik: "Alkate nintzenean itxi genuen harrobia eta erabaki zen sekula ezer gehiago ez botatzea hor. Ezker abertzaleak ere horixe eskatzen zuen. Nola uler daiteke orain berriro ere harrobiak zabaldu nahi izatea? Non dago garai hartako sentsibilizazioa?".

Zintzilikarioak gune historikoan

EAJko zinegotziak, bestetik, arduratuta azaldu ziren gune historikoan atez atekoak izan dezakeen eraginaz: "Bergarako gune historikoa babestuta dagoenez, zein da Udalak duen asmoa? Non ipiniko dituzte zintzilikarioak? Udalak behartu al ditzake etxejabeak zaborrak atari barruan lagatzera Hernanin egiten duten moduan? Udal Gobernuari egin diogun galderetako bat izan da, eta ez dugu erantzunik jaso".

Agerraldia amaitu zuten salatu hondakinen gaiarekin Bilduk tentsioa besterik ez duela sortu Gipuzkoan: "Gipuzkoarrek behar dutena da zaborren arazoa konpontzea, eta aurreko legegaldian konponduta zegoen. Gipuzkoarrok behar duguna da tentsioa lasaitu eta krisiaren aurka eta gure herriaren burujabetzaren alde indar guztiak batzea".



Gizon batzuk auzolanean, 1970. urte aldera. | ARANZADI

Udalaren egutegia aurten ohitura zaharren gainean

Euskara batzordeak aurten ere argazki lehiaketa antolatu du 2013ko egutegia egiteko

E.M. | BERGARA

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak lehiaketa deitu du Udalak urtero argitaratzen duen egutegiaren argazkiak aukeratzeko. Antzinako ohiturak izango dira irudietako protagonista nagusiak, eta lanak aurkezteko epea irailaren 25era arte izango da zabalik.

Herritarren proposamena

Herritar batzuen proposamenari jarraituz, aurkeztu beharreko argazkientzat honako argazkiak aukeratzeko. Antzinako ohiturak, sineskerak, antzinako jolasak, lanak, tresnak... Bergararen presentzia duten edo izan dutenak.

Udal Artxiboaren esku

Egutegian erabiltzeko aukeratuak argazkiak ordaindu egingo dira eta Udal Artxibategian jasota geldituko dira. Udalak horiek erabiltzeko aukera izango du, betiere egilearen berri emanda. Epaimahaiari dagokionez, Euskara batzordeak izendatutako lantalde batek aukeratu dituzte argazkiak.

Lanak CD batean aurkeztuko dira eta Udaleko Euskara Zerbitzura eramanda.

Argazkien gaia zentratzeko lagungarri izan daitekeelakoan, Bergaran presentzia duten edo izan duten zenbait ohituraren erreferentziak kontsulta daitezke *Bergara Aldeko Hiztegia*-n eta *Ahotsak.com* helbidean.

San Antonio auzoan jai giroan segituko dute aste bukaeran

A.B. | BERGARA

Joan den zapatuan hasi zituzten jaiak San Antonio auzoan, baina auzotarrei oraindik gelditzen zaie parrandarako aitzakiarik. Biharko, zapatua, egun osoko egitaraua prestatu dute. Aurtengo jaiak, beraz, amaiera borobila emango diete.

Musika eta jana nagusi

Eguerdian mezarekin hasiko dituzte ospakizunak eta meza ostean karpako taberna irekiko dute; pintxoak eta salda beroa eskainiko dute bertara gerturatzen direnendako.

Txikitxoendako ere egongo da zer egin ordu horretan: zezentxoak eta poneyak egongo dira; beraz, bazkalordura arte entretenituta ibiliko dira auzoko gaztetxoak.

15:00etan auzotarrak mahaia- ren bueltan elkartuko dira. Auzo bazkaria egingo dute plaza txikian, eta, bazkalostean, parrandarekin segitzeko musi-

karik ez da falta izango. Arratsaldean kukaina eta buruhandiak egongo dira, eta dantzariak ez ere da falta izango: DJ Angik berotuko du giroa.

SAN ANTONIOKO JAIK

EKAINAK 16

12:00 Meza.

12:30 Karpako tabernaren irekiera pintxoekin.

12:30 Zezentxoak eta poneyak.

15:00 Herri bazkaria.

18:00 Kukaina eta buruhandiak. DJ Angirekin.

EKAINAK 17

10:00 Diana txistulariekin.



Arkitekto txikien artean lehen saria, Bergarara

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak antolatutako Aizpurua marrazki eta pintura lehiaketaren seigarren edizioaren lehenengo saria Bergarara etorri da. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan matrikulatutako gipuzkoar guztientzat da lehiaketa. Bada, lehenengo saria Aranzadi Ikastolako Haritz Gomez de Balujera eskuratu du, kultura etxea marraztuta. Bada, Disneyland Parisera bidaia irabazi du berarendako eta gurasoendako.

Gaztetxeko urteurreneko ospakizunen azken txanpa aste bukaeran

Gaztetxe Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, eta azken egunotako egitarauari amaiera eman

E.M. | BERGARA

Bergarako gaztetxeak hamabi urte bete ditu kartzela zaharrea eta hori ospatzeko ospakizunak izan dituzte aurreko astetik. Bada, festari amaiera borobila emateko, Gaztetxe Eguna ospatuko dute bihar, zapatua.

Hamabi eguneko egitaraua osatu dute gaztetxeok eta era guztietako ekitaldiak batu nahi izan dituzte aurreko egunetan: hitzaldiak, antzerki emanaldiak, kontzertuak, mahai-inguruak, dokumental emanaldiak eta beste hamaika ekimen; "Guztiok daude gonbidatuta, inoiz baino gehiago kartzela zaharra denon inplikazioa behar duelako" diote gazteek.

Biharko jaiaren aurretik, gaur, egubakoitza, t egingo dute kalean, tardean salsa, taila eta bestelakoak. Gauerako, berriz, antzerki emanaldia iragarri dute: *Un par de txurris*, sexuari buruzko klown ikuskizuna izango da gaztetxean, 22:30ean hasita. Antzerki emanaldiaren ondoren jokoen txanda izango da kartzelan.

Napoka Band domekan

Napoka Band taldea izango da domekan kartzelan, 19:00etan. Ekainaren 23an, berriz, N.C.C, Lobo Electrico, Safety Pins eta Screamin' Target taldeek joko dute, Txaparen eskutik.

ZAPATUKO EGITARAUA

11:00 Pati-poteo musikatua gaztetxetik abiatuta. Patinetea, skatea edo erroberadun tramankuluren bat eramatea eskatu dute.

14:00 Bertso bazkaria Hamaika Bertuteko kideekin.

23:00 Bertsio gaua Bergarako musikariek.

00:30 La familia Iskariote.

02:00 DJ Elvis Caino.



La familia Iskariote izango da zapatuan gaztetxean. | GOIENA

San Martzialgo erromeriarako mahaien alokairua egin daiteke kultura etxean, hilaren 21era arte

San Martzialerako mahaiak alokatu nahi dituztenek kultura etxera jo dezakete ekainaren 21era arte, aste barruan 18:00etatik 21:00etara. Mahai bakoitzaren alokairua 20 eurokoa da. Eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri behar da eta egindako eskaerarekin batera agiria jasoko dute, jasotako materiala zehaztuz. Mahaiak eta aulkiak ekainaren 30ean, zapatua, entregatuko dituzte, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialen. Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

Erreal-Zaleen urteko batzarra egubakoitzean eta Musika Eskolako zozketaren emaitza eta batzarra

Bergarako Erreal-Zaleak taldeko urteko batzarra egingo du egubakoitzean, hilaren 22an, Agorrosinen, 19:00etan. Ondoren afaria egingo dute bertan; izen-ematea (20 euro) Matxiategi Elektrizitate dendan (943 76 19 94) egin daiteke, eguaztenera arte.

Musika Eskolaren batzar nagusia, berriz, martitzenean izango da, 19:00etan lehen deialdian eta 19:30ean bigarrenetan. Bestalde, Luis Laskurainen koadroaren zozketan 2.188 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Musika Eskolara jo dezake.

Herri arteko kanporaketan sorpresa emateko gertu bihar Atano pilotalekuan

- ▶ Bergararrek 1-2 galdu zuten Donostiaren aurka
- ▶ Tanto aldea gaintitzea oso zaila daukate bergararrek

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko astean Donostiaren aurka Bergaran 1-2 galdu ondoren, Bergarako pilotariek Atanon jokatu dituzte itzulerako partidua bihar, zapatua, 16:30ean. Bergararrek zaila daukate final laurdenetako kanporaketa gaintzea. Reyes Azkoitiaren hitzetan, "Tanto kopurua geure alde izatea zaila izango da Donostia oso bikote indartsua duelako kadete mailan. Baina nahiz eta jakin zaila dela ahalegin guztiak egingo ditugu kanporaketa gure aldekoa izan dadin". Kadete mailan 0-22 galdu zuten joan den egubakoitzean bergararrek eta gazte mailan tanto bakar bategatik, 21-22. Nagusien mailan izan zen Bergararen aldeko puntu bakarra, 22-7.

Bihar aurrera egiteko derrigorrez irabazi behar dute gazteek eta nagusiek, eta ahal den alde handienarekin. Kadete mailako Bergarako bikoteak ere ahalik eta tanto gehien egitea komeni. Hala, hiruna berdinduta geratuko dira eta orduan tanto kopurua hartuko da kontuan.

Gaztetxoak eta gaurko jaialdia
Bestalde, Pilota Eskolako gaztetxoek Udaberri Txapelketako finalak jokatu zituzten atzo, eguna. Aurten, nobedade gisa, neskendako pala txapelketa ere egon da eta Jon Larrañaga ibili da monitorea lanetan. Gaztetxo mordo batek hartu dute parte Pilota Eskolan.

Eta gaur, egubakoitza, pilota jaialdia izango da Udal Pilotalekuan, 19:30ean: infantil mailan Unai Zubizarreta eta Harri Otermin bergararrek Euskal Jolas taldeko bikotearen aurka jokatu dute eta kadete mailan, lau t'rdiaren barruan, Paul Valgañonek Zabala izango du aurrez aurre.



Begararrek senior mailako partidua bakarrik irabazi zuten aurreko astean. | JA

ESANAK

"Ahalegin guztiak egingo ditugu aurrera egiteko"

REYES AZKOITIA | PILOTA SAILEKOA

Pilota sailaren zozketa

Ohikoa denez, banaz banako pilota finalaren atarian, zozketa egin du Bergara KEko pilota sailak.

Jose Ramon Azkarate-Askasua irabazi du 5.762 zenbakiari zegokion lehen saria: Irujok eta Aimar Olaizolak Bilbon jokatu duten finalerako bi sarrera eta 500 euro. Bigarren saria, berriz, 2.919 zenbakiarendako saria: txartelaren jabeak, Leire Arbelaitzek, Kantabriako Treceño herriko Palacio de Guevara hotelean asteburu bateko egonaldia eta 250 euro jasoko ditu; eta, azkenik, 9.909 zenbakiarendako izan da hirugarren saria, Erreki jatetxean bi lagunendako afaria. Jose Mari Elgezuak eskuratu du aipatutako saria.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Miguel Angel Alvarez | Ipintza institutuko zuzendaria

"Irakasle lanetan ikasleengandik ikasteko aukera ere badago, zorionez"

- ▶ Ipintzako zuzendaria erretiratzear da, irakaskuntzan 38 urte eman ostean
- ▶ Leongoa sortzez, Salamancan ikasi zuen eta 1981ean iritsi zen Bergarara

EDU MENDIBIL | BERGARA

Leongoa sortzez, Miguel Angel Alvarezek (60 urte) urte mordo eman ditu Ipintza institutuan. Salamancan egin zituen Geografia eta Historia ikasketak, eta, hainbat lekutan irakasle jardun ondoren, 1981-82 ikasturtean iritsi zen Bergarara. Ordutik hona, hainbat alditan izan da Ipintzako zuzendaritza, eta azken bost urteotan hura izan da ikastetxe-ko zuzendaria. Aurtengoa du azken ikasturtea, datozen asteotan erretiratuko delako. Jose Mari Juaristik hartuko du Alvarezen lekukoa. Ipintza utzi aurretik, ondoko galdetegia egin diogu Miguel Angel Alvarez irakasle *dekano*-ari.

Nola iritsi zinen Bergarara?

Salamancan ikasten nengoela ezagutu nuen nire emaztea, eta garai hartan aukera izan genuen biok Bergarara etortzeko. Eta herrian integratzeko zenbait pertsonaren laguntza funtsezkoa izan zen.

Ipintzan hasi zinenetik hona, asko aldatuko zen irakaskuntza, ala?

Bai, jakina. Horren adierazgarri, gaur egun irakasleak ez gara informazio iturri garrantzitsuen ikasleendako. Informazio iturri ugari dituzte eta irakaslearen zereginetako bat iturri horien aukeraketa eta kudeaketa egokia bilatzea da.

Zelakoak dira gaurko ikasleak?

Gazteak. Esperimentatzeko adi-



Miguel Angel Alvarezek 30 urte eman ditu Ipintza institutuan lanean. | E.M.

nean daude, eta, sarritan, galduta samar ere bai. Nahiko adin konfliktiboa izaten da 12-18 urte bitarte hori, baina aberasgarria ere bai, asko ikasten delako adin

"Zenbait jenderen laguntza funtsezkoa izan zen Bergarara etorritakoan"

tarte horretan. Eta nahiz eta adin bera izan, heldutasun maila ezberdina izaten da ikasleen artean. Batxilergoa bukatutakoan zein bide hartu erabaki behar dute,

"Adin konfliktiboa izaten da 12-18 urte bitarte hori, baina aberasgarria baita"

eta batzuek lehenago asmatzen dute. Baina, azkenean, guztiek bilatzen dute euren tokia.

Ofizio eskergarria da irakaskuntza, ala?

"Gertuko gauzeekin, familiarekin eta lagunekin gozatzen ahaleginduko naiz"

Zalantza barik; azken baten, ikasle-eboluzioa ikusten da eta, zenbait kasutan, urtetako harremana mantentzen da. Pertsonak diren heinean, jendearekin lan egitea beti da eskergarria; gainera, irakaskuntzan alde bietako hartu-eman dago: zuk ematen duzu, baina ikasleengandik jaso ere bai, zorionez.

Gatazka iturri ere izaten da eskola, askotan...

Bai, baina familietan gertatzen den antzera... Azken baten, etxe barrukoa ezkutuan geratzen da, askotan, eta eskolako ageriago... Irakasleok asmatu egin behar dugu gatazkak bideratzeko daukagun tresnak ondo erabiltzen, besterik ez.

Zeintzuk dira irakasle on baten ezinbesteko ezaugarriak?

Hiru aipatuko nituzke: batetik, ezagutzak zein sentimenduak transmititzen jakitea; bestetik, psikologo samarra izatea; eta, azkenik, askotan aipatzen dena, pazientzia izatea.

Urte hauetan guztietan zein izan da bizi izandako aldaketarik gogorrena?

Aldaketa asko izaten dira, eta, zenbat eta aurrerago joan adinean, orduan eta gehiago kostatzen da moldatzea. Malgutasuna galtzen da. Baina motibazioa eta aukera dagoenean, urratsak ongi etorriak dira beti. Euskarekin gertatu izan zen moduan. Jaurlaritzak aukera eman zigun euskara ikasteko eta lan handia egin da euskara mailan Ipintzan. Ikastetxea herria euskalduntzeko baliagarria izan dela esango nuke.

Zein unetan dago orain Ipintza institutua?

Hezkuntzarako ez da une egokia gaurkoa, baina eskola publikoa sasoi onean dago eta horrela jarraitzea nahiko nuke...

Eta bukatzeko: erretiratutakoan, zer? Asmoren bat?

Gauza handirik ez... Gertuko gauzeekin gozatzen ahaleginduko naiz, familiarekin, lagunekin... Eta gauza berriak ikasteko ere aprobeztatuko dut, ziur.



Ariznoaren erakustaldia gaur

Amaitu berri den denboraldia arrakastatsua gertatu da Ariznoa taldeko gimnastendako. Gipuzkoa eta Euskadi mailan ere sailkapen onak lortu dituzte bergararrek. Bada, denboraldiari agur esateko erakustaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Labegarrietako kiroldegian, 18:00etan. Zaleei eta, orokorrean, herritarrei erakustaldira joateko gonbidapena egin diete Ariznoako arduradunek.



Maria Luisa, 'Goenkale'-ko izarra

Goenkale telesailaren 18. urteurrena dela eta, ETB gala berezi bat prestatzen dabil eta hasiera-hasieratik Arraldeko gorabeherak jarraitu izan dituen Maria Luisa Zangitu elkarrizketatu berri dute programa horretarako. Bisita berezia jaso zuen Maria Luisak etxean, aurreko astean. Argazkian, Maddi Goenaga ilobarekin eta Xabi Perurena *Goenkale*-ko aktorearekin. Ekainaren bukaeran emitituko dute gala hori Euskal Telebistan.

Liburutegia berrantolatu dute, zerbitzua hobetzeko

Aurrerantzean mediateka ere egun osoan egongo da zabalik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Liburutegiko espazioa berrantolatu egin dute, zerbitzua hobetzeko. Orain, liburuak mediatekan entregatu behar dira, hantxe jarri dute eta horretarako erabiltzen den mahaia. Horrez gain, liburutegiko bideoak ere mediatekara pasa dituzte.

Aldaketa horiekin zerbitzua hobetu gura izan dute liburutegiko arduradunek. "Mediatekan toki zabalagoa dugu bideoendako, baita zerbitzu hori hazteko ere. Gainera, liburuak hor entregatzeak esan gura du mediateka ere goiz eta arratsaldez egongo dela zabalik aurrerantzean, eta ez bakarrik arratsaldeko orduetan, lehen bezala", azaldu du Nagore Inda liburuzainak.

Espazio zabalagoa irakurtzeko

Liburutegiko bideoak mediatekara eramanda, toki gehiago dago orain irakurtzeko liburutegiaren sarreran. "Orain bi gune ditugu irakurketarako: liburutegiaren bukaeran bat eta sarreran bestea. Lehen bideoek espazio handia hartzen zuten eta sarrera toki deserosoa zen irakurtzeko, baina

orain txoko egokia da horretarako. Jende asko etortzen da egunkariak edo bestelakoak irakurtzera", zehaztu du Indak. Gainera, aldaketa honekin, liburutegi barruan behar den isiltasuna ere bermatuago geratzen da.

Hoberako izan da

Ekainaren leian egin zuten aldaketa eta liburutegi zein mediatekaren erabiltzaileak pozik dardela kontatu du Indak. "Harrera ona izan du aldaketak, bai. Orain jendeak ohitu egin beharko du, baina erraz moldatuko dela uste dut. Hamabost egun hauetan etorri diren erabiltzaileek, behintzat, esan digute ideia ona izan dela. Eta langileondako ere bai. Aldaketa honek ez du gure lana asko baldintzatuko; gure beharra dagoenean, lehen bezala, berdin-berdin, joango gara berarengana", dio Indak.

Momentuz, eta erabiltzaileak ohitu arte, parez pare daude zabalik liburutegiko zein mediatekako ateak, espazio biak ikusten dira batetik zein bestetik, baina asmoa da liburutegiko atea itxita izatea.

Automailegurako gailua

Bestalde, liburutegiaren sarreran dagoeneko jarri dute liburuak automaileguan hartu ahal izateko gailua. "Hilaren hasieran ekarri ziguten, eta laster egongo da martxan. Erabiltzaileek eurek hartuko dituzte gero liburu edo aldizkariak, adibidez, horretarako autonomia izango dute. Uzteko, ordea, liburuzainarengana joan beharko dute, orain arte bezala", azaldu du Indak.



OIHANA ELORTZA

Bidegorriaren tunela

Belaxara gasolindegi ingurutik Madalenako auzo-bidera sartzeko bidegorria saihebidetaren azpitik pasako da eta dagoeneko jarri dute bidegorria izango den tunela. Fagor atzealdetik Madalenako ermitara bideratzeko egitasmoak desnibel handia zuelako erabaki zuten saihebidetaren azpitik egitea bidegorria.



Mediatekan daude orain bideo guztiak. | TXOMIN MADINA

Arantzazurako autobusen ordutegia aldatu egingo dute

Uztailaren 1etik aurrera ordutegi berria izango dute Oñati eta Arantzazu lotzen dituzten autobusek. Uztailaren 1etik abuztuaren 26ra bitartean, 07:30ean aterako da lehen autobusa Oñatitik, eta 19:00tan azkena Arantzazutik. Arrikurtzen ere geldialdia izango dute goizeko zein arratsaldeko hainbat autobusek: 10:30ekoak, 15:30ekoak, 12:15ekoak eta 17:15ekoak, hain zuzen ere.

Erabiltzaileen artean inkesta bat eginez, herritarren eskariz eta bidaiari kopuruak behera egin duela ikusita erabaki dute ordutegia moldatzea. Uztailerako eta abuzturako izango da ordutegi berria, oraingoz.

Biaín-Peña senar emazteak omenduko dituzte domekan

Jose M. Biaín (92 urte) eta M. Karmen Peña (88 urte) senar-emazteak omenduko dituzte domekan egingo duten Erretiratuaren Egunean. Kiroldegian izango den herri bazkarian jasoko dute omenaldia Biainek eta Peñak. Bazkarirako 255 erretiratutik eman dute izena, eta, bazkariaren gain, Udal Musika Bandaren musika, Oñatz dantza taldekoen dantzak, bertso saioa eta dantzaldia ere izango dituzte. Aurten kiroldegiko kantxan egingo dituzte antolatutako ekintza guztiak. Hain zuzen, domekako Erretiratuaren Egunak emango dio amaiera astelehena ezkerer ospatzen ibili diren Erretiratuaren Asteari.



TOYOTA | EuskoAuto

TOYOTA PRIUS

3.8L/100KM KONTSUMOAN LIDERRA

DESKONTU BEREZIA
%24



STOCK LIKIDAZIOA
IBILGAILU IA BERRIAK
5 UNITATE

PSP: ~~24.500€~~
DTUA: -6.000€
18.500€



EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, z/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karobi industrialdea
Tel: 943 805 926



Nagore Uribarrik eta Miren Leibarrek Gipuzkoako selekzioarekin jokatuko dute. | MIKEL MANTXOLA

Gimnasia erritmikoko ikasleek erakustaldia egingo dute domekan

A.E. | OÑATI

60 bat neskatila ibili dira aurtengo ikasturtean gimnasia erritmikoko eskoletan. 4 eta 14 urte bitartekoak. Bada, urte osoan ikasitakoa gurasoei erakusteko aukera izango dute domekan. Erakustaldia egingo dute Zubikoa kiroldegian, 12:30ean.

Adinaren arabera taldetan banatuta irtengo dira jendarrera. Nagusiek banakako erakustaldia ere egingo dute, baina txikitxoek taldeak arituko dira. Esku librean batzuk, eta pilota, soka, uztai edo dena delako aparailuekin beste batzuk.

Bereziki gertatutako musika

Erakustaldian denetarik koreografiak egingo dituzte. Lide Osinaga gimnasia irakasleak azaldu du ez direla ohiko abestiak izaten: "Gimnasiarako bereziki prestatutako doinuak izaten dira. Koreografiak doinu bereziak behar izaten dituzte, erritmo aldaketa biziak dituzten abestiak, eta, gainera, hitzik gabeko abestiak izaten dira". Hala ere, kalean asko entzuten den abesti zati bat sartuko dute domekako erakustaldian: Pirritx eta Porrotxen abesti bat dantzatuko dute txikitxoek.

Gimnasia erritmikoko ikasturtea irailen hasi zuten: astelehen eta eguenetan entseatzeko dute kiroldegian. Azaldu dute atea zabalki dituztela interesa duen edonorendako.

LIDE OSINAGA
ENTRENATZAILEA

"Diziplina eta kiroltasuna ikasi dut gimnasia erritmikoan"

Gimnasta moduan Aloña Mendi elkartearen hasi, eta Bergarara salto egin zuen gero Lide Osinagak. Orain, irakasle lanetan dabil oñatiarrekin.



GOIENA

Noiz hasi zinen gimnasia erritmikoan?

4 urterekin hasi nintzen, eta urte hauetan denetarik egin dut: banaka, taldeka... aparailuetan, uztaiarekin moldatu izan naiz ondoen.

Bergararrekin ere lehiatu izan zara.

Orain dela lau urte bakarrik geratu nintzen hemen, eta, Bergarako taldean gimnasta baten beharra zutenez, hara joan nintzen. Aurten, utzi egin dut.

Zer izan da zuretako gimnasia erritmikoa?

Bizitzako parte handia izan da. Diziplina zer den ikasi dut, eta baita kiroltasuna eta taldean aritzea ere.

Corpusetako txapelketan lau selekzio lehiatuko dira

Gipuzkoako nesken selekzioan bi oñatiar izango dira: Uribarri eta Leibar

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Infantil mailako Corpusetako eskubaloitxo txapelketa jokatuko dute bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian. Seigarren urtez antolatuko du Aloña Mendik txapelketa hori: aurten, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Errioxako selekzioak lehiatuko dira. Etorkizunean eskubaloian punta-punta ibiliko direnak ikusteko aukera egon daiteke, horrenbestez.

Goizean hasiko dute txapelketa: 09:30ean Gipuzkoako eta Errioxako neskek lehiatuko dira; eta 11:10ean, Nafarroakoak eta Bizkaikoak. Mutiletan, Gipuzkoak eta Errioxak 10:20an jokatuko dute eta Bizkaia eta Nafarroak 12:00etan.

Finalak, arratsaldean

Lehenengo partidua irabazten dutenak zuzenean pasatuko dira finalera. 15:30ean hirugarren eta

laugarren postua jokatuko dute neskek; mutilek, ostera, 16:20ean. Finalak izango dira: mutilena 17:10ean eta neskena 18:10ean.

Gipuzkoan bi oñatiar

Gipuzkoako selekzioan bi neska oñatiarrek jokatuko dute: Nagore Uribarrik eta Miren Leibarrek, eta entrenatzaileak Iñaki Cantero eta Mikel Mantxola oñatiarrek izango dira. Mutiletan, berriz, ez da oñatiarrik egongo.

Txantxiku igeriketa saria jokatuko dute bihar, zapatua, 350 bat igerilarik

A.E. | OÑATI

Aloña Mendik antolatuta, 27. aldiz egingo dute Txantxiku igeriketa saria. Hamar talde etorriko dira Zubikoako igerilekura, 350 igerilarik.

Benjamin eta alebin mailetako neska-mutikoak lehiatuko dira igerilekuan. Nork bere modalitatean jardungo du.

Oñatiarrak 50 izango dira

Etxeokoen babesarekin lehiatuko dira 50 neska-mutiko Aloña Mendik elkartearen izenean.

Txapelketa bihar, zapatua, izango da, 15:30ean, Zubikoa kiroldegiko igerilekuan. Lehiaketaren ondoren sari banaketa ekitaldia egingo dute kiroldegiko frontoian.

Udaberri txapelketako sariak gaur banatuko dituzte

A.E. | OÑATI

Herriko neska-mutikoek Eskola Kiroleko 2011-2012 ikasturteari amaiera emango diote gaur. Ikasturte amaierako jaiak egingo dute Zubikoan, eta baita sari banaketa ere: 39. Udaberri txapelketako garaikurrak banatuko dituzte. 17:30etik 18:30era, ikasturtean zehar laguntzaile izan diren gura-

soendako jolasak egingo dituzte; 19:00etatik 20:00etara opari eta sari banaketa ekitaldia egingo dute; eta 20:00etan luncha izango dute.

LHko 3., 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutikoak eta tenis txapelketan diharduten DBHko ikasleak elkartuko dira gaur, baita mendi programetan finalista gelditu diren gazteak ere.

510 ikasle ibili dira

Aurtengo ikasturtean 510 ikasle parte hartu dute Eskola Kirola Programako kirol eskaintza zabalean. 5 eta 16 urte arteko neska-mutikoentzako eskaintza izan da. Hainbat kirol eta jolas praktikatzeko eta ezagutzeko aukera izan dute gazteak. Datorren ikasturtean San Migelen ostean hasiko da.



Argazki honetan ikus daitezke Peruaitz inguruan dauden artzain-txabolak. Baina nondik dago aterata argazki hau?

Erantzun galderari eta aukera izango duzu Jakioneko otar bat irabazteko

SARRERAK

EUREKA MUSEOAN

Musikaren Egunerako eta udako soltzioaren ospakizunerako bi gonbidapen bikoitz. Ekainaren 23an izango da 12:00etatik aurrera.



SARRERAK

EUREKA MUSEOAN

ikusteko gonbidapenak. Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.



goienakluba

Abantailaz betetako kluba!



Animatu eta parte hartu!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

goienakluba 2012

Formatu akustikoan, Mery May, gaur, Antton tabernan

Abesti zaharrak eta berriak ekarriko ditu Oñatira; batzuk udan grabatuko duen diskoan egongo dira

MIREN ARREGI | OÑATI

Antton tabernan bada hitzordua gaur ere. Hain zuzen ere, emakumezko bakarleri baten ahots eta doinu finez gozatzeko aukera izango da, Mery May bakarleri arrasatearra arituko baita bertan.

Maria Fagan da Mery May. Foxy Boxxi taldean ibilia, 2007an ekin zion bakarleri gisa aritzeari. Danbakako, Debagoieneko musika lehiaketako III. edizioan ezagutu genuen Mery May eta ikusleak aho zabalik utzi zituen 'Free Like an Eagle' abestiarekin. Abesti horrekin, gainera, 2010ean, EITBk antolatzen duen Gaztea Maketa Lehiaketako 10 finalistetako bat izatea ere lortu zuen. Urte horretan bertan argitaratu zuen lehenengo lana, *Dreams* deiturikoa, 70eko hamarkadako folk eta rockari keinu egiten dion disko akustikoa.

Sorkuntza berriak, Oñatin

Kontzertu akustikoa izango da gaurkoa. Bakarrik eta gitarraren laguntzaz eskainiko duena.



Mery May bakarleri arrasatearra. | GOIENA

"*Dreams* laneko abesti bi eskainiko ditut baina gehienak abesti berriak izango dira" dio Mariak. Guztiak ere, 70eko folk eta rockaren ildotik.

Aurrerantzean taldean

Mery Mayk proiektu berri baten dihardu burubelarrri. Bakarleri gisa jarraituko badu ere, Bordeleko bi musikarirekin dihardu osatzen

laster baten grabatuko duten lana. "Disko berriak egongo den abesti bat grabatu dugu dagoeneko eta asmoa da, udan Shot! estudioan grabatzea gainontzeko guztiak" esan digu. Abesti guztiak Mery Mayrenak dira eta sortu duten taldeak Mery May and The Bang Band izena edukiko du. Hirukoteak bihar eskainiko du kontzertua Arrasateko plazan.

Corpusek Olakuari pasatu diote testigua; gaur hasiko dira jaiak

M.A | OÑATI

Olakua auzoa jaietan murgilduko da gaur arratsaldeko zazpitan, etxafuegoek eztanda egitearekin batera. Ordu horretan, erraldoi eta buruhandiak aterako dira txistulariek lagunduta. Horrela emango zaie hasiera domekara arte iraungo duten jaiak.

Irrien Lagunak, bihar

Biharko eta etziko ere egitarau txukuna antolatuko dute auzotarrak. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, bihar 11:30ean Oñatz dantza taldeak egingo duen erakustaldia, horren ondoren Josu Zubiak egingo duen kantu eta magia ikuskizuna eta, bereziki aipatzekoa, Irrien Lagunek 17:30ean egingo duten kantu eta dantza emanaldia. Zalantza barik, hori izango da

aste bukaerako hitzordu arrakastatsuenetako bat. Baina bestelakorik ere bada; izan ere, biharko gaua, herriko gazteei zuzendutakoa izango da. 22:30ean hasita, herriko rock taldeek (Devicio, El Trio Calavera...) kontzertua eskainiko dute. Hori da, hain justu, aurtengo berrikuntzetako bat. Orain arte gaurko gauz egin izan diren kontzertuak aurten zapatura pasatu dira. Antolatzaileen asmoa da modu horretan zapatu gauari bultzada ematea.

Etzi, euskal parrillada egingo dute, 13:00etan. Euro baten truke saiheski pintxoak eskainiko zaie gerturatzeko diren guztiei; hori bakarrik ez, basotxoak sagardo ere eskainiko baitzaie.



Jose Luis Angulok bidaia alternatiboak izango ditu berberak eguaztenean eskainiko duen hitzaldian

Ohiko bidaiez aparteko eskaintzaren berri emango du Jose Luis Angulok ekainaren 20an, 19:30ean, Oñatiko MUko Enpresagintza Unibertsitatean egingo duen hitzaldian. "Mundu berriak ezagutzeko amesten dutenendako da hitzaldia", adierazi dute Eroski Bidaiak agentziatik. Agentzia horrek Marko Polo agentziarekin elkarlanean antolatu du hitzaldia. Gainera, toki berean argazki erakusketa ere ipiniko dute.

SIMS SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com

LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

blum **FRANKE** **GRUMAL**

LOGISIETE **KESSEBÖHMER**

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK*



FAGOR HOZKAILU konbinatua, No Frost (FFK6735X)

Altzairu herdoilgaitzeko atek

- LCD touch pantaila interaktiboa atean
- Hozkailuaren eta izozkailuaren temperaturaren erregulazte independentea
- Haragi eta arraindako Multifresh kaxa
- Ateak ixteko sistema automatikoa

Tarifa:

779€

PROMOZIOA:

599€



FAGOR GARBIGAILUA (F-7212X)

Altzairu herdoilgaitzekoa

- 1 eta 7 kilo artean
- 1.200 b/min
- Kargaren araberako kontsumo aldakorra
- Programa azkarrak (15 eta 30 minutu) eta mistoa (45 minutu)
- Display digitala.

Tarifa:

629€

PROMOZIOA:

424€



FAGOR ONTZI GARBIGAILUA (LVF13X)

Altzairu herdoilgaitzekoa, hatz marken aurkako tratamenduarekin

- Potentzia akustikoa: 48 dB(A)
- 12 litroko ur kontsumoa
- Display digitala
- Kontsumo aldakorra
- Garbitzeko 6 programa

Tarifa:

539€

PROMOZIOA:

406€



FAGOR KANPAIA (9CFM60N)

Kanpai bertikala

- 60 cm-ko apaingarri bertikala
- Touch Control, kontrol elektronikoa
- 3 ateratze maila. Displaya, funtzioena eta filtroen saturazioa adierazteko.
- Argiztatze halogenoa eta filtro modular multikapa garbigarria
- Denbora programatzeko timer-a

Tarifa:

499€

PROMOZIOA:

407€



FAGOR LABEA (6H-760A X)

Altzairu herdoilgaitzekoa

- Pirolitikoa
- Plus multifuntzioa
- 8 egosketa-programa
- Kearen filtro katalizatzailea

Tarifa:

589€

PROMOZIOA:

424€



FAGOR PLAKA (IF-3BS)

Biselatua

- 3 Plus indukzio-zona
- 28 cm-ko XL eta 3x6 kW-ko fokua
- 12 potentzia-maila, kontrol digitalarekin
- Potentzia osoa 7x2 kW

Tarifa:

569€

PROMOZIOA:

390€

* Sustapen honek uztailaren 31 arte balio du.

Izenik gabeko hondakinen kudeaketa sistema onartuta

Bildukoen botoekin onartu zuten; Aralarrek eta EAJk alde egin zuten aretotik eta ez zuten bozkatu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Izenik ez duen kudeaketa sistema onartu zuen udalbatzak asteleheneko ezohiko osoko bilkuran. Ana Bolinaga alkatearen esanetan, "helburua da garrantzitsuena, eta ez izena". Eta helburuak hiru dira bilketari dagokionez: derrigorrezkoa, gaikakoa eta pertsonalizatua. "Horrela bakarrik lortuko delako %80ko birziklatze maila".

Hondakinekin selektiboak gara mozioa aurkeztu zuen Bilduk. Zero zabor politikarantz hurbildu guran, materiala murriztu, berrerabili eta birziklatzen duen kudeaketaren aldeko apustua egingo duela Udalak dio mozioak. Gainera, "ahalik eta hondakin gutxien" sortzeko azterketa egingo dutela; eta Mankomunitatearekin batera konpostatze kanpaina zabaldu eta autokonpost komunitarioa bultzatu.

Bestetik, birziklatze emaitza onenak emango dituen hondakinen kudeaketa sistemaren alde egiteko konpromisoa hartu zuten; eta horretarako, derrigorrezko eta gaikako bilketa pertsonalizatuaren alde egin. Gainera, herritarrekin batera adostuko du zein den horretarako sistema egokiena; iraillean izango da hori.

Aralar, kontzeptuekin bat

Aralarko zinegotziak mozioaren kontzeptuarekin bat etorri ziren



Osoko bilkuren aretoa, Aralarko eta EAJko zinegotziak falta direla. | M.A.

eta "derrigortasunaren beharra" azpimarratu zuten berrerabilpena, birziklatzea eta murrizketa bultzatzeko, eta Bildukoek esandako moduan kudeaketa sistemari izenik jarri barik eta helburuetan oinarrituta. Hala, aipatu zuten 2014rako asmoen artean dagoela %70era iristea birziklatze tasan, eta gaineratu "bide hori herritarrekin batera" egin behar litzatekeela.

Hala ere, prozedurarekin ez ziren bat etorri Aralarkoak, "euren eskaerei ez zirelako kasurik egin eta alderdi guztien artean ezer adostu aurretik aurkeztu zutelako mozioa". Hori horrela, aretotik alde egin zuten euren azalpenak eman ondoren.

Atzeratzeko eskaerari ezetza

EAJko zinegotzi Mari Carmen Astigarraga ez zen ados agertu mozioarekin. Prebentzioa bultzatu beharra azpimarratu zuen, baina gaineratu "faltsua dela atez atekoarekin %100 birzikla daitekeela". Gainera, sistema deserosoa eta itsusiagoa dela atez atekoa aipatu zuen, eta herritarrek ez dutela halakorik gura. Eta gaineratu: "Atez atekoa proposatetik derrigorrezkoa den bilketa pertsonalizatura pasatu gara, bigarren hau zelan gauzatuko den ez dakigula. Aldaketa horrek bi gauza esan nahi ditu: bi terminoak gau-

ESANAK

"Korrika eta berandu landu da eta azken mozioa gaur aurkeztu dute"

INAXIO GARRO | ARALAR

"Derrigorrezko bilketa pertsonalizatua zela gauzatuko den ez dakigu"

M.C. ASTIGARRAGA | EAJ

za bera direla edo mozioa aurkeztu duenak ez daukala garbi proposatu nahi duena".

Astigarragak eskatu zuen uztaile arte atzeratzea bozketa, "inolako abisurik gabe" ekainaren 5etik 11ra atzeratu zutelako eta ondorioz EAJko zinegotzi batek ezin izan zuelako parte hartu; baina ezetza jaso, eta hark ere alde egin zuen aretotik bozkatu bitartean. Hala, Bildukoaren aldeko botoekin onartu zuten mozioa.

Odol emateek gora egin dute: 136 lagunek eman dute hiru egunean

M.A. | ARETXABALETA

Arabako Odol Bankuko kideak izan dira azken hiru astelehenetan odola ateratzen. Eta herritarrei egindako deiak erantzun ezin hobea jaso du: 150 lagun joan ziren osasun etxera, eta 136k eman ahal izan zuten; gainera, 11 emaile berriak izan ziren.

Ramon Eraña herriko ordezkaria oso pozik dago emaitza horiekin: "Gorakada nabarmena da, eta horren arrazoietako bat izango zen domekan gurean ospatutako eguna", argitu du.

400 bat lagun elkartu ziren domekan Arabako Odol Emaitzen Eguna ospatzeko. Lehe-

nengoz egin dute Leintz aldean, eta antolatzaileak oso pozik daude izandako erantzunarekin. Horregatik, eskerrak eman gura dizkiete laguntzen jardundako guztiei: "Arabako Odol Emaitzen Elkartearen eta Leintz aldeko hiru ordezkarien izenean, eskerrik asko, lagundu zeniguten guztioi: hiru herrietako alkateei; Aretxabaleta Abesbatzari eta Barandiaran zuzendariari; parrokiako kideei; herriko dantza taldeari; Jokin eta txistulari taldeari; Arrasateko gaitariei; Beñat eta Maria trikitalariei; eta Juan Luis, Txanpo eta gainerako guztiei, laguntzeagatik".

Tanatorioaren aurkako 1.400 bat sinadura eta hainbat alegazio aurkeztu dituzte aste honetan

Loramendi eta Nafarroa kale inguruetan bizi diren bizilagunak tanatorioaren kokapenaren aurkako sinadurak jasotzen ibili dira azken asteotan, eta 1.400 inguru batu dituzte. Eguaztenean aurkeztu zituzten udaletxean, eta horiekin batera hainbat alegazio ere bai: Aretxarte merkatarien elkarteak, hainbat bizilagunek eta inguruko komertzioek jarritakoak.

Gaztelekua zabalik izango dute 14 eta 16 urte artekoek bihar gauean, GauHon egitasmoari esker

Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako GauHon egitasmoari esker gaztelekua zabalik izango da bihar, zapatua (22:00-01:00), DBHko 3. eta 4. mailetakoendako. Gazteek eurek erabaki eta adostuko dituzte izango diren ekintzak: mahai-jolasak; mahai-futbol txapelketa; musika entzun; filmak ikusi... Uztailean eta abuztuan, berriz, eten egingo dute zerbitzua.

Etxeko langileen lege berriaren gaineko berbaldia egingo dute martitzenean, hilak 19, Arkupen

Aretxabaleto eta Eskoriatzako gizarte zerbitzuek eta Bideberri mankomunitateak antolatuta, etxeko langileen lege berriaren gaineko argibideak emango dituzte martitzenean, hilak 19, Arkupen egingo duten berbaldian (17:00-19:00). Etxeetan jarduten duten langileei eta enplegu-emaitzei bideratutako berbaldia da, baita lege horren gainean gehiago jakin gura dutenei ere.

Gizonen dantza taldea sortu gura du Leizarra musika eskolak datorren ikasturterako

Leizarra musika eskolako kideek gizonen dantza taldea sortu gura dute, jakinik gero eta gizon gutxiagok dantzatzeko dituztela euskal dantzak plazetan: "Gure kulturaren zati garrantzitsua delako eta guri dagokigulako ondare hau bizirik mantentzea". Hutsetik-dantza samurrenarekin- hastea da asmoa, giro ona nagusi dela. Interesatuak musika eskolara jo dezatela (943 08 10 01).

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Begira
argazkilaritza

ESTUDIOKO ARGAZKIETAN DESKONTUAK !!

ILARGI PLAZA 1, ARETXABALETA
www.fotobegira.com
tel: 943 53 49 45 - 637 26 26 86



Kuku Miku haurren garapenerako elkarteak pausoak ematen hasi da

Durana kaleko 30. zenbakiko lokala izango du topaleku irailetik aurrera

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak sortu dute herrian, haurren garapenerako elkarteak, eta lehen pausoak ematen dabil. 0 eta 6 urte arteko umeak dituzten gurasoen topagune izango da eta irailetik aurrera hasi da lanean bete-betean.

Hazkuntza taldea lanean

Ume txikiak zituzten hainbat guraso elkartu ziren orain urtebete inguru eta beharren gainean jardun: erreferentziatzeko gune baten falta; gurasoek elkarren artean egoteko beharra; hainbat gaien gaineko informazioa eta formazioa jasotzeko gogo... Eta behar horiei guztiei erantzun guran elkarteak sortu dute: "Gurasoen arteko elkarrekintza, gogoe-ta eta laguntza bultzatu gura ditugu; eta haurren hazkuntza eta hezkuntzari zein guraso izateari lotutako zalantzak eta gogoe-tak trukatzeko eta laguntzeko erreferentziatzeko bilgune bat sortu", diote kideek.

Hainbat lan talde sortzeko asmoa dute, jardura konkretuak egiteko batetik, eta jardura iraunkorrak, bestetik. Hain zuzen iraunkor horien artean dago azken



Kuku Miku elkarte inguruko gurasoak eta umeak, plazan. | KUKU MIKU ELKARTEA

hilabeteotan lanean dabilen hazkuntza taldea. 0 eta 3 urte arteko umeak dituzten 19 guraso (bi taldeetan banatuta) elkartzeko dira hilabetean behin doula batekin eta gai ezberdinak landu.

Bazkide izateko kanpaina

Irailean hasiko du lan jarduna Kuku Mikuk, eta bazkideetza kanpaina jarri abian. 0 eta 6 urte arteko umeak dituzten guraso guztiei egongo da zabalik. Uda-

larekin hitzarmena sinatu berri dute, gainera, eta lokala utzi diete: Durana kaleko 30. zenbakian dagoena -Zaindus gimnasioko jarduerena-. Lokal hori ez da izango ludoteka, ezta liburutegia ere, guraso eta umeendako topagunea baizik; eta ekintza ezberdinak egingo dituzte: berbaldiak, tailerrak... Elkarteak bera eta lokala ezagutzeko ate irekiak egingo dituzte irailean eta bazkide egiteko epea zabaldu.

Zast! kontzertuan gaur Orly tabernako terrazan

Arrutiko Intxaurrak eta Isuo Sasiia Zarauzko bakarlariak izango ditu lagun emanaldian

M.A. | ARETXABALETA

Zarauzko bi bakarlari lagun dituela dator gaur Orly tabernako terrazara (22:30) Zast! kontzertuan musikatua: Arrutiko Intxaurrak eta Isuo Sasiia.

Zast!-en bigarren kontzertua da etxean, urtarrileko estreinaldiaren ondoren, eta emanaldi berrituarekin datoz letrei eta musikari dagokienez: "Azken hilabetean bereziki koraltasuna lantzen aritu gara, taldekide bakoitzaren parte-hartzea aztertzen eta indartzen", diote.

Taldekideei dagokienez ere berritasunak dituzte: batetik, Eñaut Zubizarreta txelo-jotzai-

lea faltako da oraingoan -hurrengoetan jarraituko du-; eta bestetik, bigarren perkusio-jole bat sartu dute taldean, Iñaki Kortazar eskoriatzarra: "Bi perkusio-jolerekin indarra eta erritmoa eman dizkiogu ikuskizunari. Kortazarrek kaxoi flamenkoa jotzen du eta Martin Antxiak, bonbeta, platerak, txastona eta perkusioko beste musika tresna batzuk". Bi horiekin batera izango dira Maialen Arratibel (gitarra eta ahotsa), Leire Elustondo (pianoa eta ahotsa), Iñaki San Miguel (klarinetea) eta Beñat Zamalloa (narratzailea).

Loramendik antolatutako elkartearen arteko olinpiaden azken proba bihar: doke txapelketa

Bihar, zapatua, izango da elkartearen arteko olinpiaden azken proba, eta ondoren sariak banatuko dituzte. Doke txapelketa jokatu dute Basotxo aurrean dagoen zelaietan (17:30), eta ondoren merienda pasadatxoa egingo dute.

Doke txapelketarekin bukatuko dituzte olinpiadak; orain arte egindako probak izan dira: mus txapelketa; haragi-bola txapelketa; eta bolo txapelketa. Proba horietan puntu gehien eskuratutakoek sariak jasoko dituzte bihar.

Osasunagatik
Ingurugiroak
kezkatzeko gaituelako
Ongizate arrazoiengatik
Seme-alabengatik
Arrazoi ekonomikoengatik

Birziklatze tasak

Aretxabaleta

%32

atez ate
%83
Olartzun, Antzuola
Usurbil, Hernani,

Zabortegeira doana

Usurbil

%10

%68
errefusa

Aretxabaleta



ondo
egitera
goazz



Aretxabaletako
Udala

Yurre Romarateabala | Tepez kolektibokoa

"Aste Zapatistan alaitasuna eta denuntzia batzen ditugu"

A.T. | ESKORIATZA

Astelehena ezker Aste Zapatistaren 12. edizioa ospatzen dihardute Eskoriatzan, eta Yurre Romarateabalarekin izan gara orain arteko baloratzeko.

Zer moduz joan dira orain arteko ekitaldiak?

Maitasun, umore eta gizatasun handiagoarekin jendea beste mundu bat posible dela erakutsi nahi diogu. Badira 18 urte Txiapasera joaten naizela, eta dirua ere bidaltzen dugu. Bada, aste honetako ekintzekin kontzientzia sortu nahi dugu.

Zer moduz joan dira orain arteko ekitaldiak?

Nahiko ondo joan dira. Plaza dekoratu genuen, Mexikoko Puebla estatuan bizi diren indigenen hitzaldian 13 lagun egon ginen, auzolanari buruzkoan 12 elkartu ginen... Askotariko jendea etorri da eta orain arteko balorazioa ona da.

Domekara arte izango da jai, ezta?

Bai; zapatua izango da egun handia, eta herritarrek ekintzetan parte hartzea animatu nahi ditugu. Bazkarian, adibidez, janari mexikarra, menu begetarianoa eta mojitoa egongo dira. Hau guztion herria da, horrelako ekintzekin bertako eta kanpoko jendea nahastea nahi dugu, jende desberdina batera egotea. Hori guztia, alaitasun eta denuntzia ukituarekin.



Yurre Romarateabala. | IKORTAZAR

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

20:00 Autogestioaren hitzaldia.

ZAPATUA

12:00 Txupinazo zapatista.

12:30 Rosa Sanchez abeslariaren kontzertua.

13:00 Film laburra.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Perkusioa.

17:00 Erregea eta bufoia.

21:30 Kontzertuak.

DOMEKA

18:00 Ekialdeko dantzak.

Herriko hainbat txokotan kontzertuak, Errekan Gorarekin

Aurten Bolibar elizatera ere zabaldu dute ekimena; fadoa izango da hantxe

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Errekan Gora ekimenarekin kontzertuez gozatzeko aukera izango da uztailan Eskoriatzan.

Aurtengo Errekan Gora antolatzeke orduan, aurrekontua murriztu egin behar izan dute, baina, hala ere, egin duten ahaleginarekin aurreko urteetako emanaldi kopuru bera mantentzea lortu dute. Euskal Herriko talde eta bakarleri ugarik parte hartuko dute eta kontzertuak herriko hainbat lekutan izango dira, urtero moduan. "Iaz Apotzaga elizatera zabaldu genuen eta aurten Bolibar elizatera eramango dugu ekitaldi bat, eta, duela bi urte bezala, berriro eramango dugu ekitaldi bat Atxorrotz mendira", esan du Jose Luis Zubizarretak, Aitzorrotz kultura elkarte kideak.

Uztailaren 6tik aurrera

Uztailaren 6an emango diote hasiera Errekan Gora ekimenari eta Eskoriatzako oholtzetatik pasako dira Mikel Markez eta Erramun Martikorena, Tom Tom Makuts taldea, Mikel Urdangarin, Ventos de Saudade taldea eta Maite Franko ipuin kontalaria.

Kantaldi akustikoa

Ekimenari amaiera borobila emateko, uztailaren 28an Nafarroa Bizirik kantaldi akustikoa egingo dute Santa Marina plazan. Bertan izango dira Lauroba, Hesian eta Des-kontrol taldeko



Errekan Gora ekimenaren aurkezpeneko irudi bat. | A.T.

EGITARAUA

UZTAILAK 6

22:30 Mikel Markez eta Erramun Martikorena, Huheziko klaustroan.

UZTAILAK 13

22:30 Tom Tom Makuts taldea, Gernika plazan.

UZTAILAK 14

22:30 Mikel Urdangarin, Azkoaga Enea hotolean.

UZTAILAK 20

22:30 Ventos de Saudade, Bolibarren.

UZTAILAK 21

17:00 Maite Franko ipuin kontalaria, Atxorrotz mendian.

UZTAILAK 28

19:00 Nafarroa Bizirik kantaldi akustikoa, Santa Marina plazan.

Jendaurrean daude 2011ko udal kontuak eta kontabilitate egoera agiriak

A.T. | ESKORIATZA

Udaleko Kontu Hartzailletza Sailean ikusgai daude 2011ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitate egoera agiriak, baita 2011ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa ere, haren frogagirik eta kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera. Herritarren esku

ra daude, beraz, agiri horiek guztiak, eta nahi duten eskoriatzarrek agiri horiek azter ditzakete.

Gainera, egoki irizitako alegazio eta oharpenak aurkezteko aukera izango dute herritarrek Eskoriatzako Udaleko Sarrera Erregistroan, bulego orduetan.

Teleskori buruzko inkesta

Udalak Teleskori buruzko inkesta egin du azken egunotan Eskoriatzan. Horrela, herritarren iritzia jaso nahi izan dute, eta zerbizua aztertu eta baloratu egingo dute, ondoren erabaki bat hartzeko.



A.T.



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63



Itsaso Azkargorta jaiaren antolatzailea. | MAIDER ARREGI

EGITARAUA

ZAPATUA

11:00 Umeendako jolasak Zurrategi plazan.

13:00 Triki-poteoa.

14:30 Bazkaria. Ondoren, bertsolariak eta jokoak.

21:00 Kontzertuak eskolako patioan: Kilauea, Lukas Prest, Hank eta Gozo-gozorekin erromeria.

'... Ez dot moztuko bizarra!' eguna lehenengoz zapatuan

Taldea aditzera ematea da jai horren helburua; kamisetak jantzita joateko dei egin dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urte hasieran, eskubide zibil eta politikoen alde egiteko ... *Ez dot moztuko bizarra!* izeneko taldea sortu zuten herritar batzuek. Eta orain, herriari zabaltzeko, lehen aldiz, *Ez dot moztuko bizarra!* eguna antolatu dute. "Taldea herrira zabaltzea da jai honen helburua; zapatuan egingo dugu

lehen aldiz jai hau", azaldu digu Itsaso Azkargorta antolatzaileak.

"Herri osoarendako jaia antolatu gura izan dugu; Zurrategi plazan gaztettoendako eskulanak egongo dira eta helduxeagoek olinpiadak egingo dituzte goizean; ondoren, triki-poteoa eta bazkaria egingo dugu eta koadrilen

arteko jokoak. Eta, nola ez, giroa borobiltzeko bertsolariak eta gauean kontzertuak". Iñaki Apalategi eta Iñigo Izagirre bertsolariak girotuko dute bazkalostea; kontzertuetako sarrera hiru euro da.

Eta bazkarirako paella-jana antolatu dute. 100 sarreratik gora saldu dira eta eskolako patioan paella nola egiten duten ikusteko aukera izango da. Eta Azkargortari herrian zein giro sumatzen duten galdetuta, hauxe esan digu: "Gazteak inplikatu egin dira, eta jendea animatuta, ilusioz ikusten dugu. Denendako jaia antolatu dugu", dio antolatzaile gazteak.

Herrerara martxa

Herritar talde horren asmoen artean, irail aldera Herrerara martxa antolatzea dago. Izan ere, Eltzikorta preso antzuolarra hantxe dago.

Legazpiko gurutzera eginiko ibilaldiarekin pozik



Domekan Legazpiko gurutzeraino igo ziren hamar lagunak. | ARROLA MENDI TALDEA

M.A. | ANTZUOLA

Arrolak Udanatik Legazpiko gurutzerainoko irteera egin zuen domekan. Guztira, hamar lagunek egin zuten ibilbidea. Gurutzetik, Arrolatik bueltan, Antzuolara jaitsi ziren. Korosora iritsi aurretik zaparradak harrapatu arren, primeran ibili zirela kontatu digute antzuolarrek.

Pirinioetara irteera

Arrolak uztailearen 7an eta 8an egingo du irteera. Izena emateko: ekainaren 20an eta 25ean, Olaranen, 19:00etatik 19:30era edo aurrez 664 27 25 19 telefonora deituta. Prezioak: mendiko federatu aseguruia Fedme-rekin duten nagusiek 60euro eta gazteek 35. Fedme ez duten nagusiek 70 euro eta gazteek 40. Eta Arrolako bazkide ez denak 5 euro gehiago.

Udako kirol eskaintza berezia gimnasioan hilaren 18tik aurrera

M. A. | ANTZUOLA

Udan ere kirola egiteko zenbait aukera eskaintzen ditu gimnasioak: patinajea, kirol jolasak eta multijarduerak, gimnasia abdominal hipopresiboa eta pump tonifikazioa daude aukeren artean. Urtean egiten diren ekintzak ere badaude.

Ekainaren 18tik uztailearen 12ra bitartean, patinajea eta kirol jolasak eta multijarduerak

izango dira. Uztaile osoa aldiz, gimnasia abdominal hipopresiboa –astelehen eta eguaztetan 18:30– eta pump tonifikazioa –uztailearen 2an eta 4an doan izango da ate ireki moduan–.

Informazio gehiago duzue Antzuolako gimnasioan: Eguzkia auzoa 7 bajua. 943 76 66 61. antzuolakogimnasioa@gmail.com helbidera idatzita.



ERRAUSKAILUAREN AURKAKO HERRITAR TALDEA

Antzuola, Mosaiko Erraldoira

Donostian Mosaiko Erraldoia egingo dute, errauskailuaren aurka, hilaren 17an, domekan, 12:30ean. Antzuolatik 25 lagun inguru joango direla esan digute. Bestalde, antolatzaileak gustura daude, *Errausketari ateak ixten* dokumental emanaldian hamar lagun izan zirelako eta eztabaidarako tarte ere "interesgarria" izan zelako.



ANDONI BALERDI

Alebin eta benjaminen finalak

Giro politarekin eta frontoia jendez lepo, emozioz betetako partidurak jokatu ziren joan den barikuan. Benjamin mailan Alain eta Mikel izan ziren garaile (16 eta 12); alebin B mailan, Jounes eta Sakhir (16 eta 13); eta alebin A mailan Gorka eta Aimar (18 eta 15). Argazkian gaztetxoak agertzen dira Aitor Mendizabal pilotariarekin.

OHARRAK

ERRETIRATUEN IRTEERA

La Arboledara irteera egingo dute hilaren 20an. Bazkaria eta arratsalde-pasa Bilbon.

KINTOAK

1978an jaiotakoek bazkaria egingo dute Arinen hilaren 23an. Deitu 635 72 53 42 telefonora.

CHALLENGEA

Bizikleta challengea: Uzarragako igoera 12:00etan, zapatuan.

Begirale bat behar da uztaileko udaleku irekietarako

Uztailearen 2tik 12ra egingo dira Antzuolan udaleku irekiak, eta lanerako begirale bat behar da. Baldintza da euskaraz jakitea eta begirale titulua eta esperientzia izatea –esperientzia ziurtagiri bidez ziurtatuko da–. Izena emateko azken eguna astelehena da, 10:00etan, udaletxean edo www.antzuola.com webgunean.

Doluari aurre egiten laguntzeko hitzaldia martitzenean

Debagoieneko osasun pastoraltezik antolatuta, hilaren 19an, Kulturaten, hitzaldia izango da, 19:00etan. Izaskun Andonegi donostiarrak eskainiko du hitzaldia, eta doluari nola aurre egin izango da berbagai. "Dolminean daudenei laguntzea da helburua", azaldu digu Juanita Zabalok, pastoraltezik kideak.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Mikel Ruiz de Azua | San Martin jaietako kartel irabazlearen egilea

"Parte hartu, ekarpenak egin eta ederto pasatzeko dei egiten dut"


- Laugarrenez irabazi du kartel lehiaketa, eta horregatik "oso pozik" dago
- 'Mugitu, ziztatu eta gozatu' aukeratu du lelo; zapietan ere joango da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aurten ere Mikel Ruiz de Azuak (Aramaio, 1986) irabazi du San Martin jaietako kartel lehiaketa. Erlauntza irudikatu du, egun bakoitzeko ekitaldiaren bat nabarmenduz, eta *Mugitu, ziztatu eta gozatu!* aukeratu du aurtengo leloa. Aitortu digu nahi beste denbora dedikatu ezin izan duen arren, pozik dagoela Udalarari gustatu zaiolako.

Zorionak! Aurten ere irabazle?
Eskerrik asko! Oso pozik nago laugarren aldiz nik diseinatutako jaietarako kartela aukeratu izan delako. Irudia nirea izateaz gainera, jaietan lasai gastatzeko ere balioko du egindako ahaleginak. Aurten, ikasketak direla-eta, nahiko larri ibili naiz denboraz baina hala ere, tarte bat atera eta... aurten ere nire kartela! Lehiaketa ezberdinetan parte hartzeko ohitura dut eta batzuetan irabazten da eta beste batzuetan ez. Izan ere, parte hartu gabe ezin daiteke irabazi.

Iaz behiak eta aurten erleak. Obsesioa duzu animaliekin, ala?

Jende askok galdetu dit ea animaliekin obsesioa dudan baina kointzidentzia hutsa izan da. Berria egunkariaren *Eman zure ziztada* ekimenean inspiratu nintzen. Irudi hori oinarri hartuta kartela irudikatzen hasi nintzen eta erlauntzeko etxe edo hexago-



Mikel Ruiz de Azua aurtengo kartela eskuan, udaletxean. | MIKEL RUIZ DE AZUA

no bakoitzean Aramaioko jaietako egun bat irudikatzen duen ideia etorri zitzaidan.

Mugitu, ziztatu eta gozatu! da leloa. Nola bururatu zaizu?

Erleak geldu egon ezin diren animaliak dira eta jaietan mugitu eta parte hartzea bultzatu nahi dut jendea, erleak duten bizitasun hori aprobetxatuz. Ekintzetan parte hartu, norberak bere ekarpenak egin eta guztion artean ederto pasatzeko dei da leloa. Gainera, zapietan ere joango dela esan didate eta horregatik oso pozik nago.

Kanpoan egon zara azken urteetan. Beraz, aurten gogotsu, ezta?

Hiru urtez kanpoan ikasten egon naiz eta azterketa garaietan harrapatu naute jaiak. Aurten ikasketak bukatuta izango ditut eta gustura asko aprobetxatuko ditudala uste dut. Askotatik dira faltan herriko festak, oso ongi pasatzen dugu-eta!

Zerbait gaineratzerik nahi?

Jende dena animatu gura dut etortzera, ekintza ezberdinetan parte hartu eta denon artean ederto pasako dugulako.

Autoa gaizki aparkatzen dutenei "ohiturak aldatzea" eskatu die Udalak

Bizilagunek hainbat kexa jarri dituztenez, arazoa konpondu ezean neurriak hartu beharko dituzte

J.B. | ARAMAIO

Aramaion ere aparkatzearena arazo bihurtzean ari da. Ez da aparkaleku faltengatik, baizik eta zenbait herritarrek gaizki aparkatzeko ohitura dutelako. Hala dio Udalak atera duen idatziak: "Tamalez herritarrok gaizki aparkatzen jarraitzen dugu beste herritar batzuen kalterako: Bizente Goikoetxea plazan, Santa Kruz abadearen plazan, espaloietan... Honen inguruan kexak jaso ditugunez gogorarazten dizuegu ohitura txarrak zuzendu behar direla, bestela, neurri gogorrakoak hartuko beharko dira".

Ramon Ajuria alkateak dio bizilagunek hainbat kexa bidali dituztela azken hilabeteetan: "Herriko plaza eta inguruetak

bizilagunek adierazi digute egunero autoak daudela egon behar ez diren lekuan". Hala, horien haserreari buelta emateko abisua emango diete herritar guztiei: "Ohiturak aldarazteko abisua da baina arazoa ez bada konpontzen neurriak hartu beharko ditugu", dio Ajuriak. Neurri logikoa isunak dira eta horretarako eskumena Ertzaintzak dauka Aramaion.

Aguazila aukeratzeko dago

Jakina da Udalak aguazila jarri gura duela. Hamar hautagai daude eta epaimahaia aukeraketa prozesuan dabil. Aguazil horrek ez luke isunak jartzeko eskumenik izango baina Ertzaintzari abisua pasatzea litzake bere betebeharrak.



Auto bat, aparkatzea debekatuta dagoen lekuan. | JOKIN BEREZIARTUA



ARAMAIOKO UDALA

Axpe eta Errasti txapelak

Arrasateko pilota taldeak gonbidatuta, Aramaioko bikotea izan da txapelak Debarroko eskola arteko pilota txapelketako alebin B mailan. Ekainaren 9an Oñatin jokatu zen finalean, Julen Errasti eta Mikel Axpe izan ziren irabazleak, Arrasateko bikoteari irabazi ostean. Lehiakortasuna ahaztu eta ikasi zein parte hartzea da helburua. Argazkian, Fernando Errasti eta Xabier Herrarte entrenatzaileekin ageri dira protagonistak.

Amsogra erakundeak Nikaraguan egindako lanaren erakusketa

Amsogra gobernuz kanpoko erakundeak duela 12 urte Nikaraguan abiatutako proiektuaren gaineko erakusketa jarriko du Udalak Sastiñan. Ekainaren 21ean irekiko dute erakusketa, hitzaldi baten bidez, 19:00etan. Iñaki Agiriano eta Ima Escribano Amsogra erakundeak kideen bidez antolatuta dute eta eurak izango dira erakusketa irekiko duten eguneko proiektua zertan datzan azalduko dutenak. Izan ere, iaz lehen aldiz Aramaioko Udalak diruz lagundu zuen Amsogra erakundearen proiektua eta horri esker familia batek etxe propioa izatea lortu zuen. Orain bigarren faseari ekingo diote.

Argazkiez osatutako erakusketa da batez ere, eta inaugurazioaren egunaz aparte, hilaren 22an -18:00etatik 20:00etara-, 23an eta 24an -12:00etatik 14:00etara- ere egongo da zabalik.

Goi mailako musikariz osatutako Jazz Corner taldea gaur Sastiñan

J.B. | ARAMAIO

Udaleko Kultura Sailak ekaineko egubakoitzak musikatze-ko erabakia hartu du aurten ere. Gaur Gasteizko Jazz Corner taldeak joko du Sastiñan, 20:00etan. Lau musikariz osatzen dute taldea: bateria, pianoa, baxua eta saxoa. Javier Lekuona taldekideak adierazi duenez, adin guztiendako kontzertua izango da eta jazzaren inguruan mugitzen diren hainbat estilo

jorratuko dituzte: bluesa, swinga eta doinu latindarrak, besteak beste: "Gustura entzuteko saioa izango da, ezer martzianoa izan barik", adierazi du Lekuonak.

Eskarmentu handiko musikariak dira; Lekuona bera, esaterako, 20 urtez aritu da musika irakasle lanetan. Oraindik ez dute diskorik grabatu, baina asmoa dute laster estudioan sartzeko. "Pozik" eta "gogotsu" daude kontzerturako.



Gasteizko Jazz Corner taldea. | GOIENA

ELGETA

Murrizketak aurreikusten dira Herri Eskolan eta Haurreskolan

Eskolako umeek gaur, barikua, egingo dute ikasturte amaierako ikuskizuna

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailaren jakinarazpenak jasotzen ditu taldeak antolatzeko irizpideak, eta dokumentu horren arabera 2012-2013 ikasturtean Elgetako Herriko eskolak 1,63 irakasle gutxiago izango ditu. Irakasleak, berriz, bost bat gehiago izango dira, izan ere, 11 eskolaratze berri aurreikusten dira irailean bi urteko gelan.

Unitate bat gutxiago

Irakasle bat eta erdi gutxiagorekin egokitzapenak egin behar dituzte ikastetxean, eta ikasturte honetan lehenengo aldiz banandutako Lehen eta Bigarren mailak talde bakarra izatera itzuliko dira. Hala, irailetik aurrera 22 ikasle osatuko dute talde hori; lehen mailako zazpi ikasle, eta bigarren mailako hamabost ikasle.

Hezkuntza Sailak, bestetik, kendu egin du Elgetako Herri Eskolako musika irakasle postua. Hala, orain arte funtzio hori bete duen Arantxa Esparzak Lehen Hezkuntzako irakasle lanak egingo ditu datorren ikasturtean. Ikastetxetik ahalegin handia egin



Eskola-umeeak atzo gaur 15:00etan egingo dute ikuskizuna prestatzen. | L.Z.

dute datorren ikasturtean musika eskolekin jarraitzeko, eta topatu dute irtenbide bat. Hezkuntza Sailak, bestetik, mantendu egin du aholkulari postua.

Jangela garestia

Eta jangela zerbitzua 0,60 zentimo garestia izango da hurrengo ikasturtean. Ohiko erabiltzaileek 4,60 euro ordainduko dute otorduko, eta ez ohiko erabiltzaileek 5,20 euro. Interesatuak zerbitzua eskara berritu behar dute.

Murrizketak Haurreskolan ere

Elgetako haurreskolan ere murrizketak aurreikusten dira. Bi plaza finkoetatik bat kendu egin dute, eta Eneritz Vazquezek ez du datorren ikasturtean Elgetan jarraituko. Bere ordez plaza finkoa ez duen langile bat ariko da herriko haurreskolan; ikasturte ikasturtera aldatzen joan daitekeen hezitzailea, alegia. Uneotan haurreskolak bederzati erabiltzaile ditu, eta irail hasierarako zazpi espero dituzte.

Ferixa Nagusiko jaien aurrekontua: 23.435 euro

L.Z. | ELGETA

Gastua inoiz baino gehiago zaindu behar den honetan, Jaien Batzordeak 23.435 euroko aurrekontua duten jaiak prestatu ditu. Aurreikusitako gastua 29.036 eurokoa da, baina Batzordeak sarrerak ere espero ditu; paellako txartelek 2.800 euro, erretiratu bazkaritik 1.000 euro, errifa salmentatik 1.600 euro, eta Kutxaren dirulaguntzatik 200 euro. Aurrekontua betez gero Udalak aurten iaz baino 15.000 euro gutxiago gastatuko ditu. Zentzu horretan salgai daude hainbat txartel; barikuko afarikoa 25 euro da, umeen bazkarikoa sei euro, erretiratu bazkarikoa hamar euro, eta paella eguneko lau euro. Bestalde, gaztetxeko eta jaietako errifak ere eskuragarri daude euro baten truke.

JAIEN AURREKONTUA

GASTU NAGUSIAK

Ferixia	6.346	Iragarkiak	526
Musika taldeak	5.900	Zezenuzkoa, suzirriak	500
Herri bazkaria	4.160	Garraioak	500
Kale garbiketa	3.755	Argindarra	400
Haur jolasak, bazkaria...	2.447	Asto karrera	309
Erretiratu enkitaldiak	2.100	Hainbat material	147
Zezenak	1.751	Hasierako brindisa	120
		Bolo txapelketa	75
		GUZTIRA	29.036

LEINTZ GATZAGA

35. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa uztailearen lean izango da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Krisiak krisi Gatzagako txirrindulari batzordeak txirrindulari lasterketa antolatzen jarraitu gura du, eta hainbat babesleri eta Udalarari esker aurten ere egingo dute, uztailearen lean hain zuzen. 35. Dorletako Ama txirrindulari lasterketak 100 txirrindularitik gora ekarriko ditu herrira.

"Lasterketa honen eta irailean Andramari jaietan egiten den mendi bizikleta ibilaldiaren antolakuntzak 6.000 bat euroko aurrekontua dauka. Aurrekontu potoloa da herri txiki batendako baina diruz laguntzen duten hainbat babesleri eta Udalarari esker aurrera egitea lortu dugu aurten ere", dio pozik Jose Inazio Belo-

ki batzordeko kideak. Eta gaineratu du: "Debagoiengan oso herri gutxitan antolatzen dira halako lasterketak, eta badakigu urteren baten huts egiten badugu zaila izango dela berriro horri heletzea".

Ekainaren 21ean batzarra izango du txirrindulari batzordeak lasterketari dagozkion azken kontuak lotzeko. Egunean bertan 30 bat lagun ibiliko dira lanean arazorik izan ez dadin errepideetan, "horretarako boluntario faltarik ez daukagu", dio Belokik.

Azken egunak uztaileko udalekuetan izena emateko

L.Z. | ELGETA

Gaur, barikua, amaitzen da uztaileko udalekuetan izena emateko epea. Lerrook idazteko orduan 30 lagunetik gora zeuden izena emanda, baina Udalak azken orduko izen-emate gehiago espero ditu.

Uztailearen 2tik 27ra egingo ditu aurten Udalak uztaileko udalekuak, 09:00etatik 13:00etara, eta zerbitzua Haur eta Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta dago.

Hil osorako kuota, aurten ere, 90 euro da; hiru asterako 70 euro; bi asterako 55 euro; eta astebeterako 30 euro. Familia bereko ume bat baino gehiago badago, hobariak

daude. Bigarren umeari, esaterako, %20ko deskontua. Interesatuak ordainketa egin behar dute, eta agiria udaletxera eraman.

Begiraleak behar dira

Udalak, bestalde, begiraleak behar ditu udalekuotarako. 18 urtetik gorako euskal hiztuna izatea ezinbestekoa da. Gainera, euskara maila eta esperientzia baloratuko dira, eta hautagai guztiek azterketa bat egin beharoko dute. Udalak 850 euroko soldata gordina eskaintzen du. Lan ordutegia 08:30etik 13:30era izango da. Gaur da izena emateko azken eguna.

Elgetako ezker abertzaleak herri batzarra deitu du gaurko, barikua; 19:30ean hasiko da, udaletxean

Sortu sortzen izenburupean deitu du herri batzarra Elgetako ezker abertzaleak. Batzarrean hiru puntu nagusi izango dituzte aztergai; izan ere, gaien zerrendan agertzen dira Sortu eztabaida prozesua, gazte erakundearen hausnarketa eta hauteskundeak. Deialdi irekia da. Interesatuak gaur dute hitzordua, 19:30ean, Elgetako udaletxean.

Umeen Eguna egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean; 10:00etan elkartuko dira plazan

Egun osoko egitaraua prestatu dute gaztetxekoek biharko. Jokoak, tailerrak, lagunarteko bazkaria... ekitaldi ugari prestatu dituzte aurten berreskuratu duten Umeen Egunerako, eta zer gozatua izango dute 3-12 urte bitarteko neska-mutikoei. Gomendioa da umeei zikintzeko ardurarik ez duen arropak janzea.

Espainiako Kopako Haria Extreme proba jokatu du bihar, zapatua, Oihana Kortazarrek

Lanzaroten jokatu dute bihar, zapatua, Haria Extrema mendi lasterketa. 32,5 kilometro eta 1.450 metroko desnibela ditu, eta Espainiako Kopako bigarren proba da. Apirilean jokatu zuten Kopako lehenengo proba, Cuencan, eta Oihana Kortazarrek irabazi zuen elite mailako emakumezkoetan. Bihar, hortaz, Espainiako Kopako lehen postua defendatzera irtengo da Kortazar.

Domekan 10:00etan abiatuko da Intxortako gerra-gunera bisita gidatua egiteko irteera

Gutxienez, 12 laguneko taldeentzako dira bisitok, eta ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea 943 71 89 11 telefono zenbakian. Hiru ordu eta erdiko iraupena du bisitak, eta prezioa da bi euro 6-16 urte artekoendako eta bost euro 16 urtetik gorakoendako.

Beteranoen partiduek hasiko dute etzi pilota jardunaldia

Dorleta pilota txapelketako finalerdiak izango dira domekan pilotalekuan. Gatzagako beteranoek hasiko dute jardunaldia (09:30); Aizpuruk eta Bengoak Oñatiko Arambururen eta Romanateren kontra jokatu dute. Eta, horren ondoren, Zaramagak (Gasteiz) Eskoriatzaren aurka jokatu dute.

Dinamizatzailea izango da astelehenean KZgunean

Datorren astelehenean, ekainak 18, Aitor Madrid dinamizatzailea izango da KZgunean (09:00-13:00). Herritarrek Interneten gainean dituzten zalantzak argitu eta hainbat ikastaro egiteko gertu etorriko da; tartean, sare sozialen eta Googlek eskaintzen dituen tresnen gaineak. Hil honetan ez da etorriko gehiago.



Iazko txapelketaren une bat, San Martin plazako kantxan. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

"Saskibaloiaz gozatzeko aitzakia da torneo hau"

Gaur bertan ekarriko dituzte Donostiatik plazan jarriko dituzten saskiak

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bergara Saskibaloia Elkarteko ordezkariak eguraldi iragarpenei begira igaro dute astea: "Bero izugarria edo hotz galanta, berdin zait, baina ez dezala euririk bota!", adierazi digu aste barruan Marian Melladok. Gaur bertan hasiko dituzte hiruko torneo barruko ekitaldiak, 19:00etan emango duten filmarekin. Lehenago, baina, 17:15ean hasita, ate irekien saskibaloia jardunaldiak egingo dituzte Mariaren Lagundian. Hala, 2000. eta 2003. urte bitartean jaiotako gazteendako jolasak antolatu dituzte.

Bihar, berriz, 08:00etan hasita, San Martin plazan kantxak prestatzen hasiko dira: saskiak, markaketa lanak, publizitate hesiak...: "Baina eguraldi txarragatik torneoa Labegaraietan egin behar badugu, emaitza ez da bera izango".

Saskibaloia jai

Soraluce sariko hiruko torneoo bailarako saskibaloia-zaleendako derrigorrezko hitzordu bilakatu da: "Bosgarren edizioa izango da. Azken bi urteotan 80 talde ingu-

HIRUKO TORNEOA, EGITARAUA**EKAINAK 15, EGUBAKOITZA**

19:00 *Like Mike* filma, Zabalotegi aretoan. 2002ko filma da, saskibaloia jokalaririk izan nahi duen 14 urteko gaztetxoaren istorioa. NBAko izarrak irteten dira filmean.

EKAINAK 16, ZAPATUA

10:00 Hiruko saskibaloia txapelketa San Martin plazan. Juniorrak eta kadeteak.

16:00 Hiruko saskibaloia txapelketa San Martin plazan. Senior elite eta Debagoieneko seniorrak.

21:30 Afarria San Martin plazan.

Egun osoan Puzgarriak Munibe plazan.

EKAINAK 17, DOMEKA

10:00 Hiruko saskibaloia txapelketa San Martin plazan. Infantilak, alebinak eta seniorrak.

Egun osoan Puzgarriak Munibe plazan.

12:30 Udala Musika Bandaren kalejira eta kontzertua Espolotan.

ru batu dira (iaz 82), eta zenbaterako polita dela uste dugu. Hain zuzen, talde gehiago genituelako azken urteotan zapatu goizean ere partiduak jarri behar izan ditugu. Hala, Bergarako taldeko gurasoak buru-belarri ibiliko dira asteburuan: "Lan guztiak

banatuta ditugu. Saskibaloiaz gozatzeko aitzakia baino ez da torneo hau, batez ere gaztetxoenei begira. Gure kluba ezagutarazteko, saskibaloia herrira gerturatzeko eta herriarendako ekimen bat antolatzeko egiten dugu hau guztia".


TXIRRINDULARITZA

Irizar: "Domekan jakingo dut Tourrera noan edo ez"

X.U. | ARRASATE

Markel Irizarrek Pirinioetarako bidea hartuko du egunotan Zubeldiarekin batera, Tourreko mendateak bertatik bertara erreparatzera: "Aukeratzeko ez banaute, muturrekoa hartuko dut, baina ze egingo diogu...".

Ondo daki Oñatikoak RadioShack Nissan Trek moduko talde batean Tourrerako aukeratua izatea ze zaila den: "Oso jende ona geratuko da kanpoan, Horner ez doa [Andy Schleck-ek aste barruan esan du ez doala; lesionatuta dago], eta iaz baino zailago badago ere badut esperantza. Dauphinen maila ona erakutsi dut, eta ondo iritsiko nintzateke lasterketara, gustura nabil. Nik uste dut Johanek [Bruyneel] ere zalantza mordoa dituela bederatzik hori aukeratzeko".



Markel Irizar.

Bestela, Austriara

Suitzako Itzulia amaitzeaz batera jakingo du Tourrean izango den edo ez: "Domekan jakingo dugu, baina prest nago edozein erantzun jasotzeko. Tourrera ez banoa, Austriara joateko eskaera egin dut". Begiz jo du hango erlojupekoa.

FUTBOLA

Antzuolako beterranoek Xabier Barkeroren omenezko lagunartekoa jokatu dute bihar Urolaren kontra

Dagoeneko hamabi urte igaro dira Xabier Barkeroren hil zela, baina haren taldekide izandakoek ondo gogoan dute antzuolarra. Hala, bihar, zapatua, 16:30ean hasita, Antzuolako beterranoek lagunarteko partidua jokatu dute; orainoan, Urolako beterranoen kontra. 2010ean Eibarko beterranoen kontra jokatu zuten, eta iaz hiruko torneo antolatu zuten Mondrako eta Bergarako beterranoekin batera.

IGERIKETA ETA ESKUBALOIA

Corpus jaien barruan, igeriketako 27. Txantxiku saria eta eskubaloia txapelketa bihar Oñatin

Corpus jaien barruan kirol hitzordu bi izango dira asteburuan Oñatin: batetik, Zubikoako igerilekuan neska-mutiko mordoa batuko dira zapatuan (15:30) 27. Txantxiku sarian parte hartzeko; bestetik, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako eskubaloia selekzioak izango dira bihar, goiz eta arratsalde, Corpusetako txapelketan esku hartzen. 09:30ean hasita kanporaketak jokatu dituzte eta arratsaldean finalak izango dira.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoako gimnastek denboraldi amaierako jai eta Dragoiokoen sanjuanetako erakustaldia asteburuan

Oraingo asteburuan gimnasia erritmikoko erakustaldiak egingo dituzte Bergaran (egubakoitzean) eta Arrasaten (domekan): batetik, Ariznoako gimnastek denboraldi amaierako jai egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etan hasita, Labegaraietako kiroldegian. Domekan, berriz, San Juan jaietako urteroko hitzorduari helduz, Arrasateko Dragoi Gimnasia Taldeko ordezkariak erakustaldia egingo dute Uarkapen, 11:00etan hasita. Hala, bi klubetako ordezkariak denboraldi amaierako sasoi ona erakutsi ahal izango dute erakustaldiotan.

Deitu eta lortu sarrerak!
943 25 05 05

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

2012-06
20

GASTEIZ
20.00
Guridi zinema

hala bedi
ERRATIA

Jon Maiaren dokumentala

IKUSLEA HISTORIAREN PROTAGONISTA
BIDURIZEN DUEN DOKUMENTALA

**GAZTA
ZATI BAT**
"A PEACE OF CHEESE"





Iazko lasterketako irteera momentua; Ludivine Loze izan zen emakumezko azkarrena. | JOSETXO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA

Emakumezko azkarrenak batuko ditu Osintxun jokatu duten Kopak

Soraluce sariak 150 ziklista baino gehiago batuko ditu bihar irteera puntuan

XABIER URTZELAI | BERGARA

Lokatzak emakumezkoen ziklistamoa bultzatzeko ahaleginean segitzen du, eta biharko hitzordua indartsu dator, puntako txirrindulariak batuko dira-eta

Osintxun egingo duten Soraluce sarian, Espainiako Koparako puntuagarria izango den lasterketan. Antolatzaileek 150 txirrindulari baino gehiago espero dituzte irteera puntuan, eta,

astebete geratzen denez Espainiako txapelketarako, ziklistak gorputzaldi onean etorriko dira Osintxuko hitzordurako.

Dagoeneko Espainiako hainbat taldek baieztatu dute bihar

Osintxuko irteera puntuan izango direla: Murtziatik, Valentziatik, Kantabriatik, Madrildik... Eta haiekin batera, noski, euskal taldeak lehiatuko dira; tartean, UCI mailako taldeak diren Lointek, Bizkaia-Durango eta Debarrena. Eta kontuan hartu behar da talde horietan ziklista euskaldunekin batera kanpotarrek ere korritzen dutela (errusiarrak, frantziarrak, luxenburgoarrak...).

Kanpotarrek, baina, ez diete ziklista euskaldunei itzalik egingo: Eider Merino (Espainiako txapeladuna), Lourdes Oiarbide (Espainiako erlojuaren kontrako txapeladuna), Irene Usabiaga (Europako txapeladuna), Leire Olaberria, eta abar izango dira. Eta haiekin batera lehiatuko da Osintxun irabaztea zer den dakien Sheyla Gutierrez errioxarra; iaz munduko txapelketan 6. postua eskratu zuen hark.

Hiru kategoria

Lasterketa hiru maila ezberdinetako ziklistendako izango da: kadeteak (31 kilometro), gazte mailakoak (62 kilometro) eta elite mailakoak (92 kilometro), hain zuzen ere.

Kadeteak 15:00etan irtengo dira, eta aparte egingo dute lasterketa (Zubillagara joan-etorri bat). Aparte diogu, elitekoak 16:15ean irtengo direlako eta Zubillagara joan-etorri bat egin ostean gazte mailakoak batuko zaizkielako, Zubillagara beste bitzuli egiteko.

ATLETISMOA

Aloña Gipuzkoako txapelketan hirugarren sailkatu da, taldeka

Aloña Mendiko atletismo sailleko atletak hirugarren sailkatu dira Gipuzkoako txapelketan, maila absolutuan. Eta ez da marka txarra, txapelketa horretan lehenengoz parte hartzen dutela jakinda. Lehia horretan parte hartu gura duen klubak atletismo barruko 20 modalitate ezberdinetan aurkeztu behar ditu atletak, eta ez da erronka makala, oñatiarrek ohituta ez dauden distantzietan korritu behar izan dute-eta. Hala, guztira, hamar domina batu dituzte.

TRIATLOIA

Antxintxikako neskak Euskadiko txapeladun Zarautzen

Jokatu berri den Zarauzko triatloia Euskadiko doble olinpiarreko txapelketa ere izan da, eta Antxintxikako neskak gailendu ziren -gainera, taldeko hamasei atleta egon ziren proban-. Horrekin batera, Ander Agirrek Euskadiko duatloi zirkuitua irabazi du eta Mikel Muxika izan da 23 urtez azpikoetan onena. Bestalde, taldetik baieztatu dute Antxintxika krosa azaroaren 3an egingo dutela, eta Euskal Herriko txapelketa izango dela.

AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus 2012 Diesela KM 0	18.500 €
• Ford Focus 2012 Diesela KM 0	17.500 €
• Ford Transit 2012 Diesela KM 0	21.700 €
• Ford Fiesta 1.3 70 2008 Gasolina	6.300 €
• Ford Focus TDCI 110 2011 Diesela	12.500 €
• Citroën Picasso TD 92 ZP 2007	7.800 €
• Ford Mondeo Tdci 130 ZP 2007	7.900 €
• Ford Kuga tdci 140 zp 2012 Diesela 0 km	24.800 €
• Toyota Land Cruiser Td 3 ate 125 zp 2000 Diesela	7.800 €
• Ford Galaxy tdci 140 zp Diesela 0 km	29.500 €



16.450 €

> Megane Spor Tourer 130
2010 | Diesela | 26.000 km | Berde met.

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

MERKEALDIAK

24 hilabete arte duen edozein aukerazko ibilgailu: %0ra finantzatu

Fluence 105 2009 Diesela 14.000 km Granatea	15.000 €
Megane coupe 130 2009 Diesela 15.000 km Urdina	15.000 €
Gran Scenic 130 2012 Diesela 0 km Grisa	21.000 €
Scenic 130 2009 Gasolina 12.000 km Grisa	14.000 €
Scenic 110 2011 Diesela 5.600 km Urdina	17.850 €
Kangoo 70 2010 Diesela 8.000 km Txuria	11.000 €
Kangoo 90 2011 Diesela 0 km Marroia	16.250 €
Latitude 150 2011 Diesela 19.000 km Urdina	18.950 €
Megane II 2007 Diesela 142.000 km Beltza	6.500 €



29.500 €

> CITROËN DS5 20Hdi STYLE 160
2012 | Diesela | 3.750 | Philae urdina

CHAPIME

Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

San andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

CITROËN Berlingo Com. 1.6HDI 90 SXMult. 2011 Diesela 13.325 Azul claro	13.500 €
CITROËN C3 1.4HDI Furio 2006 Diesela 85.000 Beltza	4.900 €
CITROËN C3 1.4Hdi Attraction 2011 Diesela 15.500 Gris argia	10.000 €
CITROËN C4 1.6HDI Cool 110 FAP 2010 Diesela 48.000 Beltza	10.000 €
CITROËN C4 6.Picasso 1.6HDI SX CMP 2011 Diesela 37.185 Urdin iluna	17.250 €
CITROËN C5 2.0HDI Business 2010 Diesela 36.000 Gris argia	16.000 €
CITROËN Jumpy Combi HDI 120 8/9p 2011 Diesela 28.715 Zuria	15.700 €
CITROËN DS3 eHdi SPECIAL EDITION 90 zaldi 2012 Diesela 1.750 Zuria/Zabai beltza	17.200 €
CITROËN DS4 1.6e-HDI Design STT 2011 Diesela 3.000 Urdin iluna	20.000 €
CITROËN Berlingo Com. 1.6HDI 110 SX Multispace 2010 Diesela 30.006 Gris iluna	13.800 €

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otarora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA

Film europarrak ikusgai Arrasaten, Zineuskadi ekimenari esker

- ▶ Udazkenean, Lux sarietan azken hiru urteetan saritutako filmak ekarriko dituzte
- ▶ Garai berrietara egokitzeko, digitalizaziora jauzi egin dute Arrasaten eta Oñatin

USOA AGIRRE | ARRASATE

Hamabost zinek osatzen dute dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako eta hurbileko aretoen sarea, Zineuskadi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatuta. Sare horretan sartu da aurten Arrasateko Udala ere. Zineuskadik sarean diren aretoei zenbait aukera eskaintzen dizkie kalitate oneko Europako zinemaren zirkulazioa handitzeko, jatorrizko bertsoia sustatzeko eta euskaraz egindako zinema hobetzeko Zinema Euskaraz programaren bidez.

Horrez gain, topaketarako gune bat ere bada Zineuskadi, eta horixe bera azpimarratu digu Jon Garaik, Arrasateko Udaleko Kultura teknikariak: "Oraindik egiteko dagoen bidea da, baina sare honetan elkarrekin aritzeak indartu egiten gaitu. Informaziorako eta elkartruckerako gune bat da, eta Europar dauden esperientziak gertutik ezagutzeko aukera ere ematen digu". Izan ere, Zineuskadiri esker Europa Cinemas izeneko programara ere gehitu ahal izan da Arrasateko Udala eta Garai seguru dago fruitu onak emango dituela horrek.

Urrian, lehen fruituak

Sarean dauden zineen arazoak aztertu eta plan estrategiko bat egingo du Zineuskadik eta, horretaz gain, programazioari, komunikazioari eta promozioari dagoz-

kion zenbait ekintza burutuko dituzte sareko guztien artean. Horren lehenengo emaitza ikusi ahal izango da udazkenean, Lux sarietan azken hiru urteetan irabazle izan diren filmak emango baitituzte orduan. Europar Parlamentuak ematen ditu sari horiek, gizarte eta politika arazoak lantzen dituzten eta europar identitate sendoago bat sortzen laguntzen dituzten filmentzat.

Udazkenean, beraz, Lux sarietako azken hiru edizioetan irabazle izan diren hauek ikusi ahal izango ditugu Arrasateko Amaia antzokian: *Las nieves del Kilimanjaro*, Robert Guédiguianena (2011), *La extraña*, Feo Aladagena (2010) eta *Welcome*, Philippe Lioretana (2009).

Garai berrietara egokitzen

2003an Alai zinema itxi eta 2004an hasi zen Arrasateko Udala zine komertziala eskaintzen Amaia antzokian. Jon Garaik kontatu digunez, orduan udaleko kultura arduradunek "garbi" ikusi zuten herriko zine eskaintzari eutsi behar zitzaioela, baina "beti ere kultura alderdia ahaztu barik". Harrezkero, zine komertziala (heldu eta umeendako) eta zineklubeko bestelako zinea eskaini dituzte Arrasaten.

Azken bi urteetan ere aldatu egin behar izan dituzte zinemetan. Izan ere, 35 mm-ko formatua atzera laga eta geroze-



Las nieves del Kilimanjaro, 2011ko sariduna. | GOIENA



Lux sarietako logoa. | GOIENA



La extraña, 2010eko film irabazlea. | GOIENA



Welcome, 2009ko sariduna. | GOIENA

Ikusle kopurua mantendu egin da

Zine denboraldia bukatuta, aurtengoaren balorazio positiboa egin digute Arrasateko, Oñatiko eta Aretxabaletako kultura teknikariek. Arrasaten, adibidez, 14.662 ikusle izan ziren 2010ean, 5.731 umeen eskaintzan eta 8.931 helduenean. 2011n behera egin zuen pixka bat, zenbait astez itxita egon zelako Amaia Udal Antzokia lanen ondorioz, baina kopuru ona lortu zen orduan ere: 11.293 ikusle, 4.684 umeendako filmak ikusten eta 6.609 helduenean. Aurten, berriz, lehenengo seihilekoan dagoeneko 11.537 ikus-entzule izan dira Amaia antzokian, 4.140 umeen filmetan eta 7.397 helduenean. 3D sistema jarri izana ere ontzat hartu dute arrasatearrek, 2.567 ikusle izan baitira filmak modu horretara ikusten.

Oñatin ere azken bost denboraldietan ikusle kopurua mantendu egin du: 10.000 eta 12.000 ikusle bitartean izaten dira denboraldi bakoitzean.

Aretxabaletan ere azken urteotako ikusle kopurua mantendu egin da; umeendako eskaintzen diren filmek izaten dute han arrakasta handiena.

ESANAK

"Zineuskadin egoteak indartu egingo du eskaintza"

JON GARAI | KULTURA TEKNIKARIA

Digitalizaziora salto egin dute

Arrasateko eta Oñatiko zine aretoetan urrats garrantzitsua eman dute aurten teknologia berrien alorrean. Izan ere, ekipamendu digitala erosi dute bi udalek, eta, horri esker, filmak ez ezik, beste era bateko ikuskizunak ere ikusi ahal izango dira antzokiko pantaila handian.

Geroz eta film gehiago estreinatzen dira digitalean, eta horregatik egin dute bi herrietako antzokietan aldaketa hori.

ta gehiago dira formatu digitalean estreinatzen diren filmak. Horregatik, digitalizatu egin behar izan dituzte zenbait zine, tartean Arrasateko Amaia Udal Antzokia eta Oñatiko kultur etxekoa.

German Meabebasterretxea Oñatiko Udaleko Kultura teknikariak esan digunez, zenbait abantaila ditu sistema digitalak: "Makina berriak posible egiten du filmak hiriburukoekin batera estreinatzea, beti ere banatzaileak nahi badu. Horretaz gain, zuzeneko ikuskizunak programatzeko aukera ere badago: opera, futbol partiduak... Hori oraindik baloratzen daukagu udalean, baina beti zineari emango diogu lehentasuna".

Ibarreko zinematik garai berrietara egokitzen ari dira, ikus-entzuleei ahalik eta eskaintza ona eman ahal izateko. Denboraldia bukatu berri da orain eta datorren ikasturtera begira jaritzeko unea iritsi zaie.

'Mapas para una nación' liburuan oinarritutako erakusketa Kulturaten

Euskal Herriko mapak Kulturaten izango dira ikusgai hilaren 22ra arte

JAIONE CARPINTERO | ARRASATE

Euskal Herria en la cartografía y en los testimonios históricos izeneko erakusketa dagoeneko ikusgai dago Kulturateko klausuroan, hilaren 22ra arte.

Euskal Herria eta mapak; bi kontzeptu horiek izango dira erakusketaren protagonistak. *Mapas para una nación* liburuan oinarritutako erakusketa da, eta bertan, panel ezberdinen bitartez liburuan bildutakoa laburbiltzen da. "Euskal Herria kontzeptua zer izan den jakiteko da erakusketa, betiere mapagintza eta testigantza historikoetan oinarriturik", adierazi du Jose Mari Espartza antolatzaileak.

Bertan, XVI. mendetik aurrerako mapak daude; hala ere, gehienak XIX. mendeak dira. 50 mapa inguruk osatzen dute bilduma; izan ere, garai hartan bi urtean behin kaleratzen ziren mapa berriak.



Kulturaten ikusgai dagoen Euskal Herriko mapen erakusketa. | JAIONE CARPINTERO

Hiru zutabetako erakusketa

Kulturaten ikusgai dagoen erakusketa hori hiru zutabe ezberdinetan banatzen da: lehenengo zutabeak mapak biltzen ditu, eta hori da erakusketako zutaberik garrantzitsuena; bigarrenak

mapen fitzak biltzen ditu, alegia, mapa horiek zein artxibotatik jasotakoak diren erakusten digu; eta hirugarren zutabeak ahozko kartografia dago; bertan, mendeetan zehar Euskal Herriari buruzko pertsonaia ezberdinek

emandako testigantzak daude jasota.

Honela dio Espartzak: "Nik uste dut hiru elementu hauek nahasirik oso efektu polita sortzen dela, eta nik uste dut jendeari gustatu egingo zaiola".

Jon Maia | 'Gazta zati bat' dokumentaleko zuzendaria

"Gazta jateko desiratzen irteten dira; Arrasaten ere postua hustu zuten"

250 lagunetik gora bildu ziren martitzenean 'Gazta zati bat' dokumentalaren aurkezpenean

J.C | ARRASATE

Maiatzaren 10a ezker Euskal Herriko antzoki eta zinemetan ikusgai dagoen dokumentala guregana heldu da. Martitzenean Arrasaten izan zen eta 20an, berriz, Oñatin izango da. Jon Maia zuzendaria aurkezpen lanetan ibili zen.

Zer moduz ateraz zen?

Egon zen jendea galdetzea izango litzateke hoberena; egia esan, ni dagoeneko ez naiz oso objektiboa. Hala ere, oso pozik egon ginela esan behar dut. 250 lagunetik gora bildu ginen, eta filmean zehar jendea barrez ikusi genuen, hunkituta zenbait momentutan... azkenean, guztiak oso pozik irteten ginen. Beraz, balorazio positiboa egin behar dut Arrasateko emanaldiaz. Jendearen ilusioarekin jolas egitea da gure helburua, eta alde horretatik lortu egin genuela uste dut. Izan ere, astegun batean eta 20:30ean izan zela kontuan izanik, bada, erantzun bikaina izan genuen!



Jon Maia.

Ikusleak protagonista sentitzea lortu zutenen?

Nik uste dut dokumentalean jendeak bere burua ikusten duela pelikulako protagonista horiengan, eta Arrasaten gauza bera gertatu zen.


Beraz, balorazioa positiboa izan dela esan dezakegu?

Bai, oso positiboa. Amaieran kamiseta mordo bat saldu ziren, eta gazta pila bat jan zen, postuak hutsik bukatu zuen.

POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakeleko telefonoan!

- ▶ Albisteak
- ▶ Gaiak
- ▶ Iritziak
- ▶ Parte hartzeko atala
- ▶ Blogak
- ▶ Gida komertziala
- ▶ Irratia
- ▶ Tebista



PARTE HARTU Parte hartu zorian agurrak, eskalak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



HERRIAK Albisteak, herriko eta gaika antolatuta. Etxeko ordenagailuan bezala



AGENDA Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren arabera bilaketa.



GIDA KOMERTZIALA Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.

Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



m.goiena.net



2010eko Udal Musika Bandaren kontzertua. | GOIENA

Kontzertuak eta kalejira kurtsoari amaiera emateko

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko dute aste bukaeran

MAIALEN REGUEIRO | BERGARA

Bergaran musika doinuak entzuteko aukera egongo da aste bukaeran. Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du zapatuan, eta domekan, aldiz, Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu.

Zapatuko hitzordua

Bergarako Orkestra Sinfonikoak urtero ekainean egiten duen kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Santa Marina elizan, 20:00etan, eta 45 minutu inguru iraungo du. Hain zuzen ere, bost obra eskainiko dituzte eta kontzertua amaitu aurretik, sorpresa gisa, musika irlandarra eskainiko dute. Hitzordu hori herritar guztiendako da eta doakoa izango da.

Alfredo Gonzalez Chirlaque orkestra zuzendariaren arabera: "Kontzertu hau urtero egiten dugu kurtsoari amaiera emateko". Izan ere, kontzertu horretan entzungo diren obrak ikasurte osoan zehar entseatu dituz-

HITZORDUAK

ZAPATUA

20:00 Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua Santa Marina plazan.

- ▶ *Cuarteto para Cuerdas en Re Mayor.*
- ▶ *Primer Tiempo,*
- ▶ *Lo egin maitea.*
- ▶ *BSO Forrest Gump.*
- ▶ *ABBA.*

DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua Espoioian.

- ▶ *Campo de Rosas.*
- ▶ *Ivanhoe.*
- ▶ *Suit provençale.*
- ▶ *Katiuska.*
- ▶ *The Girls of Jobim.*
- ▶ *Umora ona.*

tenak izango dira. Kontzertu horretaz gainera, Bergarako Orkestra Sinfonikoak beste kontzertu bat eskainiko du ekainaren 29an, Elorrioko parrokiari, 22:00etan.

Domekako hitzordua

Domekako hitzordua, berriz, goizean izango da. Izan ere, 11:30ean, Bergarako Udal Musika Bandak kalejira egingo du Bergarako hainbat kaletan zehar. Kalejira Bidekruzeta auzoan hasiko da eta San Pedro, Burdinate eta Barrenkaletik igaroko da, San Martin plazara iritsi arte. Chirlaquek zehaztu du "kalejira horrek 30 minutu" iraungo duela.

Eta kalejira amaitzean, Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Espoioian, 12:30ean. Hain zuzen ere, sei obra entzuteko aukera egongo da, Chirlaquek adierazi duenaren arabera. Kontzertu hori ere herritar guztiari zuzendutakoa eta doakoa izango da.

'Erregea eta bufoia' antzezlan ikusgai bihar Herriko Plazan

Ander Lipusek Beñat Gaztelumendi bertsolaria izango du lagun biharko emanaldian, 17:00etan

M.R. | ESKORITATZA

Ez da lehen aldia *Erregea eta bufoia* antzezlan gure bailara ekartzen dutela. Hala, bihar antzezlan hori Eskoriatzan ikusteko aukera egongo da, 17:00etan, Herriko Plazan. Hori dela eta, emanaldia doakoa izango da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta hitzordura. Izan ere, ez dago antzezlan hori ikusteko adin-mugarik, helburua ondo pasatzea eta umoreaz gozatzea baita.

Biharko emanaldian, Ander Lipusekin batera, Beñat Gaztelumendi bertsolari donostiarra eta Unai Elizasu izango dira protagonistak. Azken horren eginkizuna beste bi protagonistei gaia jartzea izango da. Izan ere, Gaztelumendik Elizasuk jarritako gaiaren gaineko bertsoa sortu beharko du eta Lipusek Gaztelumendik egindako bertsoari erantzun beharko dio, antzezlanaren bitartez.

Antzezlan

Lipusek, jada, *Erregea eta bufoia* -ren 80 emanaldi baino gehiago egin ditu Euskal Herrian. Hori dela eta, Gaztelumendiren pre-

sentzia ez da berria, ezta Elizasurena ere. Izan ere, Lipusek pertsona zehatz batzuk ditu aukeratuta, eta horiek aldatzen joaten dira.

Egin dituen antzezlan horietarako, Lipusek rol batzuk prestatzen ditu; besteak beste, mozkorra dagoen mutilarena, eta Elizasuk ezagutzen ditu rol horiek. Elizasuk rol horien arabera gaiak jartzen ditu eta Gaztelumendik eta Lipusek elkarrizketa antzeko bat egiten dute bertso eta antzezlanen bitartez. Hala, emanaldian giro ona sortzen da eta jendeak ondo pasatzen du.

Inprobisazioa

Emanaldi horretan inprobisazioa da nagusi. Izan ere, antzezlan horietan dagoen bertsolariak bertsoa momentuan sortzen du eta Lipusek gaiaren arabera antzezlan egiten du. Hura izan daiteke bere rola inprobisatzen ez dituen bakarra.

Horrez gain, Lipusek, emanaldia ikusten ari den jendearen emaitzaren arabera, jolas batzuk sartzen ditu, haiek ere protagonista izateko.



Erregea eta bufoia antzezlan Oñatin. | GOIENA

ONGI ETORRI!

BIENVENIDO
WELCOME
BENVINGUT

BIENVENUE
歡迎
WILLKOMMEN
BINE AI VENIT
BEN-VINDO

UDAKO
IKASTARO
TRINKOAK

UDAKO IKASTAROK 2012
Matrikula zabalik
www.udaleuskaltegiak.net



Udako ikastaroak 2012

HABERen dirulaguntza

2012-13 ikasturterako aurrematrikula

MATRIKULA ZABALIK

Ekainaren 18tik 25era
16 urtetik gorakoentzat

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza 2
(Eskola Politekniko ondoan)
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta kalea 18 - OÑATI
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegi@oinati.net

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkale 33 (Irizar Jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2-4 Arebabaleta
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Inbaurbueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net



EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

www.udaleuskaltegiak.net



Malen Gurrutxaga, hezten ari den txakurrekin, Bergaran.

Malen Gurrutxaga | Txakur hezitzailea

"Animalia bat edukitzea ez da kapritxoa, ezta pribilegioa ere, baizik eta erantzukizuna"

MAIALEN REGUEIRO | BERGARA

Malen Gurrutxagak (1985) txikitatik izan ditu gustuko animaliak. Horregatik, Albaitaritza ikasketak egin zituen Zaragozan, 7 urtez. Egun, txakurrak hezten ari da, txakurrak hezteko monitore izateko titulua baitauka.

Zergatik Albaitaritza ikasketak?

Animaliak txikitatik gustatzen zaizkit eta betidanik jakin izan dut albaitari izan nahi nuela. Bestalde, ikasketak bukatu ahal konturatu nintzen heziketa mundua gehiago gustatzen zitzaidala. Bi gauzak egin ditut, eta oso gustura nago.

Badakazu animaliarik etxean? Zein?

Katu bat daukat. Gure etxean beti izan dugu katua. Dena den, beti txakurra edukitzea nahi izan dut,

baina etxean ez dira inoiz ados egon eta ez dugu inoiz izan.

Izan diezu sekula beldurra animaliei?

Nik gogoratzen dudaren arabera, ez. Noizean behin, jarrera arazoak dituzten txakurrei beti izan diet errespetua, baina, orokorrean, ez dut inoiz esperientzia txarrik izan animaliekin. Hain zuzen ere, horregatik ez diet inoiz beldurrik izan.

Zer esango zenieke animaliak gustuko ez dituztenei?

Animaliaren bat gertutik ezagutzera animatuko nituzke. Nire ustez, animaliak gustuko ez izatearen arrazoia da pertsona horiek animaliekin kontakturik izan ez dutela. Dena den, errespetatu beharreko zerbait da.

Zer dira animaliak zuzetzat?

Lehenik eta behin, errespetatu beharreko zerbait direla esango nuke. Etxera animalia bat ekarri gero, hari bizi kalitatea ematea derrigorrezkoa da, askotan pertsonak baino zintzoagoak, fidelegoak eta zentzudunagoak direlako. Ez dira ez opari bat, ezta dekorazio elementu bat ere. Noski, animalia bat edukitzeko erabakia hartzen denean, zein animalia hartzen ari garen jakin behar dugu eta zein bizimodu mota behar duen jakin behar dugu.

Zein da zure animalia gustukoena? Zergatik?

Ez dakit zein den nire animalia gustukoena. Izan ere, zaldiekin lan egin izan dut, gaur egun txakurrekin lan egiten dut eta etxean beti katua izan dugu. Txakurren

eta katuen artean ez nuke jakingo zein aukeratu, animalia bakoitza mundu bat baita.

Zergatik hezi behar dira animaliak?

Gaur egun gizartea antolatuta dagoen eran, ezinbestekoa da, batez ere, txakurrak hezea. Izan ere, gizakien bizimoduan integrazioa behartu ditugu eta horrek beharrezko egin du txakurrei jokaera arau batzuk ezartzea.

Zer da txakur bat hezea?

Txakur bat hezea arau basiko batzuk erakustea da, haren bizi kalitatea eta gurea hobetzeko helburuarekin. Era horretan, aurrerantzean, posible den tokietan txakurra solte eraman ahal izango da, sokarekin txakurra gure eramateko aukera izango da, eta ez hark gu...

Nola hezten da txakur bat?

Lehenik eta behin, pazientziarekin hartu beharreko gauza bat da, txakur bat zer den argi izan-

da. Eta, noski, haien pentsatzeko, jokatzeko eta ulertzeko modua ezagutu behar da.

Nola ikasten da txakur bat hezten?

Formazio pertsonala ezinbestekoa da. Nik, Albaitaritza gain, Txakurrak hezteko monitore titulua ateratu nuen Iurretako ZAUNK zentroan. Egun, nire eskolak txakurrak dira, eta txakur bakoitzak asko erakusten dit.

Zer deritzazu animalien kontrako tratu txarrei?

Nire ustez, gaur egun, zigorrak gogortu egin beharko lirarteke. Dena den, pixkanaka gauzak aldatzen doaz eta geroz eta jende gehiago dago kontzientziatua arazo horrekin. Hala ere, pena da, zeren eta jende askok bere frustrazio pertsonal guztiak animaliarengan kanalizatzen baititu. Animalia bat izatea ez da kapritxo edo pribilegio bat, erantzukizun bat baizik.

PERTSONALA

Zure herriko txokorik maiteena: San Martin baserria.

Euskal Herriko txokorik gustukoena: Zarautz.

Animalia bat: txakurra.

Animalia gorrotagarria: intsektuak.

Amets bat: hegan egitea.

Bidaiatzeko leku bat: Thailandia.

Animaliekin joateko leku bat: Mendia edo hondartza.

Pelikula bat: El diario de Noa.

Udarako plana: Menorcarra joatea.

1. ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Aramaio. Aukera ona. Gantzagan etxe bakarra salgai. Egoera onean. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta-arbolekin. 300.000 euro. 636 94 81 31

Aretxabaleta. 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela eta bi bainugela. 11 urte dauzka. Egoera oso onean. 228.000 euro negoziagarri. 696 55 53 67

Arrasate. Etxebizitza salgai edo alokagai. Duplexa, erdialdean. Hiru logela, ikasgela, egongela, sukaldaria eta komun. 110 metro koadro. Igogailu gabe. Hozkailu eta plater garbigailu berriak. Leihoak berriak 150.000 euro saltzeko eta 600 euro errentan. 665 72 66 58

Mobil homea Iratzen. Nafarroan. Lizarratik 2 kilometro. Oso gutxi erabilia. 3 logela: bat bikotearentzat eta beste biak bi oherekin bakoitza. Sofa-ohaeare bai. 6-8 pertsonarentzat. Lorategia eta portxea. 44.000 euro negoziagarri. Interesatuei argazkiak bidaliko nizkieke. Deitu 686 77 04 97 edo idatzi mezuzi: jm.urrataxi@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Jantzia. 636 73 54 94

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uriburu kalean, unibertsitate ondoan. Hiru pertsonendako modukoa. Deitu 699 49 87 89 (Juan) edo 943 79 31 48 telefonora.

Donostia. Etxebizitza ematen da errentan Aieten, uztail eta abuztuan. Igerileku eta frontoiarekin. Kotxe batendako garajearekin. 679 44 60 71

Gasteiz. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitate aurrean. Berria, argisua, haundia (104 metro gehi terraza), bi logela eta bi bainugela. 676 16 86 61

Torreveja. Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonendako lekua. Bilogela, terraza, solarium pribatua eta elkartetako garajea eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 648 46 90 51

Baserría edo borda. Bikote gazteak baserri edo borda errentan hartu nahiko luke. Ez du axola egoera txarrean badago. Prest egongo ginatete konpokatetik egiteko edo baserriko lanetan laguntzeko ere. Idatzi mezua xibase75@hotmail.com helbidera edo deitu zerbaki hauetara: 697 75 49 73 edo 634 73 19 47

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. Deitu 653 71 44 57 telefonora.

Arrasate. Neska arduratsua etxebizitza edo logela behar du errentan. Kontratuarekin. 634 40 64 65

Arrasate. Pisua osatzeko pertsona baten bila gabilta. Uztailetik aurrera. Kontratuarekin. 657 72 51 65

Elgoibar. Logela daukat errentan emateko. Deitu 699 60 91 90 telefonora.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Orozkon (Bizkaia) daukadan baserria eta pinudiak trukatu nituzke Arrasateko etxebizitza bategatik. 2006an berriua. Gorbeia inguruan. Bilbotik 25 minututa. Deitu 678 72 75 72 telefonora.

Trukea. Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatu nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metroa. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37

2. GARAJEAK**201. SALDU**

Arrasate. Zerrajera kalean 15 metro koadroko garaje itxia salgai. Solairuartea dauka. 24.000 euro. 666 53 95 39

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Ibargaraien. Gauzak gordetzeko apalategiarekin eta urrutiko agintedun atareekin. Deitu 608 77 64 27 edo 671 36 12 96 telefono zenbakietara.

3. LOKALAK**304. ERRENTAN HARTU**

Lokala errentan hartu. Gutxienez 60 metro karratu inguruko lokal bat alokatuko gurek Bergaran garaje eta bitegi bezala erabiltzeko. Deitu 685 72 51 58 zenbakira.

4. LANA**401. ESKAINTZAK**

Arrasate. Etxeko lanekin eta umea zaintzeko emakumea behar da, goizez lan egiteko, 7:30etatik 13:30era. 695 70 35 25 edo 943 03 75 96

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska, prest haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 88 39 57

Arrasate. Emakume arduratsua etxeko lanekin egiteko prest (garbiketa, plantxa, sukaldaritzak, portalak...) 10 euro ordua. Erreferentziak. (Ana). Deitu 943 79 04 69 telefonora.

Arrasate. Bertako emakumea lanerako gertu: ume edo nagusiak zaindu, etxeko garbiketak eta abar. 943 79 60 89

Arrasate. Emakumea lanerako gertu: zerbitzari, garbiketak eta abar. Juana Martinez. Deitu 662 25 99 64 zenbakira.

Bergara. Neska euskalduna uztaillean haurrak zaintzeko prest. Edozein ordutegitan egin dezaket lana. Haurrei buruzko ikasketak ditut. 664 46 28 18 edo 943 76 13 18

Bergara edo Arrasate. Emakumea prest etxe zein atarietako garbiketa lanekin edo lisatze lanerarako. 671 80 18 29

Bergara edo Arrasate. Gizonezkoa prest adineko pertsona zaindu edo lorezaintza lanerarako. Deitu 617 02 54 72 telefono zenbakira.

Bergara. Garbiketa edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Titulazioa eta esperientzia dauzkat. 680 77 06 46

Bergara. Neska euskalduna, goiz eta arratsaldez umeak zaindu edota eskolara eramateko prest. Deitu 676 69 56 20 telefonon zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Bergara. Neska gazte euskalduna gertu udan umeak zaintzeko. 617 80 87 85

Debagoiena. 54 urteko emakumea gertu umeak zaintzeko, etxe, atari zein tabernak garbitzeko, edo jate txan lan egiteko. Esperientziaduna. 647 10 58 72

Debagoiena. Edozein porte edo bidaia egiteko prest furgonetarekin. 677 80 16 10

Debagoiena. Emakume arduratsua geriatria tituladuna eta erizaintza laguntzaile titulua ikasten dagoena, pertsona nagusiak atenditzeko prest baita ospitalean gauak pasatzeko ere. Erreferentziak. 664 63 54 55

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu. Interna gisa edo etxeko lanekin egiten ere bai. Esperientziaduna. 671 21 55 26

Debagoiena. Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketa, etxean bizi izaten edo bestela. 699 09 46 26

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa, nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Ana Luisa de los Santos. 673 78 08 99

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: etxean bizi izaten, egunez edo orduka. Deitu 620 65 44 98 zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Bait agarbitasun lanerako ere. Orduetegi malgua. Eskarmentuduna. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu, geriatria eta erizaintza formakuntzarekin, nagusiak zaintzeko. Gaixok eta umeak ere bai. Etxean bizi izaten edo ordua. Deitu 634 62 41 26 telefono zenbakira.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu etxe, bulego, lokal zein elkarteak garbitzeko. Deitu 676 24 89 24 telefono zenbakira.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Azkarrentz 80 m². 3 logela. 92.856€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Irizar Enparantza 71 m². 2 logela, igogailu, berogailu, trasteleku eta garajearekin.
- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailu, berogailu eta trastelekuarekin.
- Ibargorai 90 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubiuurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabategi 55 m². Balkoia eta trasteleku. Prezio jaitsierarekin. 114.192€.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarrentz 75 m². 3 logela. Berriua. Oso ondo. 144.243€.
- Zabategi 80 m². 3 logela. Igogailu. 154.760€.
- Ibargorai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailu, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zabategi 54 m². Balkoiekin. 96.000€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Zubiuurre 65 m². 3 logela. 63.000€.
- Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Iparragirre 40 m². Apartamentua, berria.
- Zubieta 240 m². ortuarekin.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
- Bidekuruztetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorenzokon pisuak estrenatzeko. 3 eta 4 logelatakoak. AUKERA ONA.

Antzuola:

- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Sagasti Duplexa 125 m². Oso ondo
- Buzinzurzin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buzinzurzi, Sagasti, Antigua, Zurategi, Behoko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aieria eta Errekalde. Etxe anak.

Soraluze:

- Sagat Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe anak.

Elgeta:

- Torrealedea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

Bergara. Ingeles eskolak ematen dira. Uztaillean, orduka zein intentsiboak. Maila guztiak. Enpresarako formazioa eta Cambridge edo HE0eko azterketak prestatzeko ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 91 32 89

Ordenagailu eskolak. Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahi duzula? Lasai, internet, web orriak diseinatu, programazioa, Microsoft, inteligentzia artifiziala eta abar. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 679 74 00 61

503. BESTELAKOAK

Doako informatika laguntza. eskaintzen dut langabezia dauden pertsona edota familia ugariendako. Edozein arazo, galdera edo aholku behar baldin baduzu informatika arloan, nire laguntza dohainik eskaintzen dizut. laguntzen@gmail.com

7. ANIMALIAK**701. SALDU**

Asto emea. Asto eme nagusia salgai. Beltza da eta oso mantsoa da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 655 71 39 27

703. EMAN

Border Collie arrazako txakurra ematen da opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 46 45 33

Katakume polit-politik. Siamesa eta kale katuaren arteko katakume polit-politik ditut oparitzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara 21:00etatik aurrera. Itziri. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 945 30 42 09

Txakurkumeak Urbian. Txakurkumeak ematen dira opari Urbiako fondan. deitu telefono honetara: 943 78 13 16

8. DENETARIK**801. SALDU**

Almirante trajea. Jaunartzea egiteko mutiko trajea salgai. Behin bakarrik erabilia. Traje osoa, zapatak izan ezik. 10 neurrikoa. 150 euro. Interesatuok deitu: 618 00 08 28

Aulki bikoitza. Aulki bikoitza, adin desberdineko anai-arrebentzat salgai. Graco Stadium Duo markakoa. 653 71 53 81

Baserritar erropa. Mutikoarendako baserritar erropa salgai. Urtebete eta lau urte bitartean erabiltzeko. Praka, alkandora, blusoi beltza, txapela, galtzerdiak eta 21 zenbaki narrazio albarkak. 50 euro. Idatzi marysea15@hotmail.com helbidera edo deitu zenbaki honetara: 653 72 22 54

Bizikleta. Mendiz RS4 bizikleta salgai. Karbonozkoa, txuria eta gorria. 51 neurrikoa. Shimano Ultegra kanbiduna. Fulcrum Racing gorpulekin. 2010eko eta egoera oso onean. Faktura dauket. 606 28 81 19.

Gimnasiarok bonoa. Bibono saltzen dira Arrasaten. 15 hila-beterako. Egunero joan zaitezke astelehenetik larunbatera, eta edozein klaser. 280 euroan bakoitza. 607 06 22 20 edo annunciointer@yahoo.es

Karro denda. Oso egoera onean. Sekulako aukera. 1.200 euro. 617 80 87 85

Kayaka. 3D Perception modeloa. Txalekoa, txubaskeroa, arrauna eta abar. 800 €. Deitu 690 81 64 39 telefonora.

Lizentzia. Taxi lizentzia salgai Bergaran. 670 41 07 24

Piano digitala. Ringway TG-8815 modeloa. Oso gutxi erabilia. 275 euro. Interesatuok deitu: 675 00 80 33

Sofa. Hiru pertsonendako sofa polit bat saltzen da 300 eurotan. 667 06 51 16

Trialsinerako bizikleta. Trialsinerako bizikleta salgai. Egoera oso onean dago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 21 89 74

Umeendako aulkia. Mutsy Urban Raider umeendako aulkia eta kapazoa salgai. Bi zaku opari. 652 76 60 36

Xurgagailua. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 62 02 49

802. EROSI

Igel jokia. Igel joko baten bila nabil. Norbaitek badu deitu diezadala 607 66 02 44 telefono zenbakira.

Lursaila erosiko nuke. Lursaila erosiko nuke Bergara, Oñati edo Eskoriatza artean, erleak ipintzeko, hektarea 1 eta 4 artekoa. 626 01 19 07

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko ditut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nitzateke. Iñaki. 699 06 23 95

Liburuak. Arizmediko LH 6. mailako liburuak hartuko nituzke. Emateko badituzu, deitu: 605 46 19 26

806. GALDU

Betaurreko graduatuak. Betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 31n, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko bidegorrian. Mesedez aurkitu badituzue jarri kontaktuan nirekin. 608 41 53 11

Motxilak galdu. Maitzaren 11n umeen 2 motxilak galdu genituen. Bat urdina eta beste kamuffaje (naranja kolorekoa). Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara: 615 79 13 21

807. AURKITU

Lepokoa Arrasaten. Lepoko aurkitu nuen maiatzaren 20an, Munarren. Galdu baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 689 88 98 12

Mediku tresnak. Tentsioa hartzeko eta auskultatzeko tresnak aurkitu genituen maiatzaren 11n Arrasateko Aldai kale inguruan. Zureak badira, deitu telefono zenbaki honetara: 943 79 46 04

808. BESTELAKOAK

Espiritu Santuari. Eskerrik asko Espiritu Santuari jasotako mesedeagatik. GL.

9. HARREMANAK**904. BESTELAKOAK**

Udan hizkuntzak praktikatzen. Euskara eta gaztelania hitz egiten duen neska naiz eta euskaraz da nire ama-hizkuntza. Frantsesa ikasten ari naiz eta frantsesadakien norbaitek hitz egiteko aukera izatea gustatuko litzaidake. Trukean nirekin euskaraz edo gaztelania praktikatzen ahal izango du. Ekainean edo uztaillean, arratsaldetan, doan hizkuntzak praktikatzen nahi dituenak, deitu. 663 33 95 69

ASTEAGOIENAN

Tokikom jardunaldiak
'Magazinea' saioan

Egubakoitzean Arrasaten egin-dako Tokikom jardunaldiei buruz jardungo dugu aste honetako *Magazinea* saioan. Gainera, jardunaldien nondik norakoak azaltzeko, Joxe Rojas Topaguneko hedabideen saileko arduraduna izango da gurean.

'Magazinea'
Astelehena, 20:16

Ekolapiko ekimena
'Ekogune' saioan

Aste honetako saioan Ekolapiko proiektuaz hitz egingo dugu, ikastetxeetako jantokietan elikadura ekologiko eta osasuntsua txertatzeaz arduratzen den proiektua. Horrez gain, Idiazabal gaztarekin flak egiten erakutsiko dizuegu.

'Ekogune'
Eguaztena, 22:03

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA 15

12:20 *Magazinea*
13:05 Zorion Agurrak
13:10 Berbetan
13:45 Oinein
14:13 Beranduegi.tv
14:28 Planik bai?
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:13 Planik bai?
15:23 Bizitegia
15:53 Berbaz
16:53 Berriak
17:13 Eguraldia
17:18 Planik bai?
17:38 28.Klip
18:02 Harira
18:32 Ekogune
19:02 Beranduegi.tv
19:21 Berbetan
19:56 Zorion Agurrak
20:01 Berriak
20:21 Eguraldia
20:26 Planik bai?
20:46 Harira
21:16 Berriak
21:36 Eguraldia
21:41 AsteON
22:11 Berriak
22:31 Eguraldia
22:34 Planik bai?
22:44 Tertulia
23:44 AsteON

ZAPATUA 16

10:00 Ipupomamua
10:26 Zorion Agurrak
10:31 28.Klip
10:55 Planik bai?
11:05 AsteON
11:40 Berbetan
12:07 Bizitegia
12:37 Ikusmira
13:10 Oinein
13:38 Berriak
13:53 *Magazinea*
14:53 Tertulia
15:53 Harira
16:23 Planik bai?
16:33 Zorion Agurrak
16:38 Berriak
16:53 Oinein
17:22 Ekogune
17:52 Goierri Creation Center
18:17 Altxor Txokoa
18:47 Zorion Agurrak
18:52 Ikusmira
19:25 Berbaz
20:33 Beranduegi.tv
20:48 *Magazinea*
21:48 Planik bai?
21:58 Goierri Creation Center
22:24 Harira
22:54 AsteON
23:29 Planik bai?
23:39 Tertulia
00:29 Tertulia

DOMEKA 17

10:00 Hamaika.bit
10:32 Ipupomamua
11:02 Zorion Agurrak
11:07 Oinein
11:36 *Magazinea*
12:36 Bizitegia
13:01 Berriak
13:16 Oinein
13:36 Altxor Txokoa
14:06 Tertulia
15:06 Zorion Agurrak
15:11 Berriak
15:26 AsteON
16:01 Ipupomamua
16:31 Goierri Creation Center
16:57 Berriak
17:12 *Magazinea*
18:12 Harira
18:42 Beranduegi.tv
18:57 *Magazinea*
19:57 Ekogune
20:27 Berbetan
20:54 Zorion Agurrak
20:59 Ikusmira
21:24 *Magazinea*
21:59 Goierri Creation Center
22:26 Berriak
22:41 Bizitegia
23:11 Beranduegi.tv
23:29 *Magazinea*
00:11 Eguraldia

ASTELEHENA 18

12:30 *Magazinea*
13:30 Zorion Agurrak
13:35 Oinein
14:03 AsteON
14:38 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Ur eta lur
15:40 Ikusmira
16:13 Iruñeko Hotsak
16:43 Zorion Agurrak
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:13 Zorion Agurrak
17:18 Ur eta lur
17:50 Oinein
18:15 Berbaz
19:23 AsteON
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:16 *Magazinea*
21:01 Berriak
21:26 Eguraldia
21:31 Harmailatik
22:16 *Magazinea*
23:01 Harmailatik
23:46 Berriak
00:09 Eguraldia

ASTEARTEA 19

12:30 *Magazinea*
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Harmailatik
14:05 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Oinein
16:20 Altxor Txokoa
16:50 Berriak
17:15 Eguraldia
17:18 Bizitegia
17:48 Harmailatik
18:28 Berbetan
18:55 Hamaika.bit
19:25 Iruñeko Hotsak
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:18 *Magazinea*
21:03 Zorion Agurrak
21:08 Berriak
21:28 Eguraldia
21:33 Harira
22:03 AsteON
22:33 *Magazinea*
23:18 Goierri Creation Center
23:44 Berriak

EGUAZTENA 20

12:15 *Magazinea*
13:00 Zorion Agurrak
13:05 Harira
13:40 Beranduegi.tv
13:55 Harmailatik
14:41 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:11 Iruñeko Hotsak
15:43 Oinein
16:13 Goierri Creation Center
16:39 Zorion Agurrak
16:44 Berriak
17:04 Eguraldia
17:07 Harmailatik
17:50 Ekogune
18:20 Altxor Txokoa
18:50 Beranduegi.tv
19:10 Harira
19:45 Zorion Agurrak
19:49 Berriak
20:09 Eguraldia
20:14 *Magazinea*
20:52 Lehiaketa
21:00 Berriak
21:20 Eguraldia
21:23 *Magazinea*
22:03 Ekogune
22:33 Tertulia
23:33 Berriak
23:58 Eguraldia
00:16 Eguraldia
00:21 Planik bai?

EGUENA 21

12:25 *Magazinea*
13:10 Zorion Agurrak
13:15 Ekogune
13:45 Tertulia
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:10 Hamaika.bit
15:42 Esatea libre
17:22 Altxor Txokoa
17:55 Eguraldia
18:00 Tertulia
19:00 Ekogune
19:35 Planik bai?
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:20 *Magazinea*
21:00 Planik bai?
21:20 Berriak
21:45 Eguraldia
21:48 Hamaika.bit
22:20 Goierri Creation Center
22:46 Planik bai?
23:06 *Magazinea*
23:51 Berriak
00:10 Planik bai?
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Dragoi-janera
afaltzera joateko
txartelak zozketan

Dragoi-janerako txartelak entzuleen artean zozketatuko ditugu. San Juan egunean ospatuko den dragoi-janerako txartelak eskuratzeko zozketan parte hartu nahi baduzu: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo idatzi mezu bat: irratia@goiena.com edo @arrasate-goiena. Zorte on!

Arrasateko KZ
gunearen kokaleku
berriaz berbetan

KZgunea lekuz aldatu dute, eta, kokaleku berriari buruzko xehetasun guztiak jakin nahi izanez gero, entzun bihar eta etzi Arrasate Irratia. Asteburuko gainbegiratuan jakin ahal izango duzue zer den KZgunen berriak eskaintzen duena. Hori guztiori eta are gehiago 107.7ko uhinetan.

URTEURRENA

Teodora
Aretxaga Solaun

Pedro Mancisidorren alarguna

2011ko ekainaren 7an hil zen, 88 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 17an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felix
Santa Cruz Beloki

2011ko ekainaren 11n hil zen, 84 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 16an, 19:00etan, Oñatik Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

*Duela urtebete alde egin arren gure arteak
sekula etzara joango gure bihotzetik.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Lucia
Bidaburu Barrutia

Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 11n.



Gurekin egon zareten guztioi eskerrak familiaren izenean.

Arrasaten, 2012ko ekainaren 15ean.

HILDAKOAK

Jose Antonio Abril Fernandez. Aretxabaletan, ekainaren 7an. 45 urte.
Ana Isabel Anunciacion Beistegi Arzuaga. Arrasaten, ekainaren 7an. 55 urte.
Maria Ojea Larrañaga. Arrasaten, ekainaren 10ean. 79 urte.
Lucia Arenaza Urbari. Arrasaten, ekainaren 10ean. 84 urte.
Enrique Vega Galdos. Arrasaten, ekainaren 10ean. 82 urte.
Lucia Bidaburu Barrutia. Arrasaten, ekainaren 11n. 89 urte.
Felix Hermosel Flores. Arrasaten, ekainaren 12an. 76 urte.
Antonia Urbarren Egidazu. Arrasaten, ekainaren 13an.
Bixenti Amillaga Lasa. Bergaran, ekainaren 13an. 87 urte.
Jose Maria Salsamendi Gabilondo. Arrasaten, ekainaren 13an. 71 urte.
Luis Maria Astigarraga Perez. Bergaran, ekainaren 13an. 49 urte.

URTEURRENA

Jose
Zabaleta Larrañaga

Ugabide baserrikoa

2011ko ekainaren 22an hil zen, 91 urte zituela.



Igandean, 12:00etan, Santa Marinako parrokian ospatuko den urtemezara gonbidatuta zaudete. Joango zaretenoi eta gogoan izango duzuenoi alde zurretik eskerrik eman nahi dizkizuegu.

*Bakean eta alaitasunez
bizi izan zinen.
Orain, falta zarenean, zuk utzitako
paztasuna gelditu zaigu.*

Bergaran, 2012ko ekainaren 15ean.

ESKER ONA

Antonia
Urbarren Egidazu

Felix Lizarralde Bediaren alarguna

Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 13an.



Eskerrik asko erakutsi eta eman diguzun guztiagatik.

Elizkizunera etorritako guztiei eskerrik asko.

Arrasaten, 2012ko ekainaren 15ean.



Irune eta Luis Mari

Bergarako Irune eta Osintxuko Luis Mari duela 25 urte ezkondu ziren. Ea beste horrenbeste irauten duzuen! Familiakoen eta koadrilakuen partetik, oso ondo pasatu eta asko disfrutatu. Patxo potolo bat!



Petra eta Urbano

Petra Pagaldai eta Urbano Bengoa. *Holako parejarik Gipuzkoan ez da, Horregaitik gaurkoan zelebratu festa, 6 seme ekarri gainera lau neska, Zoragarriak dira Petra eta Urbano.* Ekainaren 13an 66 urte ezkondu zirela. Zorionak! Besarkada eta patxo asko, familia partetik.



Jana eta Ander

Jana Pescador eta Ander Ajuria ekainaren 15ean ezkondu dira Arrasaten, eta 16an ospatuko dute. Zorionak, lagunen eta Muffinen partetik.



Arantxa eta Aitor

Arantxa Beitia eta Aitor Orue, ekainaren 16an ezkondu dira. Zorionak, bikote! Osaba-izeben eta lehengusuen partetik! Egun zoragarria pasa dezazuela.



Jon eta Maider

Jon Odriozola eta Maider Larrañaga joan den larunbatean, ekainaren 9an, ezkondu ziren Oñatiko udaletxean. Orain eztei-bidaian joanak dira Txinara eta Balira. Zorionak eta oso ondo pasatu bidaian, etxeko partetik!



Jon eta Lurdes

Jon Ortueta eta Lurdes Viguera orain dela 25 urte ezkondu ziren. Hala, zapatu honetan ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak familia-koekin batera. Zorionak, bikote!



Lutxia eta Julian

Ekainaren 16an Lutxia Aiausti eta Julian Vitoria ezkondu dira Uribarriko elizan. Ospakizuna Gure Ametsa jatetxean izango da. "Ziur gaude egun ahaztezi-na izango dela. Oso ondo pasatu Vietnamen eta Kanbodian. Zorionak, bikote, eta muxu handi bat koadrilakoen partetik!".



Xabier eta Ainhoa

Xabier Legorburu eta Ainhoa Lazkano. "Ezkontzia erabaki dou! Egixa al da? Gu, badaezpada, han izango gara! Lagunak".



Felipe eta Juana

Felipe Urrutiak eta Juana Uribeetxebarriak ekainaren 14an 60 urte bete zituzten ezkondu-ta. Familia guztiaren partetik, zorionak eta, orain arte bezala, ondo-ondo jarrai ezazue!

OROIGARRIA

Luxia Bidaburu Barrutia

Arrate Landa lankidearen ama



Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 11n.

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Luis Ezeiza eskolako ikasle, guraso eta irakasleak. Eskoriatzan, 2012ko ekainaren 15ean.

OROIGARRIA



Jose Antonio Abril Fernandez



2012ko ekainaren 7an hil zen, 45 urte zituela.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

Zure koadrilla. Aretxabaletan, 2012ko ekainaren 15ean.

HILETA

Bixenti Arrillaga Lasa

Tiburzio Garitaonandiaren alarguna



2012ko ekainaren 13an hil zen, 87 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur egubakoitza, ekainak 15, 19:00etan, Bergarako Elorregi auzoko San Prudentzio elizan izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Enrique Vega Galdos



Arrasaten hil zen 2012ko ekainaren 10ean, 82 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Vega eta Unamuno ilobak. Arrasaten, 2012ko ekainaren 15ean.

OROIGARRIA

Maria Iturriaga Biteri

Kepa Martelo langilearen amama



Legution hil zen 2012ko ekainaren 11n.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena

Goiena Komunikazio Taldea. Debagoienean, 2012ko ekainaren 15ean.

Babeslea:



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

BERGARA Gaztetxe Eguna

Bergararako gaztetxean urteurrena ospatzen dihardute ekainaren 6a ezkerro, eta bihar izango da egun handia: Gaztetxe Eguna. Goizeko hamaitketan poteo musikatu egingo dute; bertso bazkaria ere egongo da, eta 23:00etan bergararako musikariek bertso gaua eskainiko dute.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 11:00etan.



GOIENA



GOIENA

ARRASATE Governorsen kontzertua

Governors taldeak kontzertua eskainiko du bihar Arrasateko plazan. Ordu berean, Gipuzkoako Ume Minbizidunen Gurasoen Elkarteak diruz laguntzeko barra bat ere jarriko dute. Governorsen aurretik Mery May & The Bang Band arituko dira.

Bihar, zapatua, herriko plazan 23:00etan.

MUSIKA**ARRASATE** Arrasate Musikaleko kurtso bukaerako kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleen kurtso bukaerako kontzertua. Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

ARAMAIO Jazz Corner

Jazz musika eskainiko du Jazz Corner taldeak Sastiñan. Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:00etan.

OÑATI Lazkaoko Xanbe haur abesbatzaren kontzertua

Ganbara Txiki egiten ari den elkartrukearen bidez, Lazkaoko Xanbe haur abesbatza etorriko da gaur Oñatira. 9 eta 15 urte arteko 25 gaztetxok osatzen dute Xanbe abesbatza.

Gaur, egubakoitza, Agustinoen elizan 19:00etan.

OÑATI Mery Mayren kantaldia

20:00etan hasiko da Mery May arrasatearraren kontzertu akustikoa, Antton tabernan.

Gaur, egubakoitza, Antton tabernan 20:00etan.

ESKORIATZA Zast! taldearen kontzertua

XII. Aste Zapatistaren barruan egingo dute kontzertua.

Gaur, egubakoitza, Inkernu kanpoan 20:00etan

BERGARA Gaztetxearen urteurren ospakizunen barruan

Gaur arratsaldean tailer erakustaldia kalean (salsa, taila...). 22:30ean *Un par de txurris - Tsna* (sexuari buruzko clown-a).

Ondoren jokoak (Txerapin, Barrilthrowin...).

Gaur, egubakoitza, Bergararako gaztetxean 22:30etik 00:00etara

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 15
EKAINA 17**BERGARA** Rombos Negros

Rombos Negros hirukotearen rock gogorra Kai tabernan.

Bihar, zapatua, Kai tabernan 20:00etan

ANTZUOLA 'Ez dot moztuko bizarra' eguna

Ez dot moztuko bizarra eguna, Antzuolako gazteek antolatuta. Egun guztian zehar izango dira ekintzak herrian.

Bihar, zapatua, Eskolako patioan 11:00etatik 00:00etara

ARRASATE Mery May & The Bang Band

Mery May proiektu berri baten murgildu da. Honako honetan, Bordeleko bi musikarirekin batera ikusteko aukera izango dugu.

Bihar, zapatua, Arrasateko plazan, 23:00ean

JAIK**OÑATI** Olakua auzoko jaiak

Olakua auzoko jaiak asteburu guztian zehar.

Hasiera gaur, egubakoitza, Olakua auzoan 19:00etan.

ARRASATE Umeen danborrada

San Juan jaien egitarauaren barruan, umeen danborrada egingo da bihar, Arrasate Musikale-

ko Musika Bandarekin.

Bihar, zapatua, 19:00etan.

ARRASATE Haur Dantzarien Eguna

Zaldibarko pilotalekuan elkartuko dira haur dantzarien taldeak goizeko hamarretan. Herriko kaleetan zehar erakustaldia egingo dute eta 13:30ean talde guztiak elkartuko dira Arrasateko plazan. Lore Gazteak eta Txixiku Arrostaitz dantza taldeek antolatu dute.

Etzi, domeka, 10:00etan Zaldibarko pilotalekuan

OSPAKIZUNAK**ESKORIATZA** Txupinazo zapatista

12:00etan da txupinazo. 12:30ean Rosa Sanchez abeslariaren kontzertua. Ondoren, 13:00etan, film laburra (Txiapaseko emakume presoaren esker ona Euskal Herriari). 14:30ean, Herri bazkaria: janari mexikarra eta menu begetarianoa. 16:30ean Perkusioa. 17:00etan *Erregea eta bufoia*. Ander



AED

ARRASATE Bertso jaialdia Monterronen

Uxue Alberdi, Aitor Sarriegi, Jone Uria eta Julio Soto bertsolariak saioa eskainiko dute gaur Arrasateko Monterron parkean. Asier Ibaibarriaga ibiliko da gai-jartzaile.

Gaur, egubakoitza, Monterron parkean, 22:00etan.

Lipus, Beñat Gaztelumendi eta Unai Elizasurekin.

Bihar, zapatua, 12:00etatik aurrera.

UMEAK**ELGETA** Gazteleku zerbitzua

11 urtetik gorako gazteendako doan.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan 18:00etan

ELGETA Umeen Eguna gaztetxean

Elgetako gaztetxeak egun osoko egitaraua antolatu du 3 eta 12 urte bitarteko umeendako; jokoak, lagunarteko bazkaria...

Bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean 10:00etan

HITZALDIAK**ESKORIATZA** 'Arizkuren: landa-inguruko autogestioaren bidean'

XII. Aste Zapatistaren barruan antolatu dute hitzaldia.

Gaur, egubakoitza, Kultura etxean 20:00etan.

ARRASATE 'Comer, hablar, amar'

Comer, hablar, amar afari-hitzaldia egingo dute.

Gaur, egubakoitza Hondarribi kaleko 3 zenbakian, 21:00etan.

OÑATI 'Mundu berriak ezagutzea amesten dutenentzat'

Eroski Bidaiak eta Marko Polo agentziek antolatuta, Jose Luis Angulok hitzaldia egingo du datorren eguaztenean, ekainak 20, MUko Enpresa Zientzien Fakultatean.

Ekainak 20, eguaztena, MUko Enpresagintza fakultatean, 19:30ean.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoreetan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?

**ZURICH**M^a del Mar Urrutia Negueruela**Eskaintzarik onena geurean!**Montxon kalea 5 behea
20.560 OÑATITel./Faxa: 943 78 30 09
Polts.: 620 77 66 20



GOIENA

BERGARA Bergarako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua

Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du bihar Santa Marina elizan. Wesley, Beethoven eta beste hainbat maisuren obrak interpretatuko dituzte; baita Gonzalez Bastida eta Gonzalez Chirlaquerenak ere. Bihar, zapatua, Santa Marina elizan 20:00etan.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA 'Zast!' helduentzako kontakizun musikatuak

Zast! helduentzako kontakizun musikatuaren emanaldia eskainiko dute, Arrutiko Intxaurrek eta Issuo Sasiarekin batera. Gaur, egubakoitza, Orlyko terrazan 22:30ean.

ARRASATE Sorgin gaua Monterronen

Akrobatik, ipuin kontalariak, su ikuskizunak, batukada, eta abar. sorgin gauean bihar Arrasaten. Bihar, zapatua, Monterron parkean 22:00an

ARRASATE XVII. mus txapelketa

Aldape tabernan mus txapelketa egingo dute bihar. Bihar, zapatua, 16:30ean Aldape tabernan.

ARETXABALETA GauHon egitasmoa: gaztelekua gauean zabalik

DBHko 3. eta 4. mailetakoko ikasleendako zabalduko dute gaztelekua 22:00ak eta 01:00ak bitartean, eta hainbat jarduerak egin bertan. Bihar, zapatua, gaztelekuan 22:00etatik 01:00etara.

ARRASATE Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren entsegua kalean

Urtero moduan, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak kalean egingo du entsegua. Arratsaldean Seber Altube plazan egingo dira. Bihar, zapatua, Arrasaten egun guztian zehar

ARRASATE Ttak! eguna

Ei zu, euskaraz eizu lelopean, Arrasateko Ttak! gazte taldeak ezagutzera emateko egun osoko egitarau antolatu du. 11:00etan txupinazoarekin emango diote hasiera festari; 15:00etan herri bazkaria egingo da eta 17:00etan koadrilen arteko olinpiadak. 19:00etan kalejira egingo dute. Bihar, zapatua, Arrasaten 11:00etan hasita

DEIA

ANTZUOLA Txosna batzordeko bilera

Jai herrikoien aldeko apustua-ekin aurrera egiteko. Gaur, egubakoitza, gaztetxean 18:00etan

ELGETA Ezker abertzalearen herri batzarra

Sortu Sortzen izenburupean herri batzarra. Gaur, egubakoitza, udaletxean, 19:30ean.

ARETXABALETA Doke txapelketa

Loramendik antolatutako elkarten arteko olinpiaden azken proba egingo dute, eta ondoren sariak banatu. Doke txapelketa jokatu dute Basotxo aurrean dagoen zelaian (17:30), eta ondoren merienda -pasada egin. Doke txapelketarekin bukatuko dituzte olinpiadak; orain arte egingo dako probak izan dira: mus txapelketa; haragi-bola txapelketa; eta bolo txapelketa. Proba horietan puntu gehien eskuratutakoek sariak jasoko dituzte.

Bihar, zapatua, Basotxo aurreko zelaia 17:30etan

IKASTAROKAK

ARRASATE Furgoneta fotovoltaikoak

Eguzki energia erabiliz furgoneta fotovoltaiko bat sortzen erakutsiko dute ikastaroan. 12 orduko tailer teoriko-praktikoa izango da, furgoneta-zaleei zuzendua.

Gaur, egubakoitza, Ferrixalekuan 16:30ean.

KIROLA

ANTZUOLA Uzarragako igoera

Bizikleta challengea: Uzarragako igoera. Bihar, zapatua, 12:00etatik 00:00a

BERGARA Hiruko saskibaloia

Goizeko hamarretan gazte eta kadete mailetakoko hiruko saskibaloia; 16:00etan senior eta elite mailetakokoak. Egun osoan puzgarriak Muniben eta 21:30ean afaria San Martin plazan. Bihar, zapatua, San Martin plazan 10:00etan

ARRASATE Arte Martzialen Eguna

Arrasateko Aikido taldearen eskutik, Arte Martzialen Eguna egingo da bihar Uarkapen. Bihar, zapatua, 10:00etan, Uarkapen.

ARRASATE Gimnasia erritmiko erakustaldia

Uarkapen egingo da, San Juan jaien barruan, gimnasia erritmikoko erakustaldia. Etzi, domeka, Uarkapen 11:00etan.

ZINEMA

OÑATI

KULTURA ETXEA

Quando te encuentre
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

EIBAR

COLISEO

Profesor Lazhar
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelena: 20:30.

Infiltrados en clase
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelena: 20:30.

COLISEO ANTZOKIA

Project X
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelena: 20:30

GASTEIZ

GURIDI

Blancanieves y la leyenda del cazador
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelena: 17:30, 20:00.

Las nieves del Kilimanjaro
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelena: 17:30

Los juegos del hambre
Egubakoitza: 17:00.
Astelena: 17:30

Sombras tenebrosas
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Astelena: 20:00

Men in black III
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelena: 17:30, 20:00

Marvel, los vengadores
Egubakoitza: 17:00.
Astelena: 17:30

Miss bala
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Astelena: 20:00

El profesor Lazhar
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelena: 17:00, 20:00

MSI: Maxima Seguridad
Egubakoitza: 17:00, 20:00, 22:30.
Astelena: 17:30, 20:00

FLORIDA

Moonrise kingdom
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30

Los cachorros y el código de Marco Polo
Egubakoitza: 17:30

¿Y si vivimos todos juntos?
Egubakoitza: 20:00, 22:30

Miel de naranja
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30

Hysteria
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30

Plumíferos
Egubakoitza: 18:00

Four Lovers
Egubakoitza: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00
Egubakoitza eta zapatua: 00:00

Intocable
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30

Las chicas de la sexta planta
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30

La mafia en La Habana
Martitzenean: 18:00

Galindez
Martitzenean: 18:00

BOULEVARD

Hysteria
Egunero: 17:45, 19:45, 21:45.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:45
Egubakoitza eta zapatua: 23:45

Sacame del paraiso
Egunero: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:10
Egubakoitza eta zapatua: 00:10

Acto de valor
Egunero: 18:05, 20:20, 22:35.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 15:55
Egubakoitza eta zapatua: 00:50

Blancanieves y la leyenda del cazador
Egunero: 19:00.
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30

Project X
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00
Egubakoitza eta zapatua: 00:00

Men in black III
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:00

Sombras tenebrosas
Egunero: 20:15, 22:30.
Egubakoitza eta zapatua: 00:45

3D - Men in black III
Egunetan izan ezik, egunero: 21:30
Egubakoitza eta zapatua: 23:30

Quando te encuentre
Egunero: 18:20, 20:20.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20

Intocable
Egunero: 22:20.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30

Lorax
Zapatua, domeka eta jaiegunetan: 16:00.

3D - Marvel - Los Vengadores
Zapatua, domeka eta jaiegunetan: 15:30.

Marvel - Los Vengadores
Egunero: 17:30.

Los juegos del hambre
Egunetan izan ezin, egunero: 17:30.

Tengo ganas de ti
Egunero: 19:00.

GORBEIA

Sacame del paraiso
Egunero: 18:20, 20:20, 22:20.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:20
Egubakoitza eta zapatua: 00:20

Acto de valor
Egunero: 17:30, 19:45, 22:00

Maxima seguridad
Egunero: 18:00, 20:00, 22:00.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00
Egubakoitza eta zapatua: 00:00

Tengo ganas de ti
Egunero: 19:00

Opera Met - Conde de Ory
Egunero: 20:30

Blancanieves y la leyenda del cazador
Egubakoitza: 18:00, 20:30.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan: 15:30, 17:00.
Egubakoitza eta zapatua: 00:30
Astelena: 17:40, 20:10, 22:40

El gran año
Egunetan izan ezik, egunero: 22:20
Egubakoitza eta zapatua: 00:30

La sombra de los otros
Egunetan izan ezik, egunero: 21:45

Men in Black III
Egunero: 17:30, 19:45, 22:00.
Egubakoitza: 17:30, 19:45, 22:00
Egubakoitza eta zapatua: 00:15

3D - Men in Black III
Egunero: 18:15, 20:30, 22:45.
Zapatua, domeka eta jaiegunetan, baita: 16:00
Egubakoitza eta zapatua: 00:55

Sombras tenebrosas
Egubakoitza: 20:15, 22:30.
Astelena: 18:00, 20:15, 22:30
Egubakoitza eta zapatua: 00:45

La sombra de la traicion
Egubakoitza eta zapatua: 00:00

Intocable
Egubakoitza: 20:10.
Astelena: 18:00, 20:10

Los vengadores
Egunetan izan ezik, egunero: 19:00

3D - Los vengadores
Zapatua, domeka eta jaiegunetan: 16:15

Soul surfer
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 16:00

Lorax
Egubakoitza: 18:20.
Egubakoitza, zapatua eta jaiegunetan, baita: 16:30

Los cachorros
Egubakoitza: 18:15a

KRITIKA



FOUR LOVERS ★★★★★

ZUZENDARIA: Antony Cordier.

Herraldea: Frantzia.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Élodie Bouchez, Nicolas Duvauchelle, Marina Foïs, Roschdy Zem.

Iraupena: 103 minutu.

Norabide bako proposamen monotonoa

Frantziatik heltzen zaizkigun film askotxo interesgarriak izaten dira; kasu honetan, baina, ez da hori gertatzen. Ikusi aurretik, *Four Lovers* filmak bazituen kontuan izateko datu batzuk. Esaterako, 2010. urtean Veneziako Zinemaldian aurkeztu zen eta film onenetan ikusi izan ditugun aktoreek ere hartzen dute parte: Nicolas Duvauchellek Erick Zoncaren *Le petit voleur*-en lan egin zuen, Élodie Bouchezek Andre Techineren *Los juncos salvajes*-en eta Erick Zoncaren *La vida soñada de los ángeles*-en. Jatorrizko hizkuntzak, gainera, aktoreen lanaz hobeto gozatzeko aukera ematen du, eta kontatzen den istorioa ere erakargarria da, egia

esan. Bi bikote lagun egiten dira. Gustura sentitzen dira euren artean eta dituzten bikote harremanekin jarraitzen badute ere, laurek adostuta noizean behin harreman sexualak izateko bikotez aldatuko diren erabakia hartzen dute. Hitzartuta dutenaren arabera, bikote ofizialek ezingo dute euren artean barbarik egin besteekin izandako harremanen gainean. Denak oso modernoak, gaurko eta zibilizatuak, baina poliki-poliki zeloa, jakiteko gura eta ziurtasun gabeziak agertzen dira, eta horrek laukotearen egoera korapilatu egingo du. Tamalez, badirudi zuzendariak ez dakiela ondo zer egin material horrekin, eta pertsonaia baino

galduegoa dagoela. Filmak ez du inolako nortasunik. Kamera asko mugitzen da... Sexu eszenak badaude, baina bitxikeria horiek izan ezik, istorioak ez du sendotasunik. Dena nahiko errepikakor bihurtzen da, ez dago pertsonaien eta istorioaren garapenik. Suposatzen dut zuzendariak tonu arinean hasita pausoz pauso alde dramatikor iritsi nahi izan duela, baina bilakaera hori ez du behar bezala egin. *Four Lovers*-ek ez du garapen dramatikorik, ez du indarrak ezta originaltasunik, eta, horrela, bide erdian galduta geratzen da. Gatzik gabeko proposamen monotonoa da.

ANTONIO ZABALA



goiena

2012-06-15

BUKATZEKO

Are lokalago, are gertuago; are hobea

- ▶ Flandesko tokiko egunkari nagusiaren proiektu lokalen arduraduna da Bart Bijmens
- ▶ Eredu are lokalagoarekin herritarrak berriemaile bilakatu dituzte, eta publizitate sarrerak igo

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Flandes mendebaleko *Het Belang van Limburg* egunkariak 850.000 biztanleko komunitate baten merkatu kuotaren %84 dauka eta aise sal ditzake egunero 100.000 ale. Edozein hedabidek beretzat gurako luke hori, baina, hala ere, azken urteetan egunkariaren salmentaren gutxitzea ikusita, eredu berrien bila hasi ziren. "Egunkari lokala are lokalago egitea", horixe da Bart Bijmens proiektuaren arduradunak eskainitako erantzuna proiektu *hiperlokala* planteatzerakoan. Tokikom jardunaldietan emango du honen berri gaur.

Herritarrak, berriemaile

Hiperlokalizazio horretarako, euren irakurleak bizi diren 84 komunitateetara jo zuten -5.000tik 75.000 biztanle arteko eremuak-; lantaldea osatu eta komunitate bakoitzean giltzarri ziren pertsonekin bilerak egin zituzten iaz. "Esan genien", dio Bijnensek, "zuentzat albiste dena guretzat albiste da". Eta herritar berriemaileen sarea osatu zuten. Urtebete geroago, webgunean 7.000 herritar daukate alta emanda, albiste eta artikulua bidaltzen. Jaso ahala kazetari-editoreek idatzia txukundu eta argitaratu egiten dute ahal bezain laster eta zapatu-



Bart Bijmens, egunkariaren ale bat eskuan. | IÑAKI ITURBE


ko edizio lokaletan publikatzen dituzte artikulua. "Askea da erabat", azaltzen du Bijnensek, "premisak bakarrik da: gai politikoak bai, propaganda ez".

Kazetariak -70 bat laguneko lantaldea- ez ei zuten hasieran oso begi onez ikusten, baina, Bijnensek dioenez, azken inkestetan irakurleak "oso pozik daudela ikusten da eta kazetariak ikusi dute gai gehiago daukatela sakondu eta interesa dutelako bermearekin lantzeko". Gako dela dio irakurleak zer ikusi nahi duen pentsatzea "eta gustatzen zaiena argazkiak ikusi eta euren izena egunkarian ikustea". Gako nagusia, hala ere, errebantea dena bereiztea da, eta hori ahalik eta berriemaile gehien izanda lortzen ei da. Salmentak ez dira asko hazi, aitortzen du, baina bai publizitatea, *hiperlokala* hori ere. Tokiko negozio txikien epe luzerako kontratuak areagotu dituzte, "merkeago, gehiagori eta epe luzeago baterako eskainiz". Hor, gako komertziala. Hiru lagunek osatzen dute komertzialen saila eta editoreekin batera egiten dute lan gaien lanketarekin batera iragartze aukerak aztertze.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Zappinga

Telebista mandoa hartu eta ON sakatu ordurako hasi da zaparrada!

Espainiako erreskatea... Raxoik, bankuek bakarrik ordainduko dutela, kronika ematen ari den kazetariak ezetz, Eurostaten arabera zorra Estatuaren defizitari gehituko zaiola. "Korralittoa" ere (Argentinako hitz xelebrea) sasi tertuliakideen ahotan. Adituak ere ez dira ados jartzen zuzenean gure poltsikoak hustuko diren edo zerbitzu publikoak gutxiagotuko dizkiguten...

Zapping... Gipuzkoan, Zaborren Kudeaketaren inguruan, sekulako ekaitza, akordio falta, Diputazioa gehien-goaren aurka... kareta musikala...Gipuzkoako Aldundiak autobide guztietan bidesaria jarriko duela eta kaleko jendearen kexuak... honetan ere akordio falta eta ekaitza!

Zapping! Legazpian, mutiko bati, bizikletako frenoak apropos moztu dizkiotela eta, ospitalean larriki zaurituta... Hau da estresa.

Zapping! Oheko izarak bakarrik antolatzeke mekanismoa asmatu duela Villabonako gizon batek! Ahh... Hau atsedena! Albiste ederra azkenean!

Bihotzen taupadak lasaitzen hasi zaizkit... ohean sartu, lo egin eta bihar goizean... ohea antolatu beharrik ere ez!



DESKONTU BEREZIAK
bainuko altzarietan, erakusketa aldaketagatik



gelatza

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51